
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



**EGOERA
EKONOMIKOA
ETA LAN
HARREMANAK
EAE-N
2025EAN**

**LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO
DE RELACIONES
LABORALES**

Urkixo Zumarkalea, 2, 3. solairua
48008 Bilbo - Bizkaia

T 94 479 21 00
www.crl-lhk.eus

**EGOERA
EKONOMIKOA
ETA LAN
HARREMANAK
EAE-N
2025EAN**

AURKEZPENA	8
SARRERA.....	10
1. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOAREN ETA LAN HARREMANEN EZAUGARRI NAGUSIAK 2025EAN.....	13
2. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOA.....	30
2.1 INGURUNE EKONOMIKOA	30
2.2 EAE-KO EKONOMIA	32
3. ENPLEGUA, KONTRATAZIOA ETA LAN-KOSTUAK	41
3.1. SARRERA.....	42
3.2. LAN MERKATUA ETA ENPLEGUA EAE-N.....	42
3.2.1. BIZTANLERIA AKTIBOA	42
3.2.2. BIZTANLERIA OKUPATUA.....	44
3.2.3. BIZTANLERIA LANGABETUA.....	48
3.3. JAKINARAZITAKO LANEKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA (EAE).....	52
3.3.1. BILAKAERA OROKORRA ETA ERROTAZIOA	52
3.4. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA	56
3.5. SOLDATEN BILAKAERARI BURUZKO AURRETIAZKO GOGOETAK.....	61
3.6. LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATA	63
3.7. LAN-KOSTUAREN HIRUHILEKOKO INKESTA.....	65
3.8. LANEKO PREZIOEN INDIZEA	69
4. LAN HARREMANAK.....	74
4.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA	74
4.1.1. SARRERA.....	74
4.1.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO AKORDIOEN ERAGINPEKO LANGILEEN EZAUGARRIAK	74
4.1.3. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK.....	76
4.1.4. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2025. URTEAN.....	81

4.1.5.	NEGOZIAZIOAREN EMAITZAK 2025EAN	93
4.1.6.	2025EAN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATU ETA SINATU ZITUZTEN ERAKUNDEAK	104
4.1.7.	HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N	110
4.1.8.	NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA SEKTORE PUBLIKOAN.....	112
4.2.	LANEKO GATAZKAK	114
4.2.1.	LANEKO GREBAK EAE-N.....	114
4.2.2.	PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKAK	118
4.3.	ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK	122
4.3.1.	SARRERA. ARAU ESPARRUA.....	122
4.3.2.	EAE-KO ADMINISTRAZIOAN AURKEZTUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK	122
4.3.3.	EAE-KO ADMINISTRAZIOK BAIMENDUTAKO EDO HARI KOMUNIKATUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK	123
4.4.	LANEKO EZBEHAR TASA	128
4.4.1	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N 2025EAN: ALDERDI NAGUSIAK.....	128
4.4.2	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: ANALISIA SEKTOREAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA	130
4.4.3	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: ANALISIA SEXUAREN ARABERA	133
4.5.	HAUTESKUNDE SINDIKALAK	136
4.6.	BERDINTASUN PLANAK.....	139
I.	ERANSKINA EAE-KO SEKTOREKO HITZARMENEN ZERRENDA ETA HORIEN EGOERA 2025EKO ABENDUAREN 31N	143
II.	ERANSKINA 2025EAN LAN HARREMANEN KONTSEILUAN EGINDAKO BILERAK	150

AURKEZPENA

Aurkezten den txostenak helburu zehatza du: EAEko egoera soziolaboralaren irudi argia izatea, non gauden alegia, nora goazen aurreratu ahal izateko, edo gutxienez ahalegina egiteko.

Norbaitek esan zuen irakurketarik gabeko datuak zarata baino ez direla. Txosten hau oparoa da datuetan, datu makroekonomikoetan, baina, batez ere, negozioazio kolektiboari buruzko datuetan. Horren irakurketatik ondorioztatzen da —barkatu spoilerra— negozioazio kolektiboak aurreko ekitaldietan hasitako akordioen bideari jarraitzen diola, eta hori berri ona da bai enpresentzat, bai langileentzat, eta gizarte osoan ere eragin positiboa du.

Hitzarmen baten babespean geratzen diren ia 622.000 lagunez ari gara. Datuari buruz, berriro ere, irakurketa da garrantzitsuena: ziurgabetasuna, arrisku eta mehatxu geopolitiko eta komertzial handien jarraitutasuna eta hitz poloak ere nagusi diren agertokian, bildutako datu multzoa lasai aztertuta, zera ondorioztatzen dugu, ez diogula uzten hondoa ukitzeari, gizarte-eragileek jendearen bizitza hobetzen duten akordioak lortzen jarraitzen dutela.

Azken hori, gizarte-eragileen lana, aurten bereziki jaso nahi izan dugu txostenean: 2025ean 1.018 bilera egin dira Kontseiluan batzorde negoziatzaileekin, batzorde paritarioekin eta PRECO prozedurekin. Negoziazioa ez baita izapide bat: entzutea, pazientzia eta adosteko prest egotea eskatzen du.

Horren guztiaren ondorioz, 2025eko abenduaren 31n, soldatapekoen % 63,8k indarrean zituzten hitzarmenak eta % 31,7k luzatuta, aldiz, hitzarmenak indargabetuta eta goragoko estaldurarik gabe zituzten langileak % 4,5era jaitsi ziren. Urtea amaitzean hitzarmena eguneratuta zutenen ehunekoa aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa bazen ere, 2025eko ekitaldiaren amaierako egoera azken urteetako onenetakoa da.

Ez dut autokonplazentzian erori nahi ordea. Gure negozioazio kolektiboaren bizitasuna nabarmendu beharra dagoela uste dudan uste oso berarekin pentsatzen dut arreta berezia jarri behar diogula erne egotera behartzen gaituen errealitateari, kalitatezko enplegua eta baldintza txarretan ere egonkortasun sendo eta estrukturala bermatuko baditugu.

Txostenaren irakurketa zintzoa eginez gero, ez du aukerarik ematen ez triunfalista ez pesimista izateko: badaude pozik egoteko arrazoiak, baina baita exigenteak izateko tarte ere. Beharrezkoa izango da orri hauek guztiak ondo berrikustea. Gure aldetik, jarraipen hurbila egingo diegu datu aldakorrei eta lanean jarraituko dugu lan-harreman onak lortzen laguntzeko, gizarte osoarentzat kalitatezko enplegua eta bizi-kalitatea ziurtatzeko.

Amaitzeko, txosten hau egitea ahalbidetzen duen lankidetza instituzionalaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Ildo horretatik, besteak beste, honako hauek aipatu nahi nituzke: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, Eustat, Lanbide, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE) eta SEPEren Bizkaiko Lanbideen Behatokia

Emilia Málaga
Presidente

SARRERA

Txosten hau, "Egoera ekonomikoa eta lan-harremanak EAEn 2025ean", 2026ko urtarrila eta maiatza bitartean egingo da, Lan Harremanen Kontseiluak egiten duen hogeita hamargarrena da.

Bere helburu nagusia negoziazio kolektiboak 2025ean izan duen bilakaera aztertzea bada ere (gai hori laugarren kapituluan jorratzen da), uste dugu ezin dela lan-harremanen azterketarik egin egoera ekonomikoa eta enpleguaren bilakaera kontuan hartu gabe.

Horregatik, aurreko edizioetan bezala, bigarren kapituluan EAEko ekonomiaren bilakaera aztertzen da laburki, eta hirugarrenean, lan-merkatuaren hainbat alderdi.

Lehenengo kapituluan, "EAEko egoera ekonomikoaren eta lan-harremanen ezaugarri nagusiak 2025ean" izenekoan, egindako azterketatik ateratako ondorio nagusiak eta azterketako aurkikuntza garrantzitsuenak zehazten dira.



**EAE-KO
EGOERA
EKONOMIKOAREN ETA
LAN HARREMANEN
EZAUGARRI
NAGUSIAK 2025EAN**

EAE-KO EGOERA EKONOMIKOAREN ETA LAN HARREMANEN EZAUGARRI NAGUSIAK 2025EAN

NDFren kalkuluen arabera¹, 2025ean, munduko ekonomia %3,3 hazi zen, eta, beraz, aurreko urteko hazkunde-tasa berdindu zen.

Ziurgabetasuna eta arrisku geopolitiko eta komertzial handiak nagusi diren egoera batean, ekonomia aurreratuen hazkundea %1,7ra mugatu zen, eta hazten eta garatzen ari diren ekonomiek, berriz ere, portaera dinamikoagoa izan zuten, %4,4ko hazkunde estimatuarekin.

Euroguneak %1,4ko hazkundea izan zuen, eta aipatzekoa Alemaniaren BPGa %0,2 baino ez zela handitu; izan ere, egiturazko arazoak, batetik, eta Errusiak Ukraina inbaditu ondoren energiaren prezioak igo izanak eragindako ondorioak, bestetik, oztopo dira Alemaniaren lehiakortasunerako.

Europako ekonomia handien artean, Espainia izan zen dinamikoena, %2,8ko hazkundearekin. Espainiako ekonomiaren hedapena barne-eskariak hazkundeari egindako ekarpen positiboak eragin zuen; izan ere, kanpo-eskariak (kanpo-sektorea) ehunekotan zazpi hamarren kendu zizkion hazkunde globalari.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, aurreko ekitaldian izandako %2,5eko gorakadaren ondoren, 2025ean %2,3 hazi zen. Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta², %1,4 hazi zen.

Estatu osoan bezala, EAEko hazkundea barne-eskariaren hedapenak eragin zuen, hazkunde globalari ehuneko 2,8 puntu positibo eman baitzizkion; kanpo-sektoreak, berriz, bost hamarren kendu zizkion hazkundeari. Etxeetako kontsumoak urte arteko %2,7eko hazkundea izan zuen, kontsumo publikoak %1,7koa eta kapital-eraketa gordinak %4koa.

Sektoreka aztertuta, eraikuntza, zerbitzuak eta industria hazi egin ziren (%3,7, %2,8 eta %0,4, hurrenez hurren), baina azken hori eraikuntzaren eta hirugarren sektorea baino askoz ere erritmo motelagoan. Bestalde, gure Erkidegoko lehen sektorea %0,6 murriztu zen.

Ondorioz, EAEko ekonomiaren itxurazko produktibitatea %0,8 handitu zen, BPGaren hazkundearen enpleguarena baino handiagoa izan zelako.

¹ World Economic Outlook. 2026eko urtarrila.

² Lanaldi osoko lanpostu baliokideak (gaztelaniaz ETC, "equivalentes a tiempo completo") honela lortzen dira: lan egindako orduen guztizkoa zati lanaldi osoko lanpostuetan lan egindako orduen urteko batez bestekoa. Horri esker, jarduera bat egiteko lanaldi osoan diharduten zenbat langile behar diren jakin dezakegu. Adibide gisa, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientean (ABEEE) dauden pertsonen gorakada batek lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua murriztuko luke, baina ez luke eraginik izango biztanleria okupatuan. Gauza bera gertatuko litzateke lehen lanaldi osoan lan egiten zuten lanaldi partzialeko langileen kopurua handitzearekin.

1.1. TAULA
EAE-KO ALDAGAI MAKROEKONOMIKOAK (Urte arteko aldakuntza-tasa)

	2019	2020	2021	2022	2023	2024 ^(a)	2025 ^(e)
ESKARIA							
Azken kontsumoaren gastua	2,1	-9,0	5,2	6,7	1,9	2,8	2,5
- Familien eta horien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeen azken kontsumoa	1,8	-12,2	5,8	7,8	2,0	2,5	2,7
- Administrazio Publikoen azken kontsumoa	3,1	2,9	3,2	3,1	1,9	3,5	1,7
Kapital Eraketa Gordina	3,2	-12,2	5,4	8,7	2,4	2,7	4,0
Barne-eskaria	2,4	-9,7	5,2	7,2	2,1	2,8	2,8
Esportazioak, guztira	-0,1	-15,6	10,5	13,7	-1,1	0,1	0,4
Inportazioak, guztira	0,0	-16,0	9,1	15,9	-2,2	0,4	1,2
BPG	2,3	-9,5	6,1	5,7	3,0	2,5	2,3
ESKAINTZA							
Lehen sektorea	6,0	-16,9	15,0	2,2	12,2	4,3	-0,6
Industria	1,5	-12,0	4,8	3,9	2,2	2,0	0,4
- Manufaktura-industria	1,2	-12,9	9,0	4,5	1,8	1,7	0,3
Eraikuntza	2,4	-14,4	1,0	5,8	4,2	2,0	3,7
Zerbitzuak	2,6	-7,7	6,6	6,7	3,3	2,9	2,8
- Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	2,2	-19,6	15,3	12,6	3,8	2,0	3,3
- Administrazio Publikoak, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak.	3,2	1,1	2,3	3,0	1,2	2,9	2,1
- Gainerako zerbitzuak	2,5	-4,5	4,3	5,0	4,3	3,5	2,9
Oinarrizko prezioei erantsitako balioa	2,3	-9,2	5,9	5,9	3,2	2,6	2,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,0	-11,9	7,8	3,4	1,7	1,6	2,2
BPG	2,3	-9,5	6,1	5,7	3,0	2,5	2,3
Pertsona okupatuak (lanaldi osoko lanpostu baliokideak)	1,5	-6,3	3,0	2,8	1,9	1,5	1,4
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	0,8	-3,3	3,0	2,8	1,1	1,0	0,8

(a) Aurrerapena. (e) Estimazioa.
Iturria: Eustat. 2026ko martxoa.


1.2. TAULA
EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA (EKARPENAK)

	Urte arteko aldakuntza-tasa	
	2024 (a)	2025(e)
Barne-eskariak BGAaren aldakuntzari egindako ekarpena (1)	2,8	2,8
Kanpo-saldoak BGAaren aldakuntzari egindako ekarpena (1)	-0,3	-0,5
PIB	2,5	2,3

(a) Aurrerapena. (e) Estimazioa.
(1) BPGaren aldakuntzari egindako ekarpenaren/kenketaren ehuneko puntuak.
Iturria: Eustat. 2026ko martxoa.

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2025ean gure Erkidegoko KPIaren batez besteko igoera %3koa izan zen; ehunekotan, hamarren bat txikiagoa 2024an lortutakoa baino (%3,1).

2025eko abenduan, EAEko KPIaren urte arteko igoera %2,9koa izan zen; %3,6koa izan zen 2024ko abenduan.


1.1. GRAFIKOA**BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N* 2008-2025 (MILAKA PERTSONA)**

* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Enpleguaren bilakaerari dagokionez, BJAREN arabera, 2025ean 1.005.200 biztanle okupatu izan ziren, aurreko urtean baino 12.500 gehiago (+%1,3). Soldatapekoen behin-behinekotasun-tasak behera egin zuen urte honetan ere, %18,4ra iritsi arte; ehunekotan, puntu bat txikiagoa izan zen 2024an erregistratutakoa baino, eta 12,4 puntu txikiagoa 2019an lortutakoa baino.

1.2. GRAFIKOA**LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ARABERA* (%)**


* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak. Iturria: BJA (Eustat).

Langabezia-tasa %6,4ra jaitsi zen 2025ean; ehunekotan, puntu bat beherago 2024an erregistratutako maila baino. Hori baino langabezia-tasa baxuagoa aurkitzeko 2008ko ekitaldira arte (% 3,8) egin behar dugu atzera.

1.3. GRAFIKOA

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONA KOPURUA EAE-N (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOA). 2008-2025



Iturria: Gizarte Segurantza.

Bai gizonezkoen langabezia-tasa (%6,1) bai emakumezkoena (%6,8) ehuneko puntu bat jaitsi ziren aurreko ekitaldiarekin alderatuta; horrela, bien arteko aldea mantendu egin zen (ehunekotan, zazpi hamarren).

Afiliazioaren bilakaerari dagokionez³, adierazi behar da 2025eko abenduan Gizarte Segurantzaren afiliatutakoak (hileko batez bestekoa) 12.293 gehiago zirela 2024ko abenduan baino (+%1,2), eta 1.036.804 pertsona zirela guztira; hala, maximo historiko berri bat lortu zen.

Nabarmentzekoa da atzerritarrek (gizonezkoek zein emakumezkoek) ekarpen handia egin diotela EAEko afiliazioaren hazkundeari; izan ere, 2024ko abendutik 2025eko abendura bitartean Gizarte Segurantzaren inskribatutako atzerritarren kopurua 6.725 handitu da, eta, beraz, atzerriko afiliazioa izan da hazkunde osoaren %54,7.

Afiliazioaren hazkunde hori Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonen kopuruaren gorakadak eragin zuen (sistema bereziak alde batera utzita), 13.090 pertsona gehiago baitzeuden (+%1,6), eta, horrela, gainerako erregimenek izandako beherakadak konpentsatu ziren.

Erregimen Orokorrean izandako igoera, batez ere, lanaldi osoko kontratu mugagabea zuten kotizatzaileen kopuruaren igoeraren ondorioz gertatu zen (6.621 pertsona gehiago izan ziren 2024ko abendutik 2025eko abendura bitartean), bai eta "Beste batzuk" atalean sartutako pertsonen hazkundearen ondorioz ere (6.778 pertsona gehiago ziren, gehienak funtzionarioak).

³ Afiliatuen kopurua ez dator bat, nahitaez, langileen kopuruarekin. Lan-harremanak edo afiliatuta egoteko betebeharrak sortzen duten egoerak dira; hau da, pertsona bera zenbat aldiz kontabilizatzen den estatistiketan afiliazio-egoera gisa, dela lan-harreman bat baino gehiago dituelako erregimen berean, dela harreman bat baino gehiagotan dituelako. Etxeko Langileentzako Sistema Bereziko langileen kasuan eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziko langileen kasuan, altan dauden eta lan-harremanak ez dituzten pertsonak kontabilizatzen dira.

1.3. TAULA
LANEKO ALTAN DAUDEN AFILIATUAK EAE-N, EREGIMENAREN ARABERA
(HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOAK)

Erregiimena	2024ko abe.	2025eko abe.	Aldakuntza 2025/2024
Langile Autonomoen Erregimen Berezia	163.429	163.072	-0,2
Itsasoko Langileen Erregimen Berezia (Besteren kontura)	3.093	3.083	-0,3
Itsasoko Langileen Erregimen Berezia (Besteren kontura)	274	237	-13,5
NLSB (Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia)	3.520	3.367	-4,3
Erregimen Orokorra (Etxeko Langileen Sistema Berezia)	27.091	26.996	-0,4
Erregimen Orokorra (Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia)	1.890	1.745	-7,7
Erregimen Orokorra	825.214	838.304	1,6
SISTEMA, GUZTIRA	1.024.511	1.036.804	1,2

Iturria: Gizarte Segurantza.

1.4. TAULA
EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, KONTRATU ETA LANALDI MOTAREN
ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOAK)

	Mugagabea - Lanaldi osoa	Mugagabea - Lanaldi partziala	Aldizkako finkoak	Aldi baterakoa - Lanaldi osoa	Aldi baterakoa - Lanaldi partziala	Beste batzuk (*)	GUZTIRA
2024ko abe.	465.890	106.350	28.145	94.892	43.191	86.747	825.214
2025eko abe.	472.511	109.284	27.441	92.044	43.498	93.525	838.304
Aldeak							
2025-2024	6.621	2.934	-704	-2.848	307	6.778	13.090
Aldakuntza % 2025/2024	1,4	2,8	-2,5	-3,0	0,7	7,8	1,6

Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne, eta kanpoan uzten dira nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta laneoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek.

Iturria: Gizarte Segurantza.

“Beste batzuk” ataleko afiliatuak (gehienak funtzionarioak)⁴ alde batera uzten baditugu, eta lan-kontratua duten afiliatuak bi talde handitan banatzen baditugu (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), honakoa ondorioztatu dezakegu: 2025eko abenduan, afiliatuen %78,1ek kontratu mugagabea zuten; ehunekotan, 2024an (%77,6) baino puntu erdi gehiago, eta 2019an (%66,8) baino 11 puntu pasatxo gehiago.

Aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen parte-hartzea oso txikia da, eta haien pisua pixka bat jaitsi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta; izan ere, 2024an lan-kontratua zuten afiliatu guztien %3,8 izatetik (“Beste batzuk” alde batera utzita) orain %3,7 izatera pasatu dira.

⁴ “Beste batzuk” atalak barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta laneoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

1.4. GRAFIKOA
EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTA DAUDEN ETA LAN KONTRATUA DUTEN PERTSONEN*
BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA (HILABETEKO BATEZ BESTEKOA)



(*) Ez ditu barne hartzen kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne, kanpoan utzita nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak. Iturria: Gizarte Segurantza.

2022an indarrean sartu zen abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua, lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzkoa. Haren bidez, arau berriak ezarri ziren aldi baterako kontrataziorako, eta mugatu egin zuten. Ondorioz, 2022 eta 2023 urteetan zehar nabarmen murriztu zen aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi zen kontratu finkoen kopurua, batez ere, aldizkako kontratu finkoena.

2022aren aurreko urteetan, EAEn sinatzen ziren kontratu berrien %90 aldi baterakoak ziren (2019an, %91,7); 2024an, berriz, %76,4ra jaitsi zen ehuneko hori.

2025ean, sinatutako kontratu mugagabeak (176.637) kontratu guztien %23,3 izan ziren (758.341), ehunekotan adierazita aurreko ekitaldia baino bi hamarren gehiago zena; gainerakoak, %76,7 (581.704), aldi baterako kontratuak izan ziren.

1.5. TAULA
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU MUGAGABEAK ETA ALDI BATERAKOAK

	2024	2025	2025EKO BANAKETA	ALDAKUNTZA TASA 25/24
GUZTIRA	749.692	758.341	100,0%	1,2%
Mugagabeak	173.518	176.637	23,3%	1,8%
Aldi baterakoak	576.174	581.704	76,7%	1,0%


Iturria: SEPE.

Negoiazio kolektiboaren bilakaerari dagokionez, 2025a amaitzean, langileen %63,8k hitzarmenak eguneratuta zituzten (erabateko indarraldian) eta %31,7k hitzarmenak luzatuta zeuzkaten. Hitzarmenak eguneratuta dituzten pertsonen ehunekoa aurreko ekitaldikoa (%67,7) baino txikiagoa bada ere, 2025. urtea ixtean egoera azken urteetako onenetakoa dela adierazi behar da, langile askok

baitauzkate hitzarmenak indarrean, eta hitzarmenak iraungita dituzten soldatapekoak %4,5era jaitsi baitira.

1.5. GRAFIKOA

EAE-KO LANGILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN INDARRALDIAEREN ARABERA (URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31KO DATUAK)



2025ean 257 hitzarmen erregistratu ziren, eta, horren ondorioz, 128.650 langilek lan-baldintzak berritu zituzten. EAeren eremuan 185 hitzarmen erregistratu ziren, sektoreko 10 eta enpresako 175, eta, guztira, 73.778 langileri eman zieten estaldura. EAEn eragina duten estatu-mailako 72 hitzarmen erregistratu ziren (sektoreko 22 eta enpresako 50), eta, guztira, 54.872 langileri eragin zieten.

2025. urtearen amaieran, ohiko indarraldia zuten hitzarmenak, hau da, negoziatzaileek adostutako aplikazio-aldi arruntaren barruan zeudenak, 783 ziren, eta, guztira, 415.575 langileri eragiten zieten.

1.6. TAULA**EAE-N 2025ERAKO OHIKO INDARRALDIA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN KOPURUA ETA HORIEN ERAGINPEKO LANGILEAK (2025/12/31)**

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK
EAEn, guztira	661	97.430	122	318.145	783	415.575
EAEn erregistratuak	521	69.620	47	219.234	568	288.854
Araba	117	17.736	9	20.121	126	37.857
Bizkaia	228	28.641	15	106.344	243	134.985
Gipuzkoa	166	18.759	21	88.435	187	107.194
Lurralde artekoak	10	4.484	2	4.334	12	8.818
Estatu-mailakoak	140	27.810	75	98.911	215	126.721

Lurralde-eremuen arabera aztertuta (EAE/Estatua), ikus daiteke, ekitaldiaren amaieran, Estatuaren kasuan hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen kopurua (%67,2) EAEkoa (%62,4) baino handiagoa zela, baina adierazi behar da 2025ean aldeak murriztu egin direla; izan ere, 2024an, EAEn negoziatutako hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoa %64,9koa zen, eta EAEn eragina zuten estatuko hitzarmenen eraginpekoak, berriz, %74,4 ziren.


Funtzio-eremuen arabera aztertuta (enpresa/sektorea), ikus daiteke, 2025aren amaieran, enpresa-hitzarmenen eraginpeko langileen %58,5ek eta sektoreko hitzarmenen eraginpeko langileen %65,6k zituztela eguneratuta euren hitzarmenak; horrek esan nahi du aurreko urtearen aldean 4,1 puntuko beherakada izan dela enpresa-hitzarmenen kasuan, eta 3,7 puntukoa sektorekoen kasuan. Era berean, adierazi behar da oraindik ere sektore-eremuan biltzen direla hitzarmenak iraungita dituzten ia langile guztiak.

EAEn 2025ean indarrean zeuden hitzarmenen negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena 364 egunekoa izan zen, eta alde nabarmena dago sektorekoen (548 egun) eta enpresakoen (330 egun) artean.

Negoizazio-prozesu luzeenak EAEn negoziatutako sektoreko hitzarmenetan gertatzen dira, izan ere, horien batezbesteko iraupena, 2025ean, bi urtetik gorakoa izan zen (778 egun).

Hitzarmenen iraupen-eremuari dagokionez, soldatapeko ia guztiek (%96,6) hiru urterako edo gehiagorako negoziatzen dituzte akordioak.

1.6. GRAFIKOA
EAE-N SINATUTA ETA INDARREAN DAUDEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOZIAZIO PROZESUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA URTE BAKOITZEAN



EAEn 2025an indarrean zeuden hitzarmenetan (EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak barne) adostutako batez besteko soldata-igoera %3,32koa izan zen, hitzartutako batez besteko soldata-igoera baino 0,21 puntu txikiagoa.

1.7. TAULA
2024RAKO ETA 2025ERAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK*


	SOLDATA IGOERA (aurreko urtearekiko %)	
	2024	2025
EAEn, guztira	3,35	3,32
EAEn erregistratuak	3,51	3,21
Araba	3,45	2,53
Bizkaia	3,21	3,09
Gipuzkoa	4,01	3,68
Lurralde artekoak	2,31	2,01
Estatu-mailakoak**	2,98	3,57

*Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.
**EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako soldata-igoerak.

Igoerarik handiena, aurreko urtean bezala, Gipuzkoako lurralde historikoan negoziatutako hitzarmenetan izan zen, 2025erako batez besteko igoera %3,68koa izan baitzen; ondoren, EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak ditugu, %3,57ko igoerarekin; aldiz, hazkunde txikienak lurralde arteko eremuan negoziatutakoetan (%2,01) eta Araban (%2,53) izan dira.


1.7. GRAFIKOA

EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA



1.8. GRAFIKOA

EAE. KPI-AREN URTE ARTEKO IGOERAK ABENDUAN ETA KPI-AREN BATEZ BESTEKO IGOERA URTE BAKOITZEAN



Funtzio-eremuen arabera, adierazi behar da soldata-igoerak zertxobait handiagoak izan zirela sektoreko hitzarmenetan (%3,37) enpresakoetan baino (%3,16).

Hitzarmenetan adostutako igoerei dagokienez, esan behar da duela urte batzuetatik hona gero eta gehiago direla enpresa-helburuak betetzearen baldintzapeko berrikuspen-klausulak, eta guk ez daukagu jakiterik horien ondorioak zein izango diren, soldata-bermearen klausula konbentzionalen murrizketarekin batera, KPIaren bilakaerari soilik erreferentzia eginez.

EAEn negoziatutako hitzarmenetan 2025erako adostutako batez besteko lanaldia 1.693 ordukoa izan zen, eta estatu-mailan erregistratu eta gure Erkidegoan eragina duten hitzarmenena, berriz, 1.718 ordukoa.

Gatazken bilakaerari dagokionez, esan behar da 2025ean 208 lan-greba izan zirela guztira EAEn, eta 35.735 langilek hartu zutela parte horietan, eta 163.857 izan zirela lan egin gabeko lanaldiak.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zifra horiek adierazten dute greba-kopurua %20 jaitsi dela, partaideen kopurua %21,3 igo dela eta lan egin gabeko lanaldiak %57,4 igo direla.

1.8. TAULA LANEKO GREBAK (EAE)

	GREBAK	PARTAIDE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIK	GREBA BAKOITZEKO PARTAIDEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO
2016	164	13.735	58.157	84	355	33,9
2017	214	59.505	96.423	278	451	13,0
2018	264	48.696	110.838	184	420	18,2
2019	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3
2020	190	25.642	59.741	135	314	18,6
2021	248	14.848	140.775	60	568	75,8
2022	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7
2023	325	58.307	169.836	179	523	23,3
2024	260	29.451	104.083	113	400	28,3
2025	208	35.735	163.857	172	788	36,7


Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

2025ean greba-deialdietan parte hartu zuten langile gehienek administrazioan lan egiten zuten. Zehazki, parte-hartzaile guztien %75,7k sektore publikoan egiten zuten lan, eta sektore horretan lan egin gabeko lanaldiak guztizkoaren %74,7 izan ziren. Sektore-mailako gatazken artean, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoa nabarmendu behar da, 2025ean 112.020 lanaldi galtzea eragin baitzuen.

Negoiazio kolektiboko prozesuetako gatazken ondoriozko sektore-mailako greben deialdiak egoteak edo ez egoteak eragin erabakigarria du, bai lan egin gabeko lanaldien kopuruan, bai greba horiek industrian edo zerbitzuen sektorean kontzentratzean, eta horrek sektore-mailako gatazka batzuetan dauden urte arteko aldakuntzak azal ditzake.

1.9. GRAFIKOA

EAE-N BAIMENADUTAKO EDO JAKINARAZITAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO LANGILE KOPURUAREN BILAKAERA. 1994-2025.



Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Enplegu Erregulazioko Espedienteen bilakaerari dagokionez, 2025ean enplegua erregulatzeko 298 espediente aurkeztu ziren EAEn, eta horien eraginpean 6.679 langile zeuden. Zifra horien arabera, espedienteen kopuruak %15,5 egin du gora urte batetik bestera, eta eraginpeko langileen kopuruak %29,7 egin du behera.

Arrazoi ekonomikoengatik, arrazoi teknikoengatik, antolakuntza-arrazoiengatik edo ekoizpen-arrazoiengatik (gaztelaniaz ETOP direlakoak) aurkeztutako espedienteek 6.123 langileri eragin zieten, guztizkoaren %91,7ri, eta gainerako %8,3ari (556 langile) ezinbesteko arrazoiengatik espedienteek eragin zien. Aurreko urtearen aldean, ETOP espedienteek eragindakoen kopuruak %33,9 egin du behera, eta ezinbesteko arrazoiengatik espedienteek eragindakoen kopuruak, berriz, %125,1 egin du gora.

1.9. TAULA

ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N, ARRAZOIAREN ARABERA. 2024 ETA 2025 URTEAK

2024 URTEA	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
Arrazoi Ekonomikoak, Teknikoak, Antolaketa-arrazoiak edo Ekoizpen-arrazoiak (ETOP)	237	9.261	488	7.848	925
Ezinbesteko arrazoiak	21	247	1	244	2
Guztira	258	9.508	489	8.092	927
2025 URTEA	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
Arrazoi Ekonomikoak, Teknikoak, Antolaketa-arrazoiak edo Ekoizpen-arrazoiak (ETOP)	262	6.123	1.015	3.936	1.172
Ezinbesteko arrazoiak	36	556	15	515	26
Guztira	298	6.679	1.030	4.451	1.198

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

Langile gehienak (%82,1 2025ean) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean egon ziren arren (ABEEEak), iraungitze-prozeduren eraginpeko enpleguak gehiago izan ziren aurreko urtean baino; 2024an eraginpeko 927 langile izan ziren, eta 2025ean, aldiz, 1.198 (%29,2ko igoera).

Lan-istripuen bilakaerari dagokionez (lanaldian eta "in itinere"), adierazi behar da 2025ean %6,5 gutxiago izan zirela aurreko urtean baino, eta guztira 36.011 langile izan zirela kaltetutakoak.

Larritasunaren arabera, 2024ari dagokionez, lan-istripu larriek (lanaldian eta "in itinere") behera egin zuten (-%9), baita arinek ere (-%6,5); aitzitik, istripu hilgarriak 2024an 27 izatetik 2025ean 30 izatera igaro ziren (+%11,1).

1.10. TAULA

LANEKO EZBEHARRAK (LANALDIAN ETA "IN ITINERE") EAE-N, LARRITASUNAREN ARABERA

	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Guztira
2021	34.606	210	35	34.851
2022	36.291	252	30	36.573
2023	35.924	174	30	36.128
2024	38.272	201	27	38.500
2025	35.798	183	30	36.011

Iturria: Osalan.

Lanaldian izandako lan-istripuen sexuaren arabera banaketak honako emaitza hauek eman ditu:

-Istripuen %26,2 emakumeek izan zituzten, eta %73,8 gizonek.

-2025ean zenbatutako 156 istripu larrien %12,8 (20 istripu) emakumeek jasan zituzten, eta %87,2 (136 istripu) gizonek.

-Lanaldian izandako lan-istripuen ondoriozko heriotzei dagokienez, 23 gizon eta emakume bat hil ziren.

Ondorio gisa, azpimarratu behar da 2025. urtea afiliazio-errekorrarekin (1.036.804 pertsona) eta %6,4ko langabezia-tasarekin amaitu zela; izan ere, 2008ko ekitaldira arte atzera egin behar dugu tasa txikiagoa aurkitzeko.

2025aren amaieran hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa (% 63,8) aurreko ekitaldikoa (%67,7) baino txikiagoa izan bazen ere, egoera hori azken urteetako onenetakoa da, langile askok baitauzkate hitzarmenak indarrean. EAEn indarrean dauden hitzarmenetan 2025erako adostutako batez besteko soldata-igoera, EAEn eragina duten estatu-mailakoak barne, %3,32koa izan zen.

2025ean, Enplegu Erregulazioko Espedienteen eraginpeko langileen kopuruak behera egin zuen, nahiz eta iraungitze-prozedurek eragindako enpleguek gora egin zuten.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak 2025eko abenduan egindako aurreikuspenen arabera, euskal ekonomia %1,9 haziko da 2026rako, baina litekeena da azkenean hazkundera txikiagoa izatea, aurreikuspen horiek Iranen gerra hasi aurrekoak baitira.

2

**EAE-KO
EGOERA
EKONOMIKOA**

2.1 INGURUNE EKONOMIKOA

2025ean %3,3 hazi zen munduko ekonomia, hau da, aurreko ekitaldiko erregistroa berdin du zuen

Nazioarteko Diru Funttsaren kalkuluen arabera⁵, 2025ean %3,3 hazi zen munduko ekonomia; beraz, aurreko urteko hazkunde-tasa berdindu zuen.

Ziurgabetasuna eta oraindik ere bere horretan dirauten arrisku geopolitiko eta komertzial handiak nagusi diren egoera batean, ekonomia aurreratuen hazkundera %1,7ra mugatu zen, eta hazten eta garatzen ari diren ekonomiek, berriz, portaera dinamikoagoa izan zuten, 2025erako %4,4ko hazkundera zenbatetsita.

NDFren aurreikuspenen arabera, munduko ekonomia hurrenez hurren %3,3 eta %3,2 haziko da 2026an eta 2027an. Eta ekonomia aurreratuen BPGa %1,8 2026an eta %1,7 haziko da 2027an; aldi berean, hazten eta garatzen ari diren herrialdeek %4tik gorako hazkundera eutsiko diete (%4,2 eta %4,1 hurrenez hurren, 2026an eta 2027an).

Barne Produktu Gordina (BPG): ekonomia baten tamaina osoa baloratzeko erabiltzen den neurria. Honela kalkulatzen da: askotariko sektore instituzionalen edo jarduera adarren balio erantsi gordinen batura, gehi zergak, ken produktuen gaineko dirulaguntzak.
Iturria: Eustat.

Nolanahi ere, aurreikuspen horiek kontu handiz hartu behar dira, izan ere, merkataritza-tentsioen eta tentsio geopolitikoen balizko larriagotzeak, besteak beste, zuzenean eragiten diete, tentsiook finantza-merkatuetan, hornidura-kateetan eta/edo lehengaien prezioetan eragina baitute.

Gainera, erreferentziako agertokian, ekonomian eragina izan dezaketen beste zalantza batzuen artean, adimen artifizialeko inbertsioari lotutako aurreikuspenak bat-batean txikiagotzeko arriskua ere jasotzen da.

Espainiako ekonomia %2,8 hazi zen 2025ean, EBko ekonomia nagusiena baino tasa altuagoa dena

Europar, eta, zehazkiago, Eurogunean, hazkundera %1,4koa izan zen 2025ean, eta Alemanian BPGa %0,2 baino ez zen handitu bi urtez atzeraldian egon ondoren (-%0,9 eta -%0,5 hurrenez hurren 2023an eta 2024an). Arazo estrukturalak, alde batetik, eta energiaren prezioen igoeraren ondorioek, bestetik, eragina izan zuten, Errusiak Ukraina inbaditu izanak lehiakortasunari kalte egin baitzion.

Europako ekonomia handien artean, Espainia izan zen dinamikoena, 2025ean %2,8ko hazkundera izan baitzuen; hala ere, aurrerapen-erritmoa aurreko ekitaldian izandakoa baino nabarmen txikiagoa izan zen (%3,5koa 2024an), eta urte arteko hazkundera moteldu egin zen 2025ean aurrera egin ahala (%3,0koa

⁵ World Economic Outlook. 2026ko urtarrila.

lehen hiruhilekoan, %2,8koa bigarrenean, %2,7koa hirugarrenean eta laugarrenean).

Sektoreka, lau sektore handiak hazi egin ziren: eraikuntza %5,6, zerbitzuak %3,2, industria %2,3 eta lehen sektorea %1,2.

2.1. TAULA

BPG-AREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAREN BILAKAERA ETA AURREIKUSPENAK

	Urtekoa			Aurreikuspenak	
	2023	2024	2025	2026	2027
MUNDUKO BPG	3,5	3,3	3,3	3,3	3,2
Ekonomia aurreratuak	1,7	1,8	1,7	1,8	1,7
Eurogunea	0,4	0,9	1,4	1,3	1,4
Alemania	-0,9	-0,5	0,2	1,1	1,5
Espainia*	2,5	3,5	2,8	2,3	1,9
Frantzia	1,6	1,1	0,8	1,0	1,2
Italia	0,7	0,7	0,5	0,7	0,7
Erresuma Batua	0,4	1,1	1,4	1,3	1,5
Estatu Batuak	2,9	2,8	2,1	2,4	2,0
Japonia	1,2	-0,2	1,1	0,7	0,6
Ekonomia sortu berriak eta garapen bidean daudenak	4,7	4,3	4,4	4,2	4,1
Brasil	3,2	3,4	2,5	1,6	2,3
Txina	5,4	5,0	5,0	4,5	4,0
India	9,2	6,5	7,3	6,4	6,4

* Espainiari buruzko 2023, 2024 eta 2025eko informazioa bat dator INEk 2026ko martxoaren 30ean argitaratutako datuekin.

Iturria: NDF, WEO txostena 2026ko urtarrilean eguneratua.

Espainiako ekonomiaren 2025eko hedapena barne-eskariak (kontsumoa eta inbertsioa) hazkunderari egindako ekarpen positiboak eragin zuen, kanpo-eskariak (kanpo-sektorea) ehuneko zazpi hamarren kendu baitzizkion hazkunde globalari.

Zehazki, barne-eskariak ehuneko 3,6 puntuko ekarpena egin zion Estatuko BPGren hazkunde globalari 2025ean (2024an 3,3). Kanpo-eskariaren ekarpena, berriz, zazpi hamarren negatibokoa izan zen (bi hamarren positibo aurreko ekitaldian).

Etxeetako azken kontsumoko gastua %3,3 hazi zen 2025ean, eta Administrazio Publikoena %2,4. Aldi berean, kapitalaren eraketa gordina %5,8 hazi zen.

2.2 EAE-KO EKONOMIA

EAEko %2,3 hazi zen 2025ean, eta enplegua (lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta), %1,4

2025ean, EAEko ekonomia %2,3 hazi zen, aurreko ekitaldian izandako %2,5eko aurrerapenaren ondoren. Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta⁶, %1,4 igo zen (%1,5 2024an).

2.2. TAULA
EAE-KO BPG-A ETA ENPLEGUA, HIRUHILEKOAREN ARABERA

		BPG (Kateatutako bolumenaren indizea)	Lanaldi osoko lanpostu baliokideak
Urteko batezbestekoa	2019	98,6	960.248
	2020	89,2	899.540
	2021	94,7	926.449
	2022	100,0	953.067
	2023	103,0	970.243
	2024	105,7	985.003
	2025	108,0	998.931
4. hiruhilekoa	2019	99,3	963.911
	2020	92,1	921.480
	2021	97,1	939.398
	2022	101,2	959.550
	2023	104,2	976.117
	2024	106,4	990.806
	2025	108,9	1.004.214


Iturria: Eustat. 2026ko martxoa.

Estatuan bezala, EAEn ere barne-eskarian oinarritu zen 2025eko hazkundera; izan ere, barne-eskariak ehuneko 2,8 puntu positiboko ekarpena egin zion hazkunde globalari. Kanpo-sektoreak, berriz, bost hamarren kendu zizkion hazkundeari.

⁶ Lanaldi osoko lanpostu baliokideak (gaztelaniaz ETC, "equivalentes a tiempo completo") honela lortzen dira: lan egindako orduen guztizkoa zati lanaldi osoko lanpostuetan lan egindako orduen urteko batez bestekoa. Horri esker, jarduera bat egiteko lanaldi osoan diharduten zenbat langile behar diren jakin dezakegu. Adibide gisa, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientean (ABEEE) dauden pertsonen gorakada batek lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua murriztuko luke, baina ez luke eraginik izango biztanleria okupatuan. Gauza bera gertatuko litzateke lehen lanaldi osoan lan egiten zuten lanaldi partzialeko langileen kopurua handitzearekin.

2.1. GRAFIKOA

EAE-KO BPG-AREN ETA ENPLEGUAREN* URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA, HIRUHILEKOAREN ARABERA



*Lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta.
Iturria: Eustat. 2026ko martxoa.

2025ean, barne-ekariak ehuneko 2,8 puntuko ekarpena egin zion EAEko hazkunderi, eta kanpo-sektoreak, berriz, bost hamarren kendu zizkion

Estatuan bezala, EAEn ere barne-ekarian oinarritu zen 2025eko hazkundera; izan ere, barne-ekariak ehuneko 2,8 puntu positiboko ekarpena egin zion hazkundera globalari. Kanpo-sektoreak, berriz, bost hamarren kendu zizkion hazkunderari.

Barne-ekariaren eremuan, etxeetako kontsumoa %2,7 hazi zen urte batetik bestera, kontsumo publikoa %1,7 eta kapital-eraketa gordina %4.

2.3. TAULA

EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA (EKARPENAK)

	Urte arteko aldakuntza-tasa	
	2024 (a)	2025(e)
Barne-ekariak BPGaren aldakuntzari egindako ekarpena (1)	2,8	2,8
Kanpo-saldoak BPGaren aldakuntzari egindako ekarpena (1)	-0,3	-0,5
BPG	2,5	2,3

(a) Aurrerapena. (e) Estimazioa.
(1) BPGaren aldakuntzari egindako ekarpenaren/kenketaren puntuak ehunekotan.
Iturria: Eustat. 2026ko martxoa.

Eraikuntzak, zerbitzuek eta industriak gora egin zuten (%3,7, %2,8 eta %0,4, hurrenez hurren), baina, azken horren kasuan, eraikuntza eta hirugarren sektorea baino askoz erritmo motelagoan

Sektore-mailan, 2025ean eraikuntza, zerbitzuak eta industria hazi egin ziren (%3,7, %2,8 eta %0,4 hurrenez hurren), baina, azken horren kasuan, eraikuntzaren eta hirugarren sektorea baino askoz erritmo motelagoan. Bestalde, lehen sektorea -%0,6 murriztu zen 2025ean.

2.4. TAULA


EAE-KO ALDAGAI MAKROEKONOMIKOAK (Urte arteko aldakuntza-tasa)

	2019	2020	2021	2022	2023	2024 ^(a)	2025 ^(e)
ESKARIA							
Azken kontsumoaren gastua	2,1	-9,0	5,2	6,7	1,9	2,8	2,5
- Familien eta horien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeek azken kontsumoa	1,8	-12,2	5,8	7,8	2,0	2,5	2,7
- Administrazio Publikoen azken kontsumoa	3,1	2,9	3,2	3,1	1,9	3,5	1,7
Kapital Eraketa Gordina	3,2	-12,2	5,4	8,7	2,4	2,7	4,0
Barne-eskaria	2,4	-9,7	5,2	7,2	2,1	2,8	2,8
Esportazioak, guztira	-0,1	-15,6	10,5	13,7	-1,1	0,1	0,4
Inportazioak, guztira	0,0	-16,0	9,1	15,9	-2,2	0,4	1,2
BPG	2,3	-9,5	6,1	5,7	3,0	2,5	2,3
ESKAINTZA							
Lehen sektorea	6,0	-16,9	15,0	2,2	12,2	4,3	-0,6
Industria	1,5	-12,0	4,8	3,9	2,2	2,0	0,4
- Manufaktura-industria	1,2	-12,9	9,0	4,5	1,8	1,7	0,3
Eraikuntza	2,4	-14,4	1,0	5,8	4,2	2,0	3,7
Zerbitzuak	2,6	-7,7	6,6	6,7	3,3	2,9	2,8
- Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	2,2	-19,6	15,3	12,6	3,8	2,0	3,3
- Administrazio Publikoak, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak.	3,2	1,1	2,3	3,0	1,2	2,9	2,1
- Gainerako zerbitzuak	2,5	-4,5	4,3	5,0	4,3	3,5	2,9
Oinarritzko prezioei erantsitako balioa	2,3	-9,2	5,9	5,9	3,2	2,6	2,3
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,0	-11,9	7,8	3,4	1,7	1,6	2,2
BPG	2,3	-9,5	6,1	5,7	3,0	2,5	2,3
Pertsona okupatuak (lanaldi osoko lanpostu baliokideak)	1,5	-6,3	3,0	2,8	1,9	1,5	1,4
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	0,8	-3,3	3,0	2,8	1,1	1,0	0,8

(a) Aurrerapena. (e) Estimazioa.
Iturria: Eustat. 2026ko martxoa.

2.2. GRAFIKOA

AGERIKO PRODUKTIBITATEAREN* BILAKAERA EAE-N (2008 URTEA=100)




* BPG (kateatutako bolumenaren indizea) / Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: LHKk egina, Eustaten datuetan oinarrituta (Kontu Ekonomikoak. 2026ko martxoa).

Ageriko produktibitatea: BPGa zati lanaldi osoko lanpostu baliokideetako enplegua.

2.3. GRAFIKOA

AGERIKO PRODUKTIBITATEAREN* HAZKUNDEEN BILAKAERA EAE-N (AURREKO URTEAREKIKO HAZKUNDEAK)



* BPG (kateatutako bolumenaren indizea) / Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: LHKk egina, Eustaten datuetan oinarrituta (Kontu Ekonomikoak. 2026ko martxoa).

EAEko ekonomiaren ageriko produktibitatea %0,8 hazi zen 2025ean

BPGren igoera enpleguarena baino handiagoa izan zenez, EAEko ekonomiaren ageriko produktibitatea %0,8 hazi zen.

2.5. TAULA
BARNE PRODUKTU GORDINAREN BILAKAERA (ERRENTA, EAE)

	PREZIO ARRUNTAK MILIOI EUROTAN (2022ko Oinarria)		BANAKETA EHUNEKOTAN	
	2023	2024 ^(a)	2023	2024 ^(a)
Soldatapekoen ordainsaria (1)	43.988	46.186	47,18	46,99
Ustiapenaren soberakin gordina (2)=(3)+(4)	40.222	42.847	43,14	43,59
Ustiapenaren soberakin garbia (3)	28.185	30.129	30,23	30,65
Kapital finkoaren kontsumoa (4)	12.037	12.718	12,91	12,94
Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak (5)	9.033	9.257	9,69	9,42
Merkatuko prezioen BPG (1)+(2)+(5)	93.243	98.290	100,00	100,00

(a): Aurrerapena.
Iturria: Eustat. 2026ko martxoa.

BPGa aztertzean errentaren banaketa aintzat hartzen badugu⁷, 2024an EAEko BPGaren %46,99 soldatapekoei ordaintzeko erabili zen, %43,59 ustiapeneko soberakin gordin gisa banatu zen, eta produkzioaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak gainerako %9,42a izan ziren. Horri dagokionez, komeni da zehaztea txosten hau egin den egunean ez dagoela 2025ari buruzko daturik.

2025eko abenduan, EAEko urte arteko KPIa %2,9 hazi zen, eta azpiko inflazioa, aldiz, %2,4

Prezioen bilakaerari lotuta, 2025ean EAE batez beste %3 hazi zen KPIa, hau da, 2024an (%3,1) lortutakoa baino hamarren bat gutxiago.

Bestalde, 2025eko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko KPIaren urte arteko igoera %2,9koa izan zen (%3,6koa 2024ko abenduan).

Azpiko inflazioak alde batera uzten ditu osagai aldakorrenak, esaterako energia (erregaia, elektrizitatea) eta elikagai ez-landuak, eta hori %2,4hazi zen EAEn 2025eko abenduan, urte arteko terminoetan.

⁷ Honi lotuta, aipatu beharrekoa da EAEko BPGaren banaketari dagozkion datuak (errenten aldetik) urtebeteko atzerapenarekin jartzen dituztela eskuragarri, kapitulu honetan emandako gainerako informazioarekin alderatuta.

2.6. TAULA
KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA (KPI, 2025)

	EAE	ESTATUA
Indize orokorra (urteko batezbestekoa)*	3,0	2,7
Indize orokorra**	2,9	2,9
Azpikoa**	2,4	2,6

* 2025eko batez besteko balioaren aldakuntza-tasa, 2024ko batez besteko balioarekiko.

** Urte arteko aldakuntza-tasak, abendutik abendura.

Iturria: LHKk egina, EINen datuetan oinarrituta.

Azpiko inflazioa: prezioen indize orokorraren aldakuntza, prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kontuan hartu gabe, horien prezioek gorabehera handiagoak izaten dituztelako.

Etorkizunera begira, ziurgabetasun handiko eta hazkunde ekonomiko txikiagoko egoera bat aurreikusi liteke, izan ere, egun egoerak ziurgabea izaten jarraitzen du, tentsio geopolitikoa eta komertziala gero eta hedatuago daude, eta gatazka berriak sortzen ari dira

Azkenik, adierazi behar da Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Ekonomia Zuzendaritzak, 2025eko abenduko aurreikuspenetan, euskal ekonomiaren %1,9ko hazkunde aurreikusten duela 2026rako, baina litekeena da, azkenean, EAEko nahiz gure inguruko ekonomietako hazkunde txikiagoa izatea, aurreikuspen horiek Iranen gerra hasi aurrekoak baitira, eta, beraz, ez dute gatazka horren eraginik jasotzen.

ONDORIOAK

- Ziurgabetasuna eta arrisku geopolitiko eta komertzial handiak nagusi diren honetan, munduko ekonomia %3,3 hazi zen 2025ean. Ekonomia aurreratuen BPGa %1,7 hazi zen, eta hazten eta garatzen dauden ekonomiak, aldiz, %4,4.
- Espainiako ekonomiak %2,8ko hazkundea izan zuen 2025ean, Europako ekonomia nagusiena baino tasa handiagoa dena.
- EAEko BPGa %2,3 hazi zen, eta enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,4.
- EAEko hazkundea, 2025ean, barne-eskariaren hazkundean oinarritu zen, hazkunde orokorrari ehuneko 2,8 puntu positibo eman baitzizkion; kanpo-sektoreak, berriz, bost hamarren kendu zizkion hazkundeari.
- 2025eko abenduan, EAEko KPIa %2,9 hazi zen urte artean, Estatu osoan bezalaxe.

3

ENPLEGUA, KONTRATAZIOA ETA LAN-KOSTUAK

3.1. SARRERA

Gure Erkidegoko lan-merkatuaren egoera aztertuko dugu kapitulu honetan. Horretarako, eskura dauden estatistika eta erregistro administratibo nagusiak erabiliko ditugu.

Informazioa ikuspegi bikoitzetik eskaintzen da, laginaren ikuspegitik eta erregistroaren ikuspegitik. Izan ere, erabilitako iturriak osagarritzat hartzen ditugu, eta analisisa hobe izan dadin laguntzen dute.

EAEko biztanleria aktiboaren, landunaren eta langabetuaren azterketari begira, Eustatek argitaratzen duen Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkesta (BJA) erabiliko dugu. Eta, Estatuaren kasuan, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) erabiliko dugu, erregistratutako langabeziari, jakinarazitako kontratazioari eta Gizarte Segurantzako afiliazioari buruz argitaratutako datuekin batera.

Halaber, adierazi behar da, txosten hau egin den egunean, BJAREN 2025eko informazioa, kapitulu honetan erabili duguna eta 2026ko urtarrilaren 23an argitaratua, behin-behinekoa dela. Hortaz, aldaketa txiki batzuk izan ditzake Euskal Estatistika Erakundeak behin betiko datuak argitaratzen dituenean.

3.2. LAN MERKATUA ETA ENPLEGUA EAE-N

3.2.1. BIZTANLERIA AKTIBOA

Adineko biztanleriaren hazkundera eta biztanleria ez-aktiboaren hazkundera gure Erkidegoko biztanleriaren zahartze progresiboaren erakusle dira

Biztanleriaren Jardueraren Araberako inkesta (BJA) argitaratzen du Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat), eta inkesta horren arabera, 2025ean 16.800 pertsonako hazkundera izan zuen 15 urtetik gorako biztanleriak (+%0,9), aurreko urtearekin alderatuta.

Adin-taldeen arabera, 16-24 urteko biztanleria 7.000 pertsonatan hazi zen, 25-44 urteko biztanleria 3.100 pertsonatan jaitxi zen, eta 45 urtetik gorako biztanleria 13.000 pertsonatan hazi zen.

2025ean biztanleria-hazkunde horrek ez zuen biztanleria aktiboaren hazkunde handirik ekarri, nahiz eta 2.200 pertsonatan hazi zen; izan ere, biztanleriaren hazkunde horren zatirik handiena biztanleria ez-aktiboaren hazkundearekin bat etorri zen, %1,8 hazi baitzen (+14.600 pertsona).

Biztanleria aktiboa: Hamasei urte edo gehiago izanik, ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituzten (pertsona okupatuak) edo horretarako prest dauden eta ordaindutako enpleguaren bila ari diren pertsonak (pertsona langabetuak) osatzen dute biztanleria aktiboa. Iturria: Eustat.

Biztanleria ez-aktiboa: Honako egoeretako batean dagoen biztanleria:

- Pentsioa jasotzen.
- Irakaskuntza motaren bat jasotzen.
- Etxeko lanak egiten edo partekatzen.
- Oinarrizko jardueretarako laguntza beharrean (euren burua garbitu, jantzi, mugitu...).
- Boluntariotza sozialeko zereginak egiten.
- Beste biztanle ez-aktibo batzuk (eskolatu gabeko adingabeak, oposiziogileak, errentadunak, etab.).

Iturria: Eustat.

Biztanleria aktiboaren osaera sexuaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu gizonak -%0,3 gutxiago zirela; izan ere, 2024an 556.100 zeuden aktibo, eta 2025ean 554.400. Aitzitik, emakumeen biztanleria aktiboa %0,8 hazi zen: 2024an 516.100 izatetik 2025ean 520.000 izatera.

Adin nagusiko biztanleriaren hazkundera eta biztanleria ez-aktiboaren hazkundera gure Erkidegoko biztanleriaren zahartze progresiboaren erakusgarri dira, eta horrek erronka garrantzitsuak dakartza berekin.

3.1. TAULA

16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN ETA EZ-AKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N*, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2024-2025

		BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)		ALDAKUNTZA TASAK
		2024	2025**	25/24
≥ 16 urteko biztanleria		1.897,7	1.914,5	0,9
Sexuaren arabera	Gizonak	910,8	919,9	1,0
	Emakumeak	987,0	994,6	0,8
Adinaren arabera	16-24 urte	201,6	208,6	3,5
	25-44 urte	481,1	478,0	-0,6
	45 eta gehiago	1.215,0	1.228,0	1,1
Biztanleria ez-aktiboa		825,5	840,1	1,8
Sexuaren arabera	Gizonak	354,7	365,5	3,0
	Emakumeak	470,9	474,6	0,8
Adinaren arabera	16-24 urte	133,5	140,4	5,2
	25-44 urte	56,8	55,7	-1,9
	45 eta gehiago	635,2	644,0	1,4
Biztanleria aktiboa		1.072,2	1.074,4	0,2
Sexuaren arabera	Gizonak	556,1	554,4	-0,3
	Emakumeak	516,1	520,0	0,8
Adinaren arabera	16-24 urte	68,0	68,2	0,3
	25-44 urte	424,3	422,3	-0,5
	45 eta gehiago	579,9	583,9	0,7

* 2026ko urtarriaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Gauzak horrela, jarduera-tasak ehuneko lau hamarren egin zuen behera aurreko ekitaldiaren aldean, eta %56,1era iritsi zen 2025ean. Gizonen tasak behera egin zuen (% 61,1etik %60,3ra), eta emakumezkoenak ez zuen aldaketarik izan (%52,3 bi ekitaldietan).

2025ean jarduera-tasa %56,1era jaitsi zen; 2024an erregistratutakoaren aldean, lau hamarren azpitik

Jarduera-tasa: 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean aktiboak diren biztanleen proportzioa.
Iturria: Eustat.

Adin-tarteei erreparatuta, urte arteko jarduera-tasa erdiko tartean bakarrik hazi zen, 25-44 urteen bitartean hain zuzen: %88,2koa zen 2024an, eta %88,4koa 2025ean. Behera egin zuen, aldiz, gazteenen artean (%33,8tik %32,7ra) eta zaharrenen artean (%47,7tik %47,6ra).

Estatu mailan, aldiz, jarduera-tasa zertxobait igo zen: 2024ko %58,8tik 2025eko %59ra.

3.2. TAULA

JARDUERA TASAREN BILAKAERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN. 2024-2025

	EAE*		ESTATUA	
	2024	2025**	2024	2025
Jarduera-tasa	56,5	56,1	58,8	59,0
Sexuaren arabera Gizonak	61,1	60,3	63,9	63,8
Emakumeak	52,3	52,3	53,9	54,4
Adinaren arabera 16-24 urte	33,8	32,7	37,6	37,6
25-44 urte	88,2	88,4	87,7	88,1
45 eta gehiago	47,7	47,6	48,7	49,1

Jarduera-tasa: Biztanleria aktiboa/16 urte eta gehiagoko biztanleria.

* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat). BAI (EIN).

3.2.2. BIZTANLERIA OKUPATUA


2025ean 12.500 pertsonako hazkundera izan zuen biztanleria okupatua; milioia gainditu zuen, eta maximo historikoa lortu

BJAren arabera, 2025an 1.005.200 pertsonakoa zen EAEko biztanle okupatuen kopurua, zifra errekorra dena: aurreko urtean baino 12.500 gehiago ziren (+%1,3).

Biztanleria okupatua: Ordaindutako enplegua duten edo jarduera independenteren bat egiten duten pertsonak, eta, lanik egin ez arren, haien enpleguarekin lotura formala mantentzen dutenak. Nolabaiteko ordainsaria jasotzen bada edo 3 hilabete baino gutxiagoko epean lanera itzultzea aurreikusten bada, lotura formala dagoela esan daiteke.
Iturria: Eustat.

3.1. GRAFIKOA

BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N* (MILAKA PERTSONA). 2008-2025



* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.
** Behin-behineko datuak.
Iturria: BJA (Eustat).

3.3. TAULA

BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, SEXUAREN, ADINAREN ETA EGOERA PROFESIONALAREN ARABERA. 2024-2025

		BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)		ALDAKUNTZA TASA
		2024	2025**	25/24
Biztanleria okupatua		992,7	1.005,2	1,3
Sexuaren arabera	Gizonak	516,9	520,4	0,7
	Emakumeak	475,8	484,7	1,9
Adinaren arabera	16-24 urte	59,0	59,4	0,7
	25-44 urte	390,5	392,4	0,5
	45 eta gehiago	543,1	553,4	1,9
Egoera profesionalaren arabera	Soldatapeko pertsonak	818,3	837,1	2,3
	Soldatapekoak ez diren pertsonak	174,4	168,1	-3,6

* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.
** Behin-behineko datuak.
Iturria: BJA (Eustat).

Sexuari erreparatuta, biztanleria okupatuak 2025ean izandako urte arteko hazkundera handiagoa izan zen gizonen artean, emakumeen artean baino (+%1,9 eta +%0,7, hurrenez hurren).

Adin-tarteei erreparatuta, pertsona okupatuen kopuruak gora egin zuen adin-maila guztietan, eta hazkunde erlatibo handiena adin nagusikoek izan zuten (+%1,9), hori baita jende gehieneko taldea; ondoren datoz gazteenak (+%0,7) eta 25 eta 44 urte artekoak (+%0,5).

3.4. TAULA

SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, KONTRATU MOTAREN ARABERA. 2024-2025

	SOLDATAPEKO PERTSONA OKUPATUAK (MILAKA)		ALDAKUNTZA TASA
	2024	2025**	25/24
GUZTIRA	818,3	837,1	2,3
Kontratu mugagabea	652,8	674,0	3,2
Aldi baterako kontratua	159,0	154,0	-3,1
Kontraturik gabe eta beste batzuk	6,6	9,1	37,9

* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.
** Behin-behineko datuak.
Iturria: BJA (Eustat).

2025ean 18.800 pertsonako urte arteko hazkundera izan zuen soldatapeko langileen kopuruak; soldatapekoak ez zirenak, berriz, 6.300 gutxiago ziren

Egoera profesionalaren arabera aztertuta, 2025ean soldatapeko langileak 18.800 gehiago zirela ikus daiteke: urte arteko %2,3ko hazkundera. Aldiz, soldatarik gabekoak 6.300 gutxiago ziren (urte artean, -%3,6). Horrela, agerian geratzen da langile autonomoen presentzia gero eta txikiagoa dela.

3.5. TAULA

SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2024-2025

SEXUA	KONTRATU MOTA	2024		2025**	
		MILAKA	%	MILAKA	%
Gizonak	GUZTIRA	412,1	100,0	420,0	100,0
	Mugagabea	341,2	82,8	351,2	83,6
	Aldi baterakoa	68,8	16,7	66,1	15,7
	Kontraturik gabe eta beste batzuk	2,1	0,5	2,8	0,7
Emakumeak	GUZTIRA	406,2	100,0	417,1	100,0
	Mugagabea	311,5	76,7	322,8	77,4
	Aldi baterakoa	90,2	22,2	87,9	21,1
	Kontraturik gabe eta beste batzuk	4,4	1,1	6,4	1,5


* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.
** Behin-behineko datuak.
Iturria: BJA (Eustat).

2025ean, behin-behinekotasun tasak behera egin zuen berriz ere, %18,4ra iritsi arte; aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko puntu bat egin zuen behera, eta hamabi puntu baino gehiago 2019arekin alderatuta

Behin-behinekotasun-tasak behera egin zuen beste urtebetez 2025ean, soldatapekoen %18,4koa izateraino; ehuneko-puntu bat txikiagoa izan zen 2024an erregistratutakoa baino, eta ehuneko 12,4 puntu txikiagoa 2019an lortutakoa baino.

3.2. GRAFIKOA

EAE-KO SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN KONTRATU MOTAREN ARABERAKO BANAKETA PORTZENTUALAREN BILAKAERA*. 2008-2025



Enplegu-tasa: Pertsona okupatuen proportzioa 16 urte (beteta) eta gehiagoko biztanleria osoaren artean.
Iturria: Eustat.

Enplegu-tasari dagokionez, hau da, 16 urte eta gehiago dituzten biztanle gutzien gainean lana duten pertsonen proportzioari dagokionez, aurreko urtean baino bi hamarren handiagoa izan zen 2025ean, eta %52,5era iritsi zen. Era berean, estatu-mailan, enplegu-tasak ere gora egin zuen urte arteko terminoetan, intentsitate handiagoz bada ere (2024ko %52,1etik 2025eko %52,8ra), gure Erkidegoko erregistroa gainditzeraino.

3.6. TAULA

ENPLEGU TASAREN BILAKAERA EAE-N* ETA ESTATUAN. 2024-2025


	2024	2025
EAE	52,3	52,5**
Estatua	52,1	52,8

Enplegu-tasa: Biztanleria okupatua/16 urteko eta gehiagoko biztanleria.
* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.
** Behin-behineko datuak.
Iturria: BJA (Eustat) eta BAI (EIN).

Sexuari erreparatuta, gizonen enplegu-tasak behera egin zuen pixka bat (%56,6koa da 2025ean, eta %56,7koa zen 2024an), eta emakumeenak, berriz, gora (%48,7koa da 2025ean, eta %48,2koa zen 2024an). Horrenbestez, bien arteko aldea sei hamarren jaitsi zen aurreko ekitaldiaren aldean: ehunekotan, 7,9 puntuko aldea 2025ean, eta 8,5 puntuko 2024an.

3.3. GRAFIKOA

ENPLEGU TASAREN BILAKAERA EAE-N*, SEXUAREN ARABERA (%). 2008-2025



* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Azkenik, beste urte batez gogorarazi eta azpimarratu nahi dugu langileen zahartze progresiboak erronka garrantzitsuak dakarzkiola gizarte osoari; izan ere, aurreikuspenen arabera, etorkizunean, lan-merkatua uzten dutenen kopurua handiagoa izango da lan-merkatura sartzen direnena baino. Aldi berean, biztanleria ez-aktiboaren pisu erlatiboa hazi egingo da EAEn eta Estatu osoan.

3.2.3. BIZTANLERIA LANGABETUA

2025ean 10.300 biztanle langabetu gutxiago zeuden aurreko urtean baino

2025ean berriro jaitsi zen langabeen kopurua (aurreko urtean baino 10.300 pertsona gutxiago ziren, -%13), eta urte arteko jaitziera hori handiagoa izan zen 2023an eta 2024an ikusitakoa baino (7.500 eta 3.300 langabe gutxiago, hurrenez hurren).

Langabezia-egoeran zeuden pertsonen kopuruak behera egin zuen, bai gizonen kasuan (-%13,5), bai emakumeen kasuan (-%12,4). Adin-tarteen arabera, 2025ean biztanleria langabeak behera egin zuen urte arteko terminoetan, oro har: zaharrenen kasuan -%16,6, 25-44 urtekoen kasuan -%11,5 eta gazteenen kasuan -%2,2.

3.7. TAULA
BIZTANLERIA LANGABETUA EAE-N

		BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)*		ALDAKUNTZA TASA
		2024	2025**	25/24
Biztanleria langabetua		79,5	69,2	-13,0
Sexuaren arabera	Gizonak	39,3	34,0	-13,5
	Emakumeak	40,3	35,3	-12,4
Adinaren arabera	16-24 urte	9,0	8,8	-2,2
	25-44 urte	33,8	29,9	-11,5
	45 eta gehiago	36,7	30,6	-16,6

* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).


Langabezia-tasa %6,4an kokatu zen 2025ean

Langabezia-tasa %6,4ra jaitsi zen 2025ean; ehunekotan, 2024an erregistratutako maila baino puntu bat beherago. Eta 2008ko ekitaldira arte atzera egin beharko genuke langabezia-tasa txikiagoa aurkitzeko (%3,8).

Aurreko ekitaldiaren aldean, emakumezkoen eta gizonezkoen langabezia-tasak, ehunekotan adierazita, puntu bat egin zuen behera, eta honela geratu zen: %6,8 eta %6,1, hurrenez hurren. Beraz, bien arteko aldea ez da aldatu (ehunekotan, zazpi hamarren).

Emakumeen langabezia-tasak gizonena baino handiagoa izaten jarraitu zuen: %6,8 eta %6,1, hurrenez hurren

3.4. GRAFIKOA
LANGABEZIA TASARE BILAKAERA EAE-N, SEXUAREH ARABERA* (%)



* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak. Iturria: BJA (Eustat).

Gazteenen langabezia-tasa %12,9koa izan zen

Gazteenek langabezia-tasarik altuena izaten jarraitu zuten (%12,9); hurrengoak, 25-44 urtekoak (%7,1) eta, azkenik, zaharrenak (%5,2). Urte arteko datuei dagokionez, tasa hori oro har jaitsi egin zen adin-talde guztietan.

Estatuan, 2025ean, langabezia-tasa %10,5ekoa izan zen, EAEn erregistratutakoa baino ehuneko lau puntu handiagoa, eta bereziki nabarmentzekoa da gazteenen artean dagoen aldea: %12,9ko tasa EAEn, eta %24,9koa Estatu osoan.

3.8. TAULA

LANGABEZIA TASA EAE-N* ETA ESTATUAN

		EAE		ESTATUA	
		2024	2025**	2024	2025
Urteko batezbestekoa		7,4	6,4	11,3	10,5
Sexuaren arabera	Gizonak	7,1	6,1	10,2	9,3
	Emakumeak	7,8	6,8	12,7	11,9
Adinaren arabera	16-24 urte	13,2	12,9	26,5	24,9
	25-44 urte	8,0	7,1	10,8	10,1
	45 eta gehiago	6,3	5,2	9,5	8,8

* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat) eta BAI (EIN).

Lurraldeka, 2025ean, langabezia-tasak behera egin zuen kasu guztietan, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Tasarik handiena Bizkaiko emakumeena izan zen (%7,5), eta txikiena, Gipuzkoako gizonena (%4,2).

3.9. TAULA

LANGABEZIA TASA EAE-N*, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	2024			2025**		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
EAE	7,4	7,1	7,8	6,4	6,1	6,8
Araba	7,5	7,6	7,4	6,4	6,4	6,5
Bizkaia	8,5	7,8	9,2	7,4	7,3	7,5
Gipuzkoa	5,7	5,6	5,8	4,9	4,2	5,7

* 2026ko urtarrilaren 23an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Erregistratutako langabeziaren bilakaerari dagokionez, 2025eko abenduaren 107.434 pertsona zeuden erregistratuta Lanbiden langabezia-egoeran. Hortaz, erregistratutako langabeziak urte arteko %0,1eko jaitsiera txikia izan zuen.

Dena den, enplegu-eskatzailen, okupatuen edo langabezian zeuden kopuruak (310.990) urte arteko %1,3ko hazkunde izan zuen 2025aren amaieran.


Talde hau askoz ere handiagoa da erregistratutako langabeziaren estatistikak kontuan hartzen dituen pertsonena baino, eta enplegu-eskatzaille okupatuak nahiz prestasun mugatua dutenak biltzen ditu, bai eta zenbait kolektibo ere, hala nola ikasleak edo aldi baterako nekazaritza-langile subsidiatuak, 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduak (85/03/14ko BOE) erregistratutako langabezia-estatistikaren barruan sartzen ez dituenak.

Erregistratutako Langabezia: Hilaren azken egunean alta-egoeran dauden lan-eskari guztiak, SEPEk erregistratutakoak, Erregistratutako Langabezia neurtzeko irizpide estatistikoak ezartzen dituen 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduak (1985eko martxoaren 14ko BOE) deskribatzen dituen lan-egoerei dagozkienak kanpoan utzita.

Hala eta guztiz ere, komeni da aurtien ere gogoraraztea enplegu-bulegoek eta BJAK metodologia desberdinak erabiltzen dituztela langabezia erregistratzeko, eta horregatik direla datuak desberdinak. Gainera, iturrien maiztasuna ere desberdina da: BJaren kasuan hiruhilekoko eta urteko datuak jasotzen dituzte, eta erregistratutako langabeziaren kasuan, hilekoak.

3.5. GRAFIKOA

EAE-N ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. HILEROKO BILAKAERA



Iturria: SEPE.

3.3. JAKINARAZITAKO LANEKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA (EAE)

3.3.1. BILAKAERA OROKORRA ETA ERROTAZIOA

Aurreko urteetan txosten honetan egin bezala, atal honetan, jakinarazitako kontratazioaren bilakaera aztertuko dugu, hau da, urtean zehar sinatutako kontratu finkoen edo aldi baterako kontratuen kopurua aztertuko dugu. Ondoren, 3.4 puntuan, Gizarte Segurantzako afiliazioak 2025eko abenduan zuen egoera aztertuko dugu.

Lan-merkatuaren dinamismoaren eta sortzen den enpleguaren ezaugarrien inguruko informazioa ematen digute SEPERi jakinarazitako sinatutako kontratuen kopuruari eta ezaugarriei buruzko datuek.

Komeni da kontuan izatea Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua handitu dadin laguntzen duela laneko kontratu berriak sinatzeak. Dena den, kontratazioa handitzeak ez du beti afiliazioaren hazkundera eragiten. Izan ere, afiliatuen kopurua murriztu egin daiteke lana galtzen duten pertsonak, jubilatzen direnak edo hiltzen direnak areagotzen badira.

Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua indarrean sartu zenetik, 2022an eta 2023an, nabarmen murriztu da aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi da kontratu finkoen kopurua, batez ere aldizkako kontratu finkoena. Azken horiek murriztu egin ziren 2024an, eta berriro egin zuten zertxobait gora 2025ean

2022an indarrean sartu zen abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua, lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzkoa. Haren bidez, arau berriak ezarri zituzten aldi baterako kontrataziorako, eta mugatu egin zuten. Ondorioz, 2022 eta 2023 urteetan nabarmen murriztu zen aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi zen kontratu finkoen kopurua, batez ere, aldizkako kontratu finkoena.

2022aren aurreko urteetan, EAEn sinatzen ziren kontratuen %90 baino zertxobait gehiago aldi baterakoak ziren (2021ean, %90,7); 2024an, berriz, %76,9ra jaitsi zen ehuneko hori. Bestalde, 2021. Urtean sinatutako kontratu guztien artetik, %9,3 mugagabeak ziren; 2023an, guztizkoaren %25,5 izan ziren mota horretakoak, eta 2025an %23,1.

2025ean, sinatutako kontratu mugagabeak (176.637) kontratu guztien %23,3 izan ziren (758.341), eta ehuneko hori bi hamarren igo zen 2024koaren aldean; gainerakoak, %76,7 (581.704), aldi baterako kontratuak izan ziren.

3.10. TAULA**EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU MUGAGABEAK ETA ALDI BATERAKOAK**

	2024	2025	BANAKETA 2025	ALDAKUNTZA TASA 25/24
GUZTIRA	749.692	758.341	%100,0	%1,2
Mugagabeak	173.518	176.637	%23,3	%1,8
Aldi baterakoak	576.174	581.704	%76,7	%1,0

Iturria: SEPE.

2025ean, jakinarazitako kontratu guztien kopuruak %1,2 egin zuen gora aurreko urtearekin alderatuta; kontratu mugagabeak %1,8 igo ziren, eta aldi baterakoak %1. Gainera, aipatzekoa da aldizkako kontratu finkoak %2,1 gehiago izan zirela, aurreko ekitaldian izandako -%11,6ko urte arteko jaitsieraren ondoren.

Kontratazioaren gorakada horrekin bat etorriz, EAEn Gizarte Segurantzzen afiliatutako pertsonen kopurua azken urteetako kopururik handienara iritsi zen 2025eko abenduan (1.036.804 pertsona).

3.11. TAULA**EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, MOTAREN ARABERA**

	2024	2025	ALDAKUNTZA TASA 25/24
Mugagabeak	173.518	176.637	%1,8
Aldizkako finkoak	32.164	32.846	%2,1
Gainerako mugagabeak	141.354	143.791	%1,7
Aldi baterakoak	576.174	581.704	%1,0
Praktikak eta formakuntzakoak	6.255	5.693	-%9,0
Gainerako aldi baterakoak	569.919	576.011	%1,1
GUZTIRA	749.692	758.341	%1,2

Iturria: SEPE.

2025ean, sinatutako kontratu mugagabeen kopurua %1,8 hazi zen, eta aldi baterako kontratuena, aldiz, %1

3.12. TAULA**EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA**

	2024	2025	ALDAKUNTZA TASA 25/24
Mugagabeak Gizonak	92.179	92.147	%0,0
Aldizkako finkoak	17.173	17.430	%1,5
Gainerako mugagabeak	75.006	74.717	-%0,4
Aldi baterakoak	274.636	278.936	%1,6
Praktikak eta formakuntzakoak	4.002	3.729	-%6,8
Gainerako aldi baterakoak	270.634	275.207	%1,7
GIZONAK, GUZTIRA	366.815	371.083	%1,2
Mugagabeak Emakumeak	81.339	84.490	%3,9
Aldizkako finkoak	14.991	15.416	%2,8
Gainerako mugagabeak	66.348	69.074	%4,1
Aldi baterakoak	301.538	302.768	%0,4
Praktikak eta formakuntzakoak	2.253	1.964	-%12,8
Gainerako aldi baterakoak	299.285	300.804	%0,5
EMAKUMEAK, GUZTIRA	382.877	387.258	%1,1
GUZTIRA	749.692	758.341	%1,2

Iturria: SEPE.

Sexuari erreparatuta, jakinarazitako kontratazio osoaren hazkundera antzekoa izan zen gizonen kasuan eta emakumeen kasuan (%1,2 eta %1,1, hurrenez hurren), baina kontratu-mota ere kontuan hartzen badugu, nabarmentzekoa da kontratu mugagabeak emakumeen kolektiboan bakarrik igo zirela (%3,9), eta aldi baterako kontratazioaren hazkundera handiagoa izan zela gizonen kasuan (%1,6) emakumeen kasuan baino (% 0,4).

Bestalde, aldi baterako kontratuen iraupenaren arabera banaketak erakusten duenez, iraupen laburrenekoak (7 egun edo gutxiagokoak, eta 8 egun eta hilabete artekoak) eta iraupen zehaztugabekoak izan ziren nagusi 2025ean; izan ere, ekitaldi horretan formalizatutako aldi baterako kontratu guztien %80,1 hartu zuten guztira.

3.13. TAULA**EAE-N JAKINARAZITAKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BILAKAERA, KONTRATUAREN IRAUPENAREN ARABERA. 2022-2025**


	7 EGUN EDO GUTXIAGO	8 EGUN ETA 1 HILABETE ARTEAN	1 ETA 3 HILABETE ARTEAN	3 ETA 6 HILABETE ARTEAN	6 HILABETE ETA 1 URTE ARTEAN	1 URTE BAINO GEHIAGO	ZEHATZU GABEA	GUZTIRA
2022	233.704	113.461	69.129	42.810	13.184	4.147	139.289	615.724
2023	229.992	103.759	65.162	32.742	11.906	3.543	96.550	543.654
2024	263.015	103.039	64.570	31.424	12.321	3.826	97.979	576.174
2025	259.261	110.151	67.652	31.951	12.964	3.445	96.280	581.704
Banaketa 2022	%38,0	%18,4	%11,2	%7,0	%2,1	%0,7	%22,6	%100,0
Banaketa 2023	%42,3	%19,1	%12,0	%6,0	%2,2	%0,7	%17,8	%100,0
Banaketa 2024	%45,6	%17,9	%11,2	%5,5	%2,1	%0,7	%17,0	%100,0
Banaketa 2025	%44,6	%18,9	%11,6	%5,5	%2,2	%0,6	%16,6	%100,0

Iturria: SEPE.

Errotazio-indizea: kontratu kopuruaren eta kontratatutako pertsona kopuruaren arteko zatidura.

Pertsonako eta urteko 2,59 kontratu sinatu ziren 2025ean

3.6. GRAFIKOA
ERROTazioAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: SEPEren Informazioa Aztertze Sistema. 2026ko otsailean eguneratutako datuak.

2025ean pertsonako eta urteko sinatutako kontratu-kopuruari dagokionez, esan behar da ia konstante mantendu zela pertsonako 2,59 kontratutan; pertsonako 2,58 ziren 2024an).

3.14. TAULA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK ETA KONTRATATUKO PERTSONAK EAE-N, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2025

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Jakinarazitako kontratuak (1)	155.253	376.793	226.295	758.341
Kontrataturako pertsonak (2)	58.800	144.624	89.625	293.049
Errotazioa (1) / (2)	2,64	2,61	2,52	2,59

Iturria: SEPEren Informazioa Aztertze Sistema. 2026ko otsailean eguneratutako datuak.


Nolanahi ere, sinatutako kontratu-kopuruaren aldakuntzak lan-merkatuan izan duen eragina hobeto ulertzeko, Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera aztertu beharra dago, kontratu-motaren arabera. Gai hori hurrengo atalean jorratuko dugu.

3.4. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA⁸

2025eko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliazioa (hileko batezbestekoa) %1,2 hazi zen aurreko urtearen aldean, eta maximo historiko berri bat ezarri zen

3.7. GRAFIKOA

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONA KOPURUA EAE-N (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA). 2008-2025



Iturria: Gizarte Segurantza.

2025eko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliatu-kopurua (hileko batez bestekoa) 1.036.804koa izan zen, eta, hala, beste maximo historiko batera iritsi zen.

Erregimen Orokorrean 13.090 afiliatu gehiago zeuden 2024ko abenduan baino (+%1,6), eta Langile Autonomoen Erregimen Berezian afiliatuak, berriz, 357 gutxiago ziren (-% 0,2)

12.293 afiliatu gehiago izan ziren (+%1,2), Erregimen Orokorreko afiliatu-kopuruak gora egin zuelako (sistema bereziak alde batera utzita), 13.090 afiliatu gehiagorekin (+%1,6), gainerako erregimenetan izandako beherakadak konpentsatuta.

⁸Afiliatuen kopurua ez dator bat, nahitaez, langileen kopuruarekin. Lan-harremanak edo afiliatuta egoteko betebeharrak sortzen duten egoerak dira; hau da, pertsona bera zenbat aldiz kontabilizatzen den estatistiketan afiliazio-egoera gisa, dela lan-harreman bat baino gehiago dituelako erregimen berean, dela harreman bat baino gehiagotan dituelako. Etxeko Langileentzako Sistema Bereziko langileen kasuan eta Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziko langileen kasuan, altan dauden eta lan-harremanak ez dituzten pertsonak kontabilizatzen dira.

3.15. TAULA
LANEKO ALTA EGOERAN DAUDEN AFILIATUAK EAE-N, ERREGIMENAREN ARABERA
(HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)

Erregimena	Sexua	2024ko abe.	2025eko abe.	Aldakuntza 2025/2024
AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIA	Gizonak	99.897	99.513	-0,4
	Emakumeak	63.530	63.558	0,0
	Guztira	163.429	163.072	-0,2
ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Besteren kontura)	Gizonak	2.761	2.756	-0,2
	Emakumeak	332	328	-1,2
	Guztira	3.093	3.083	-0,3
ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Norbere kontura)	Gizonak	207	166	-19,8
	Emakumeak	67	71	6,0
	Guztira	274	237	-13,5
NEKAZARITZAKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA	Gizonak	2.184	2.109	-3,4
	Emakumeak	1.336	1.258	-5,8
	Guztira	3.520	3.367	-4,3
ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEENTZAKO SISTEMA BEREZIA)	Gizonak	1.057	1.084	2,6
	Emakumeak	26.032	25.910	-0,5
	Guztira	27.091	26.996	-0,4
ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	Gizonak	1.582	1.477	-6,6
	Emakumeak	308	268	-13,0
	Guztira	1.890	1.745	-7,7
ERREGIMEN OROKORRA	Gizonak	420.951	428.008	1,7
	Emakumeak	404.263	410.296	1,5
	Guztira	825.214	838.304	1,6
SISTEMA, GUZTIRA		1.024.511	1.036.804	1,2

Iturria: Gizarte Segurantza.

EAEko afiliatu-kopuruaren hazkunde horren zatirik handiena sektore pribatuan gertatu zen: 8.737 afiliatu gehiago. Sektore publikoko afiliatu-kopuruak, aldiz, 3.556 pertsonako hazkundera baino ez zuen izan. Termino erlatiboetan, langile publikoen afiliazioa eremu pribatuko langileen afiliazioaren bikoitza baino gehiago hazi zen: %2,2 eta %1 hurrenez hurren, urte arteko datuei erreparatuta.

3.16 TAULA
EAE-N AFILIATUTAKO PERTSONAK, SEKTORE PUBLIKOKOAK EDO PRIBATUKOAK
DIREN KONTUAN HARTUTA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)

	2024ko abe.	2025eko abe.	Aldea 2024-2025	Aldakuntza 2025/2024
Estatukoa	8.027	7.943	-84	%-1,0
Autonomikoa	114.281	117.471	3.190	%2,8
Tokikoa	40.746	41.195	449	%1,1
Sektore Publikoa, guztira	163.054	166.610	3.556	%2,2
Sektore Pribatua, guztira	861.457	870.194	8.737	%1,0
Sistema, guztira	1.024.511	1.036.804	12.293	%1,2

Iturria: Gizarte Segurantza.

Bestalde, atzeritik etorritakoek (gizonezkoek zein emakumezkoek) EAEko afiliazioari egindako ekarpen garrantzitsua nabarmendu behar da; izan ere, 2024ko abendutik 2025eko abendura bitartean 6.725 atzerritar gehiago daude Gizarte Segurantzaren izena emanda, eta, beraz, atzerriko afiliazioa afiliazioaren hazkunde osoaren %54,7 da.

3.17. TAULA

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLEAK (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)

	Hileko batez besteko afiliazioa, urte bakoitzeko abenduaren 31n		ALDAKUNTZA TASA (%)
	2024	2025	25/24
Gizonak	54.741	59.746	9,1
Emakumeak	42.904	44.625	4,0
Guztira	97.647	104.372	6,9

Iturria: Gizarte Segurantza.

Arestian aipatu dugun moduan, EAEn 13.090 afiliatu gehiago daude Erregimen Orokorrean 2024ko abendutik 2025eko abendura bitartean. "Beste batzuk" atalean⁹ sartzen diren pertsonak alde batera uzten baditugu (gehienak funtzionarioak dira), ikusiko dugu hazkunde hori, hein handi batean, lanaldi osoko kontratu mugagabea duten kotizatzaileen kopuruaren hazkundearen ondorio dela, 6.621 pertsona gehiago izan baitziren.

Aldi baterako kontratuekin afiliatuak 2.541 gutxiago izan ziren, lanaldi partzialeko kontratu mugagabea zuten afiliatuak 2.934 gehiago izan ziren, eta aldizkako kontratu finkodunak, berriz, 704 gutxiago izan ziren.

3.18. TAULA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, KONTRATU ETA LANALDI MOTAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)

	Mugagabea - Lanaldi osoa	Mugagabea - Lanaldi partziala	Aldizkako finkoak	Aldi baterakoa - Lanaldi osoa	Aldi baterakoa - Lanaldi partziala	Beste batzuk (*)	GUZTIRA
2024ko abendua	465.890	106.350	28.145	94.892	43.191	86.747	825.214
2025eko abendua	472.511	109.284	27.441	92.044	43.498	93.525	838.304
Aldeak 2025-2024	6.621	2.934	-704	-2.848	307	6.778	13.090
Aldakuntza % 2025/2024	1,4	2,8	-2,5	-3,0	0,7	7,8	1,6

Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek.

Iturria: Gizarte Segurantza.

⁹"Beste batzuk" atalak barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.


2025aren amaieran, Erregimen Orokorrean lanaldi osoko kontratu mugagabea duten afiliatuak 6.621 gehiago ziren; lanaldi osoko aldi baterako kontratua dutenak, berriz, 2.848 gutxiago ziren; eta aldizkako kontratu finkodunak, 704 gutxiago.

Beste batzuk ataleko afiliatuak alde batera utzita (esan bezala, gehienak funtzionarioak dira), eta lan-kontratua duten afiliatuak bi talde handitan bilduta (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), ikusten dugu 2025eko abenduan afiliatuen %78,1ek kontratu mugagabea zuela; ehunekotan, puntu erdi gehiago 2024an baino (%77,6), eta 11 puntutik gora gehiago 2019an baino (%66,8).

Lan-kontratudun Erregimen Orokorreko afiliazioa bi multzo handitan multzokatuta, hau da, kontratu mugagabea dutenenena eta aldi baterako kontratua dutenena, 2025eko abenduan afiliatuen¹⁰ %78,1ek kontratu mugagabea zuen, 2024an baino puntu erdi gehiago

3.8. GRAFIKOA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTA DAUDEN ETA LAN KONTRATUA DUTEN PERTSONEN* BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA (HILABETEKO BATEZBESTEKOA)



(*) Ez ditu barne hartzen kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitzategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza

Era berean, aldizkako kontratu finkoa duten pertsonen partaidetza oso txikia da, eta are txikixeagoa da haien pisua, aurreko ekitaldiarekin alderatuta; izan ere, 2024an lan-kontratua zuten afiliatu guztien %3,8 ziren ("Beste batzuk" kenduta), eta orain %3,7 dira.

¹⁰ Aurrez aipatu denez, afiliatuen kopurua ez dator bat, nahitaez, langileen kopuruarekin. Lan-harremanak edo afiliatuta egoteko betebeharrak sortzen duten egoerak dira; hau da, pertsona bera zenbat aldiz kontabilizatzen den estatistiketan afiliazio-egoera gisa, dela lan-harreman bat baino gehiago dituelako erregimen berean, dela harreman bat baino gehiagotan dituelako.

3.19. TAULA
EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK,
SEKTOREAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)

	Afiliatutako pertsonak		Aldakuntza-tasa (%)
	2024ko abe.	2025eko abe.	
Lehen sektorea	1.279	1.338	4,6
Eraikuntza	37.741	38.901	3,1
Industria	159.581	159.676	0,1
Zerbitzuak	626.613	638.389	1,9
Guztira	825.214	838.304	1,6

Iturria: Gizarte Segurantza.

Sektorearen araberrako banaketari dagokionez, 2025eko abenduan afiliazioak gora egin zuen, batez ere zerbitzuetan eta eraikuntzan: 11.776 kotizatzaile (+%1,9) eta 1.160 (+%3,1) izan ziren, hurrenez hurren; aldiz, askoz ekarpen txikiagoa izan zen industriarena (95 kotizatzaile gehiago, +%0,1) eta lehen sektorearena (59 kotizatzaile gehiago, +%4,6).

3.5. SOLDATEN BILAKAERARI BURUZKO AURRETIAZKO GOGOETAK

Soldaten bilakaera neurtzeko modu bat baino gehiago daude, eta emaitza ezberdina da erabilitako metodologiaren arabera

Aurrekoetan adierazi izan dugun moduan, azken urteetan soldatek izan duten bilakaera ezagutu nahi badugu, kontuan hartu behar dugu galdera horrek ez duela erantzun bakar bat. Izan ere, gaur egun egiten diren erregistroek eta eragiketa estatistikoek errealtate beraren ikuspegi partzialak eskaintzen dituzte, eta emaitzak ezberdinak dira fokua jarri dugun lekuaren arabera eta erabilitako metodologiaren arabera.

Ildo horretatik, lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da hurrengo kapituluan aztertuko ditugun hitzarmen kolektiboetan adostutako soldata-igoerek horixe bakarrik hartzen dutela barne: adostutako soldata-igoerak. Kanpoan utzi ditugu enpresaren bilakaeraren eta emaitzen arabera langile batek jaso litzakeen soldataz kanpoko ordainsariak, aparteko orduak, hainbat osagarriren ordainketa (antzinatasuna, txandak, gauak, produktibitatea, helburuen lorpena...), eta horiek langilearen ordainsarien gainean izan lezaketen eragina.

Gainera, hitzarmenean adostutako batez besteko soldata-igoerak ez ditu barne hartzen langileek haien hitzarmenak luzapen egoeran zituzten bitartean beharbada izandako soldata-igoerak, ez dakigulako langile hauei nolabaiteko igoeraren bat aplikatu zaien ala ez. Negoziazio kolektiboaren eraginpean ez dauden langileek, hau da, haien lan-baldintzak hitzarmen kolektibo baten bidez araututa ez dituztenek, izan zitzaketen soldata-igoerak ere ez ditugu gehitu.

Horrela, bada, IV. kapituluan aipatuko den bezala, EAEn eragina duten hitzarmen kolektiboetan adostutako batez besteko soldata-igoera %3,32koa izan zen 2025ean.

Bestalde, langile bakoitzeko lan-kostuari buruzko informazioa ematen du EINek egiten duen Lan-kostuaren Hiruhilekoko Inkestak (LKHI). Soldataren kostuaz gain, beste kostu batzuk ere aintzat hartzen ditu, hala nola soldataz kanpoko ordainsariak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak.

Alde horretatik, EINek batez besteko lan-kostuaren gaineko informazioa ematen du. Ordainsarien egitura aldatu ez arren, datu hori aldatu egin daiteke urte batetik bestera, enpresa bateko langileen osaera aldatu delako, adibidez, kategoria jakin bateko langile kopurua handitu edo txikitu delako; edo osagarri jakin batzuk ordaintzearen edo ez ordaintzearen ondorioz ere alda daiteke.

Hala, aipatu beharrekoa da ABEEE baten eraginpeko pertsonen haien enpresako plantillaren parte izaten jarraitzen dutela, baina ez zaie soldata ordaintzen; horren ordez, zuzenean Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) emandako prestazioak jasotzen dituzte eta, kasu batzuetan, enpresek eurek osatzen dute ordainsaria. Gainera, enpresek egin beharreko gizarte-kotizazioek eta jarduerara itzultzen diren langileen gizarte-kotizazioek nolabaiteko arintzeak izan ditzakete. Horrek guztiak eragina du Hiruhilekoko Inkestak egiten duen lan-kostuaren neurketan.

Testuinguru horretan, aipatutako inkestak erakusten duenez, EAEn %3,9ko urte arteko hazkundea izan zuen batez besteko lan-kostuak 2025an.

Azkenik, Laneko Prezioen Indizea ere argitaratzen du EINEk. Urtero argitaratzen den eragiketa estatistikoa da, eta eskulanaren prezioan izandako aldaketa ahalik eta modu homogeneoenean neurtzea du helburu, egindako lanaren kalitateak eta kantitateak izandako aldaketek neurketari eragin gabe (adibidez, laneko indarraren osaeran, lan egindako ordu-kopuruan, kontratu-motan, soldatapekoen ezaugarrietan eta abarretan aldaketek).

Hortaz, kasu honetan, ordainsarien igoerak ez luke kontuan hartuko urte batean edo bestean ordu gehiago edo gutxiago lan egin izana. Izan ere, bi urteren artean eskulanaren kostuak izandako igoerak neurtzea du helburu, osaeraren eragina kontuan hartu gabe.

Gauzak horrela, krisi-egoeran dagoen enpresa batek kualifikazio maila baxueneko eta soldata baxueneko langileak kaleratuko balitu, eta gainerako langileak mantenduko balitu, batez beste soldata igo egingo litzateke, aktibo jarraitzen duten langileek kopuru bera kobratzen jarraitu arren. Hain zuzen ere, langile bakoitzeko lan-kostua igo egingo litzateke, baina "laneko prezioen indizeak", printzipioz, ez luke aldaketarik jasango.

Kontuan izan behar da Laneko Prezioen Indizea kalkulatzeko lanpostuen hautaketa adierazgarria egiten dela, eta denboran zehar jarraitzen dela lanpostu horien bilakaera. Txosten hau egin den unean, eskuragarri dagoen LPIren azken informazioa 2023koa da.

Era berean, komeni da aurten ere gogoraraztea soldata-igoera, besteak beste, ekonomiaren bilakaeraren edo prezioek izandako aldaketaren arabera aztertu behar dela.

Ilde horretatik, azpimarratu behar da 2025eko abenduan urte arteko KPIaren igoera %2,9koa izan zela, bai EAEn, bai Estatu osoan. Ekonomiaren bilakaerari dagokionez, 2025ean EAEko BPGa %2,3 handitu zen, Estatuan izandako hazkundearen azpitik (%2,8), baina Euroguneari dagokiona (%1,4) baino nabarmen handiagoa.

3.6 LANBIDE ARTEKO GUTXIENeko SOLDATA

2025ean %4,4 hazi zen lanbide arteko gutxieneko soldata, eta 1.184 eurora iritsi zen

2025ean, lanbide arteko gutxieneko soldatak (LGS) %4,4ko hazkundea izan zuen. Hala, 50 euro hazi zen, hilean 1.184 euro gordinera iritsi arte (14 ordainsari).

Denbora-tarte zabalagoa kontuan hartuta, eta 2007ko ekitaldia erreferentziazat hartuta (aurreko atzeraldia hasi aurreko urtea), 2007-2025 aldian lanbide arteko gutxieneko soldata %107,5 hazi zen, eta Estatu osoko KPIa, berriz, %47,8, 2007ko urtarritetik 2025eko abendura bitartean.

Lanbide arteko gutxieneko soldatak (LGS) besteren konturako langile batek egunean edo hilean jaso behar duen gutxieneko diruzko ordainsari gordina ezartzen du, jardueraren, sexuaren edo adinaren arabera bereizketarik egin gabe.

3.20. TAULA

LANBIDE ARTEKO GUTXIENeko SOLDATA, LGS (ESTATUA)

	LGS (EUROAK/HILABETEKo, 14 ORDAINSARI)	LGS-REN ALDAKUNTZA (2007=100)	Estatuko KPIa (URTEKO BATEZBESTEKOAK, 2007=100)
2007	570,6	100,0	100,0
2008	600,0	105,2	104,1
2009	624,0	109,4	103,8
2010	633,3	111,0	105,6
2011	641,4	112,4	109,0
2012	641,4	112,4	111,7
2013	645,3	113,1	113,3
2014	645,3	113,1	113,1
2015	648,6	113,7	112,5
2016	655,2	114,8	112,3
2017	707,7	124,0	114,5
2018	735,9	129,0	116,4
2019	900,0	157,7	117,2
2020	950,0	166,5	116,8
2021 ¹¹	965,0	169,1	120,5
2022	1.000,0	175,3	130,6
2023	1.080,0	189,3	135,2
2024	1.134,0	198,7	138,9
2025	1.184,0	207,5	142,6

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa, EIN.

2007tik 2025era, %107,5 hazi da LGS

Europa mailan, estatu kideen LGSa modu homogeneoan konparatzen du Eurostatek (12 ordainsari eta erosteko ahalmenaren parekotasuna (eap), eta hark

¹¹2021eko irailaz geroztik indarrean.

argitaratutako informazioaren arabera, 2025ean Estatuko LGSa (1.519 euro, irizpide horien arabera) handiagoa izan zen informazioa eskuragarri duten 21 estatu kideen batez bestekoa (1.344 euro eap) baino.

Izan ere, 1.000 eurotik gorako gutxieneko soldata (eap, 12 ordainsari) duten herrialdeen artean Luxenburgo da lehena (2.011), eta honakoak hurrengoak: Alemania (1.989), Herbehereak (1.914), Belgika (1.794), Irlanda (1.653), Frantzia (1.620), Espainia (1.519) eta Polonia (1.500). Horiek guztiek 1.500 eurotik gorako gutxieneko soldatak dituzte, erosketa-ahalmenaren parekotasun-baldintzetan. Jarraian, Eslovenia (1.417), Errumania (1.279), Kroazioa eta Lituania (1.272 kasu bietan), Portugal (1.167), Grezia (1.161), Malta (1.049) eta Hungaria (1.001) daude.

1.000 eurotik behera daude Eslovakia, Txekiar Errepublika, Bulgaria, Letonia eta Estonia.

Bilakaerari eta posizionamendu erlatiboari dagokienez, komeni da zehaztea, azken urteotan LGSk gora egin duen arren, Espainiak ia posizio berari eutsi diola Europako ranking horren barruan: zazpigarren eta zortzigarren posizioen artean txandakatu da.

3.21. TAULA

LANBIDE ARTEKO GUTXIENKO SOLDATA (EB) EROSKETA AHALMENAREN PAREKOTASUN BALDINTZETAN (EUROAK, EAP*)

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025 (**)
Luxemburgo	1.552	1.575	1.583	1.559	1.588	1.667	1.827	1.935	2.011
Alemania	1.414	1.424	1.458	1.444	1.487	1.556	1.841	1.891	1.989
Herbehereak	1.358	1.387	1.389	1.435	1.466	1.517	1.680	1.813	1.914
Belgika	1.355	1.363	1.387	1.417	1.408	1.490	1.666	1.744	1.794
Irlanda	1.188	1.203	1.215	1.187	1.246	1.284	1.393	1.554	1.653
Frantzia	1.310	1.315	1.341	1.363	1.360	1.445	1.540	1.589	1.620
Espainia	872	891	1.094	1.133	1.173	1.224	1.333	1.456	1.519
Polonia	800	826	875	991	1.014	1.042	1.157	1.373	1.500
Eslovenia	930	968	1.021	1.078	1.175	1.216	1.344	1.390	1.417
Errumania	540	732	790	832	823	863	992	1.105	1.279
Kroazia	634	657	709	762	813	857	937	1.102	1.272
Lituania	575	593	816	868	897	925	1.023	1.132	1.272
Portugal	731	768	797	821	878	942	1.022	1.100	1.167
Grezia	787	787	830	858	869	919	1.016	1.093	1.161
Malta	853	864	881	868	856	859	918	1.010	1.049
Hungaria	626	656	680	692	672	759	822	918	1.001
Eslovakia	528	568	604	697	756	758	835	885	963
Txekiar Errepublika	593	643	693	723	711	735	777	851	936
Bulgaria	459	503	534	565	598	600	674	799	922
Letonia	507	561	552	548	665	620	756	856	905
Estonia	581	602	636	679	641	659	718	820	886

(*) Erosketa-ahalmenaren parekotasun-baldintzetan.

(**) Zenbatetsitako balioak (2026ko urtarrila).

Iturria: Eurostat.

Soldatak herrialde bakoitzeko prezioen mailaren arabera doitu ezean (erosketa-ahalmenaren parekotasuna), estatuen gutxieneko soldaten arteko aldeak nabarmen handiagoak izango lirateke.

Azkenik, gogoratu beharrekoa da Danimarkak, Italiak, Ziprek, Austriak, Finlandiak eta Suediak ez dutela legez araututako gutxieneko soldatarik. Negoziazio kolektiboa da gutxieneko soldata finkatzeko duten sistema bakarra.

3.7. LAN-KOSTUAREN HIRUHILEKOKO INKESTA

Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) Lan-kostuari buruzko Hiruhileroko Inkesta egiten du. Langile bakoitzeko batez besteko lan-kostuaren bilakaera aztertzen du inkesta horrek, eta barne hartzen ditu soldataren kostua (oinarrizko soldata, soldataren osagarriak, aparteko orduen ordainketak, ezohiko ordainketak eta atzerapenak), soldataz kanpoko ordainsariak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak¹².

Lan-kostuaren bilakaera aztertzen hasi aurretik, aurrez esan duguna gogoratzea komeni da, hau da, osaera-efektua deritzonak eragin egin diezaiokeela lan-kostuaren bilakaerari. Enplegua suntsitzen den garaietan, baliteke aldi baterako kontratua duten pertsonak eta batezbestekoa baino soldata baxuagoa duten pertsonak lana galtzea. Ondorioz, handitu egiten da soldata altuagoak dituzten pertsonak guztizkoaren gainean duten pisu erlatiboa, eta, horren eraginez, langile bakoitzeko batez besteko lan-kostuak gora egin dezake. Hala, langileen osaeraren aldaketa horrek lan-kostuaren igoera ekarriko luke.

Osaera-efektua: Lagina osatzen duten kolektiboen pisu erlatiboaren aldaketa, lan-merkatuaren sarrerako eta irteerako fluxuek eraginda.

Aitzitik, enpleguaren hazkunde-faseetan kontrako efektua gerta liteke. Izan ere, lanean dauden pertsonak baino soldata baxuagoak dituzten pertsonak sartuz gero, langile bakoitzeko batez besteko kostua jaitsi egingo litzateke.

Lan-kostua, langile eta hilabete bakoitzeko: Enpresari batentzat hilabete batez pertsona bati lana emateak zer kostu duen neurtzen du. (Lan-kostua, lan-unitate bakoitzeko).

Lan-kostua, benetako lanordu bakoitzeko. Enpresari batentzat benetako lanordu batek zer kostu duen neurtzen du (Lan-kostua, lan-unitate bakoitzeko).

Benetako orduak: Hitzartutako orduen eta aparteko orduen eta/edo ordu osagarrien arteko batura, ken lan egin gabeko orduak; lantokian galdutako orduak ez dira azken multzo horretan sartzen, benetako ordutzat hartzen baitira.

Iturria: EIN.

2025ean %3,9 hazi zen guztizko lan-kostua EAEn, aurreko urtearekin alderatuta

2025ean langile bakoitzeko hileko batez besteko lan-kostua 3.660,01 eurokoa izan zen EAEn, urte arteko %3,9ko igoera adierazten duen zifra. Bestalde, lanordu bakoitzeko benetako lan-kostuaren urte arteko hazkundea %3,3koa izan zen.

Lanordu bakoitzeko benetako kostua %3,3 hazi zen aurreko

¹²Informazio gehiagorako, kontsultatu Lan-kostuaren Hiruhileroko Inkesta. EIN. http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736045053&menu=metodologia&idp=1254735976596

Inkesta honek ez du barne hartzen lehen sektoreari buruzko informaziorik.

urtearekiko

Lan-kostuaren osagaien arabera analisiak erakusten du EAEn langile bakoitzeko guztizko soldata-kostua %3,8 igo zela, eta Beste kostu batzuen atala, berriz, %4,2 igo zela.

Estatu-mailan, aurreko urtearen aldean, guztizko lan-kostua %3,4 igo zen, guztizko soldata-kostua %3,2, eta Beste kostu batzuei dagokiena, berriz, %3,9.

3.22. TAULA

LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO LAN-KOSTUAREN BANAKETA, EHUNEKOETAN, EAE-N

	BALIO ABSOLUTUAK		BANAKETA EHUNEKOTAN		ALDAKUNTZA (%)
	2024	2025	2024	2025	25/24
Lan-kostua langileko, guztira	3.522,7	3.660,0	100,0	100,0	3,9
Soldata-kostua langileko, guztira	2.571,5	2.668,5	73,0	72,9	3,8
Beste kostu batzuk	951,1	991,5	27,0	27,1	4,2
Soldataz kanpoko ordainsarien kostua	85,4	90,5	2,4	2,5	6,0
Derrigorrezko kotizazioen kostua	885,4	923,2	25,1	25,2	4,3
Gizarte Segurantzaren dirulaguntzak eta hobariak ¹³	-19,7	-22,3	-0,6	-0,6	13,2

Iturria: EIN.

Erkidegoan soldata-kostua lan-kostu osoaren %72,9 dela, eta beste kostu batzuk (soldataz kanpoko ordainsariak, derrigorrezko kotizazioak ken dirulaguntzak eta hobariak) gainerako %27,1a direla.

3.23. TAULA

LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO LAN-KOSTUAREN BANAKETA, EHUNEKOETAN, ESTATUAN

	BALIO ABSOLUTUAK		BANAKETA EHUNEKOTAN		ALDAKUNTZA (%)
	2024	2025	2024	2025	25/24
Lan-kostua langileko, guztira	3.112,6	3.218,8	100,0	100,0	3,4
Soldata-kostua langileko, guztira	2.301,9	2.376,5	74,0	73,8	3,2
Beste kostu batzuk	810,7	842,3	26,0	26,2	3,9
Soldataz kanpoko ordainsarien kostua	75,6	78,0	2,4	2,4	3,2
Derrigorrezko kotizazioen kostua	750,0	779,6	24,1	24,2	3,9
Gizarte Segurantzaren dirulaguntzak eta hobariak ¹³	-14,8	-15,2	-0,5	-0,5	2,7


Iturria: EIN.

Denbora-tarte zabalagoa kontuan hartuta, eta 2008ko ekitaldia oinarritzat hartuta, ikusten dugu aldi horretan lan-kostuaren hazkunde metatua zertxobait txikiagoa izan zela EAEn (+%30,0) Estatu osoan baino (+%32,4).

¹³Enplegatzailleek Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioetan aplikatzen dituzten murrizketak, hobariak eta dirulaguntzak, langileen kolektibo jakin batzuk kontratatu izanagatik edo SEPEk haren aurrekontuaren kontura onartutako laguntzengatik.

3.9. GRAFIKOA

LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO LAN-KOSTUAREN BILAKAERA (INDIZEAREN ZENBAKIAK: 2008-100 BALIOAK)



Iturria: EIN.

Sektoreka, EAEn, industriak du langile bakoitzeko batez besteko lan-kosturik handiena (4.464,84 euro), eta dezente atzerago daude eraikuntza (3.884,82 euro) eta zerbitzuak (3.434,46 euro). Horrela, batez besteko lan-kosturik handiena duen sektorearen (industria) eta baxuena duenaren (zerbitzuak) arteko aldea 1.030,38 eurokoa da hilean.

Urte arteko datuei erreparatuta, eraikuntzaren lan-kostua %7 igo zen; ondoren zerbitzuak (%4,5); eta industria (%1,4).

Madriren (3.846 euro) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (3.660 euro) erregistratu dira langile bakoitzeko batez besteko lan-kostu handienak

Autonomia-erkidegoka egindako azterketa konparatiboaren arabera, 2025ean EAEk izan zuen bigarren batez besteko lan-kosturik altuena; Madril bakarrik zegoen haren aurretik (3.846 euros). Eta EAEn atzetik daude Nafarroa, Katalunia, Balear Uharteak, Aragoi eta Asturias (3.467, 3.453, 3.246, 3.076 eta 3.056 euro, hurrenez hurren); denek zuten 3.000 eurotik gorako batez besteko lan-kostua.

Gainerako erkidegoek 3.000 eurotik beherako batez besteko kostuak izan zituzten. Eta mailarik baxuenak eskuratu zituzten Andaluziak (2.842 euro), Murtziak (2.790 euro), Kanariak (2.676 euro) eta Extremadurak (2.654 euro).

3.24. TAULA
LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO LAN-KOSTUA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN

	HILEKO GUZTIZKO LAN-KOSTUA*		Euroak
	2024	2025	
Madril	3.711	3.846	
EAE	3.523	3.660	
Nafarroa	3.364	3.467	
Katalunia	3.344	3.453	
Balearrak	3.070	3.246	
GUZTIRA	3.113	3.219	
Aragoi	3.022	3.076	
Asturias	3.059	3.056	
Errioxa	2.839	2.988	
Kantabria	2.855	2.932	
Gaztela eta León	2.784	2.897	
Valentziako Erkidegoa	2.805	2.893	
Galizia	2.808	2.870	
Gaztela-Mantxa	2.766	2.849	
Andaluzia	2.725	2.842	
Murtzia	2.774	2.790	
Kanariak	2.589	2.676	
Extremadura	2.557	2.654	

*Urteko batezbestekoa.
Iturria: EIN.

3.8. LANEKO PREZIOEN INDIZEA

Gogoratu beharra dago urtero argitaratzen den eragiketa estatistiko jarraitua dela Laneko Prezioen Indizea (LPI), eta lan-merkatuaren presioen ondorioz soilik eskulanaren prezioak denboran zehar izandako aldaketa neurtzea dela haren helburua.

Honako lan hau egiteko unean, 2023ko ekitaldikoa da eskuragarri dagoen azken informazioa.

Laneko Prezioen Indizearen arabera, 2023an %4,2 hazi ziren soldatak EAEn

*EINek urtero argitaratzen duen eragiketa estatistiko da **Laneko Prezioen Indizea (LPI)**, eta eskulanaren prezioak izandako aldaketa neurtzea du helburu, egindako lanaren kalitateak eta kantitateak izandako aldaketek neurketari eragin gabe.*


Soldaten bilakaera zintzoki islatzeko helburuz, LPI ez da batezbestekoen arabera neurtzen, Lan-kostuaren Hiruhilekoko eta Urteko Inkestaren kasuan ez bezala. Horren orde, KPIaren kasuan bezala, lanpostuen hautaketa adierazgarri bat egiten da, denboran zehar horien bilakaera aztertzen da eta, horretan oinarrituta, indize bat sortzen da.

Indize honen arabera, 2023an +%4,4 hazi ziren EAEko soldatak, aurreko urtearekin alderatuta. Estatuan, berriz, +%2,4 hazi ziren.

LPIren bilakaera denbora-tarte zabalagoarekin aztertzen badugu (2008-2023 aldia), antzeko bilakaera ikusten dugu EAEn eta Estatuan. Dena den, EAEn kasuan, aldi horretan metatutako hazkundea +%22koa izan zen eta, Estatuaren kasuan, +%15,9koa baino ez.

3.10. GRAFIKOA

LPI. BILAKAERA 2008-2022. EAE ETA ESTATUA



Iturria: EIN.

ONDORIOAK

- BJaren arabera, 2025ean 16 urte edo gehiagoko biztanleak 16.800 hazi ziren aurreko urtearen aldean (+%0,9). Hazkunde horrek ez zuen biztanleria aktiboaren hazkunde handia ekarri, 2.200 pertsonatan hazi baitzen; izan ere, hazkunde horren zatirik handiena biztanleria ez-aktiboaren hazkundeak (+14.600 pertsona) hartu zuen.
- Biztanleria landuna 12.500 pertsonatan hazi zen, eta 1.005.200era iritsi zen (maximo historikoa); langabetuak, berriz, 10.300 pertsonatan jaitsi ziren 2024tik. Bestalde, soldatapeko enplegua 18.800 pertsonatan igo da, eta soldatarik gabekoa 6.300 pertsonatan jaitsi.
- Behin-behinekotasun-tasa %18,4koa izan zen 2025ean; puntu bat jaitsi zen aurreko ekitaldiaren aldean, eta hamabi puntu baino gehiago hazi 2019koaren aldean.
- Langabezia-tasa %6,4ra jaitsi zen 2025ean, eta 2008ko ekitaldira arte egin behar dugu atzera langabezia-tasa txikiagoa aurkitzeko (%3,8).
- Emakumeek gizonak baino langabezia-tasa handiagoa izaten jarraitu zuten: %6,8 eta %6,1, hurrenez hurren.
- 2025ean, sinatutako kontratu mugagabeen bolumena %1,8 hazi zen, eta aldi baterakoena %1.
- 2025eko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliazioa (hileko batez bestekoa) %1,2 hazi zen, aurreko urtearen aldean, 1.036.804 pertsonaraino, eta, hala, maximo historiko berria ezarri zen.
- Bestalde, 2025ean lanbide arteko gutxieneko soldata %4,4 hazi zen, eta 1.184 eurora iritsi zen.
- EAEko langile bakoitzeko lan-kostua, guztira, 3.660 eurokoa izan zen 2025ean; %3,9 hazi zen aurreko urtearen aldean.
- Madrilen (3.846 euro) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (3.660 euro) erregistratu dira langile bakoitzeko batez besteko lan-kostu handienak.

4

**LAN
HARREMANAK**

4.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA¹⁴

4.1.1. SARRERA

Atal honetan EAEko negoziazio kolektiboaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira. Lehenik eta behin, hitzarmen-mota horien eraginpeko langileak aztertuko ditugu, eta, ondoren, EAEko negoziazio kolektiboaren egitura aztertuko dugu.

Ondoren, aurreko urteetan bezala, negoziazioak 2025ean izandako dinamika eta emaitzarik esanguratsuenak aztertuko ditugu. Halaber, indarrean dauden hitzarmenak negoziatu eta sinatu dituzten erakundeei buruzko informazioa eskainiko dugu, eta azken zatian hitzarmen kolektiboen inaplikazioak aztertuko ditugu.

Bi urterik behin, Lan Harremanen Kontseiluak negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratzen du; hau da, EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboen multzoa identifikatzen du, eta hitzarmen horiek zenbat langileri eragiten dieten zehazten du. Horretarako, gure Erkidegoko Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuak hartzen dira abiapuntuko datu gisa.

Bada, txosten honetan jasotako datuak prestatzeko, 2023an egindako azterlanaren emaitzak erabili ditugu, eta hileroko eguneratu ditugu hitzarmenen unibertsoa eta eraginpeko langileak, argitaratutako enpresa-hitzarmenetatik eskuratutako informazioarekin.

4.1.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO AKORDIOEN ERAGINPEKO LANGILEEN EZAUGARRIAK

Lehenik eta behin, argi utzi behar da negoziazio kolektiboko akordioak sina ditzaketen langileen artean ez daudela enplegatu publikoak, haien lan-baldintzak ez baitira hitzarmen kolektibo bidez finkatzen.

Hala ere, negoziazio kolektiboko akordioen eraginpean dauden herritarren artean sartu ditugu sozietate publikoetan lan egiten duten eta unereren batean enpresa-hitzarmen bat sinatu duten lan-kontratudun langile publikoak.

Arestian azaldutako guztia kontuan hartuta, EAEn negoziazio kolektiboko akordioen bidez beren lan-baldintzak ezartzeko gai diren langileak ia 700.000 izango lirateke.

Hala ere, horietako batzuk bakarrik egon dira hitzarmen-mota horien babespean noizbait. Izan ere, jarduera batzuetako lan-baldintzak ez dira inoiz egon hitzarmen kolektiboen bidez erregulatuta.

Bada, 48.000 langile inguru egongo lirateke talde horretan, hau da, soldatapekoen %7 inguru (enplegatu publikoak alde batera utzita, aipatu dugun moduan), eta negoziazio kolektiboaren eraginpeko kolektiboa, gainerako %93a, 651.289 langile ingurukoa da.

¹⁴ Lan Harremanen Kontseilua (LHK) da atal honetako informazio-iturria.

Hitzarmen bidez arautu gabeko jarduerak 48.000 langile inguru biltzen dituzte, gehienak emakumeak, eta gehienak etxeko langileak dira, guztizkoaren ia %60

Hitzarmen bidez arautzen ez diren lanbideen artean askotariko jarduerak ditugu. Kasu askotan, zerbitzuen sektoreari lotuta daude, eta gehienbat emakumeek egiten dituzten. Horien artean, etxeko langileak¹⁵ dira gehienak (28.000 pertsona inguru), baina badira osasun-sektorearen barruko lanbideak ere (adibidez, kontsulta medikoetakoak); askotan, hitzarmen bidez erregulatu gabeko jardueraren bat duten enpresa txikietan lan egiten dute horiek.

Lurraldeka aztertuta, negozioazio kolektiboko hitzarmenen bidez erregulatu gabeko jardueretan lan egiten duten 48.000 langile inguru horietatik, 9.024 Arabakoak dira, 25.533 Bizkaikoak eta 13.745 Gipuzkoakoak¹⁶. Hortaz, Araban gainerako lurraldeetan baino garrantzi erlatibo handiagoa dute, bertan guztira dauden langileak kontuan hartuta.

Puntu honetara iritsita, gogorarazi behar da, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, Araban ez zela inoiz hitzarmenik sinatu, ez bulegoen sektorerako, ez merkataritzarako oro har, eta, beraz, eremu horietako langileen zati handi batek ez ditu inoiz lan-baldintzak hitzarmen kolektibo baten bidez erregulatuta izan.

Erregulatu gabeko jardueren osaera sexuaren arabera aztertuz gero, jarduera horietan lan egiten duten emakumeen kopurua gizonena baino askoz handiagoa dela ikusiko dugu; izan ere, hitzarmen bidez erregulatu gabeko jardueretan lan egiten duten pertsonen %79,5 emakumeak dira. Aldiz, negozioazio kolektiboaren eraginpeko soldatapekoen artean oreka handiagoa dago bi sexuen artean, nahiz eta gizonak gehiengoa izan (%55,5 gizonak. eta %44,5 emakumeak, hurrenez hurren).

Etxeko lanak egiten dituzten pertsona ia guztiak emakumeak izateaz gain, gehitu behar da zerbitzuen sektoreko jarduera askok ez dutela inoiz beren jarduera hitzarmen kolektibo baten bidez erregulatu (kontsulta medikoak, administrari eta laguntzaileen jarduera batzuk, etab.), eta horietan langile gehienak emakumeak direla.

¹⁵ Jarduera horretan lan egiten duten ia pertsona guztiak emakumeak dira.

¹⁶ 2023ko Negoziazio Kolektiboaren Egituraren Azterlanean oinarrituta eskuratutako datuak.

4.1 TAULA**HITZARMENEN BIDEZ ERREGULATU GABEKO LANBIDEETAN LAN EGITEN DUTEN EAE-KO SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, JARDUERAREN ARABERA***

Etxeko langileak	%58,0
Kontsulta medikoak eta osasun-jarduerak	%15,5
Administrazio-zerbitzuak	%6,0
Nekazaritza eta arrantza	%6,0
Kultura eta kirola	%3,8
Gainerako jarduerak	%10,7
GUZTIRA	%100,0

* Administrazio publikoetako langileak eta funtzionarioak alde batera utzita.

2023ko Negoziazio Kolektiboaren Egituraren azterketan oinarrituta eskuratutako ehunekoak.

4.1.3. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Aipatu dugun moduan, Negoziazio Kolektiboaren Egituraren gaineko azken azterketako datuen arabera, EAEko negoziazio kolektiboak 651.289 pertsonari eragiten die guztira.

Jarraian, negoziazio kolektiboaren ezaugarri nagusiak, eremu funtzionalak eta hitzarmen kolektiboen egoera azalduko ditugu.

Izan ere, 2012ko lan-erreformak, hitzarmenen aurreraeragina esaten zaiona aldatu zuen, besteak beste. Hala, hitzarmen kolektiboa salatu eta urtebete igarotzen bada hitzarmen berririk adostu gabe, hitzarmenak indarraldia galduko du, kontrako akordiorik ez bada, eta iraungitzat joko da; eta goragoko mailako hitzarmen kolektibo aplikagarria aplikatuko da, halakorik badago.

Hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe dituzten langileak: Haien hitzarmena iraungi ondoren, aurrekoa ordezkatzeko duen hitzarmen berririk edo babestuko dituen goragoko hitzarmenik ez duten pertsonak.


Hala, helburu estatistikoetarako, haien hitzarmena iraungita duten, aurrekoa ordezkatzeko duen hitzarmen berririk ez duten eta babestuko dituen goragoko hitzarmenik ez duten langileei, bai urteko txosten honetan, bai LHKren argitalpenetan, beren hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe dituen langileria deitu diegu.

Pertsona horiek hitzarmen baten babespean zeudenez, egokitzen jo da gure azterketan sartzen jarraitzea, besteak beste, aipatutako erreforma aplikatzearen ondorioz gaur egun hitzarmen baten estaldurarik gabe dauden langileen kopurua handia delako, eta hitzarmen horiek etorkizunean berritzeko aukera dagoelako.

Hitzarmenak indarrean dituzten langileak: Hitzarmenean bertan zehaztutako indarraldi arruntaren barruan dagoen hitzarmen kolektibo batek babestutako langileak.

EAEko langile gehienek (%71) gure Erkidegoan negoziatzen dituzte haien hitzarmenak

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA 2025EAN EAE-N (ERAGINPEKO LANGILEAK)



Indarraldi luzatua duten hitzarmenen eraginpeko langileak: Talde honen barruan sartzen dira indarraldi arrunta amaitu ondoren salatu ez diren hitzarmenen eraginpeko pertsonak eta salaketa jaso ondoren luzapen-egoeran dauden hitzarmenen (aurreraeragineko hitzarmenak) eraginpeko langileak.


NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA

EAEko negoziazio kolektiboak egiturazko ezaugarri hauek ditu:

- EAEko negoziazio kolektiboaren zatirik handiena sektore pribatuari dagokio (eragindako pertsonen % 95,5).
- Barne hartzen ditu honako hauek: EAEn negoziatutako eta erregistratutako hitzarmenak; gure Erkidegoan hitzarmen espezifikorik ez duten edo hitzarmena iraungita duten sektoreetan eragina duten Estatu-mailako hitzarmen sektorialak; eta EAEn ere lantokiak dituzten enpresen hitzarmenak. Dena den, negoziazio kolektiboko hitzarmenen eraginpeko pertsona gehienek EAEn bertan negoziatzen dituzte hitzarmenak; zehazki, %71k.
- Langile gehienek sektoreko hitzarmenen babesak dute. Hala ere, lurralde-eremu bakoitzean sektoreko eta enpresako negoziazio kolektiboaren garrantzia desberdina da. Horrela, Bizkaian eta Gipuzkoan negoziazio sektoriala nagusitzen da argi eta garbi, eta Araban, negoziazio sektoriala gehiengoa den arren, garrantzi handia du enpresa-mailan garatutakoak.
- 2025eko abenduaren 31n, hitzarmenen gainbeherak eragindako pertsonak, goragoko eremuko hitzarmen baten estaldurarik gabe, negoziazio kolektiboko akordioen eraginpeko soldatapekoen %4,5 dira, eta ia guztiak sektore pribatuko langileak dira; lehen EAEn negoziatutako sektore-hitzarmenen eraginpean zeudenak, eta, akordio horiek bertan behera geratu ondoren, ez dutenak lekurik aurkitu goragoko beste hitzarmen batean.

4.2. GRAFIKOA

NEGOIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA. EREMU FUNTZIONALAK (ERAGINPEKO LANGILEAK)




2023ko Negoiazio Kolektiboaren Egiturari buruzko Azterlanean oinarritutako datuak, 2025eko abenduan eguneratuak.

Negoiazio kolektiboak 651.289 langileri eragiten die; horietatik %55,6 gizonak dira, eta % 44,4 emakumeak

Negoiazio kolektiboko hitzarmenen eraginpeko langileak sexuaren arabera banatuta, %55,6 gizonak dira (361.515 langile), eta gainerako %44,5ak emakumeak

(289.774 langile). Ehuneko horiek ez dira ia aldatu azken urteetan.

4.3. GRAFIKOA
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO HITZARMENEN ERAGINPEKO SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA (2025/12/31)



Negoiazio kolektiboa garatzen den lurralde-eremu guztietan gizonak dira gehienak, lurralde arteko eremuan izan ezik. Arabako lurralde historikoa nabarmentzen da, negoziazio kolektiboaren eraginpeko gizonak emakumeak halako bi baitira ia, 4.2 taulan ikus daitekeen bezala. Izan ere, hitzarmen kolektibo guztiek (indarrean, luzatuta eta iraungita daudenak) eragindako langileen kopurua jasotzen du taulak.

4.2. TAULA
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO HITZARMENEN ERAGINPEKO PERTSONEN BANAKETA, SEXUAREN ETA LURRALDE EREMUAREN ARABERA (2025/12/31)

	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
EAE, guztira	361.515	289.774	651.289	%55,5	%44,5
EAEn erregistratuak	261.809	201.036	462.845	%56,6	%43,4
Araba	41.087	22.640	63.727	%64,5	%35,5
Bizkaia	119.197	85.615	204.812	%58,2	%41,8
Gipuzkoa	86.940	61.806	148.746	%58,4	%41,6
Lurralde artekoak	14.585	30.975	45.560	%32,0	%68,0
Estatu-mailakoak	99.706	88.738	188.444	%52,9	%47,1

Lurralde arteko eremuan handia da emakumeen ehunekoa, negozioazio-eremu horren barruan oso feminizatuta dauden jarduerak daudelako, gehienak zerbitzuen sektorekoak; hala nola, ikastetxeetako jangeletako zerbitzua, irakaskuntzakoak (gizarte-ekimenekoak eta ikastolak) edo Hezkuntza Saileko eta Osakidetzako garbiketa-kontratetakoak, eremu horretan emakumeen presentzia askoz handiagoa baita.

Aurreko urtearekin alderatuta, 2025ean zertxobait jaitsi zen hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe zituzten langileen kopurua (29.398 langile)

Jarraian, bakoitza bere aldetik, aplika daitezkeen hitzarmenak eta iraungitako hitzarmenak aztertuko ditugu.

4.3. TAULA

EAE-N APLIKA DAITEZKEEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK 2025EAN ETA HORIEN ERAGINPEKO LANGILEAK (2025/12/31)

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK
EAE, guztira	1.211	166.572	206	455.319	1.417	621.891
EAEn erregistratuak	975	124.121	90	310.157	1.065	434.278
Araba	179	23.907	21	36.163	200	60.070
Bizkaia	447	47.763	29	144.517	476	192.280
Gipuzkoa	313	35.703	31	100.665	344	136.368
Lurralde artekoak	36	16.748	9	28.812	45	45.560
Estatu-mailakoak	236	42.451	116	145.162	352	187.613

EAEn aplika daitezkeen hitzarmenen kopurua eta horien eraginpeko langileak jasotzen ditu 4.3. taulak. Barne hartzen ditu 2025ean zehar ohiko indarraldian dauden hitzarmenak eta luzapen-egoeran eta aurreraeraginean daudenak, hau da, berritzeko daudenak. Era berean, barne hartzen ditu sektoreko edo enpresako hitzarmena iraungita, goragoko hitzarmen sektorial baten (Estatukoa, lurralde-mailakoa edo lurralde artekoa) babesa duten langileak. Izan ere, aplikatzen zitzairen hitzarmena iraungi ondoren, hitzarmen berri horren eraginpean daude.

4.4. TAULA**EAE-N IRAUNGITA DAUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HORIEN ERAGINPEKO LANGILEAK (2025/12/31)**

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK
EAE, guztira	3	79	19	29.319	22	29.398
EAEn erregistratuak	3	79	16	28.488	19	28.567
Araba	1	27	2	3.630	3	3.657
Bizkaia	0	0	8	12.532	8	12.532
Gipuzkoa	2	52	6	12.326	8	12.378
Lurralde artekoak	0	0	0	0	0	0
Estatu-mailakoak	0	0	3	831	3	831

2012ko Lan Erreformaren ondorioz hitzarmenak iraungita dituen langilekopurua zehazten da 4.4. taulan. Kolektibo horren barruan sartuko lirateke, hitzarmena iraungi ondoren, aurrekoa ordeztuko duen beste hitzarmenik edo aplikagarri zaien goragoko eremuko hitzarmenik ez dutenak.

4.1.4. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2025. URTEAN

Ekitaldiaren amaieran, hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen arren, 2025a amaitzean, egoera azken urteetako onenetakoa izan zen: soldatapekoen %63,8, hitzarmenak indarrean zituztela, eta soldatapekoen %4,5, hitzarmenak iraungita zituztela


2025a amaitzean, langileen %63,8k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (indarraldi betean), eta %31,7k luzapen-egoeran zituzten. Beren hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa aurreko ekitaldikoa (%67,7) baino txikiagoa izan bazen ere, 2025. urtea ixtean egoera azken urteetako onenetakoa izan zela adierazi behar da, hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoa handia izan baitzen, eta hitzarmenak iraungita zituzten soldatapekoen ehunekoa %4,5era jaitsi baitzen.

2025. urtearen hasieran aurreko urtekoa baino txikiagoa zen hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoa. Urtean zehar, soldatapekoen %19,8ri eragiten zieten hitzarmenak sinatu ziren, eta, horri esker, ekitaldia amaitu ahal izan zen, lehen esan bezala, langileen % 63,8k bere hitzarmenak eguneratuta zituztela.


Sexuaren araberako banaketari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta, jaitsi egin da hitzarmenak indarrean dituzten gizonen ehunekoa (%68,0koa 2025ean, eta %71,4koa 2024an), bai eta hitzarmenak eguneratuta dituzten emakumeena ere (%63,0koa 2024an eta %58,6koa 2025ean).

4.4. GRAFIKOA


NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N 2025EAN



4.5. GRAFIKOA

EAE-KO LANGILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, SEXUAREN ETA HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA
(DATUAK 2025/12/31n)

4.6. GRAFIKOA

EAE-KO LANGILEEN BANAKETA EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA
(URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31KO DATUAK)

4.5. TAULA**2025. URTEAN ERREGISTRATU ZITUZTEN ETA EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HORIEN ERAGINPEKO LANGILEAK**

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK
EAEn, guztira	225	27.078	32	101.572	257	128.650
EAEn erregistratuak	175	22.752	10	51.026	185	73.778
Araba	34	3.049	5	5.012	39	8.061
Bizkaia	69	9.144	3	37.011	72	46.155
Gipuzkoa	66	6.336	2	9.003	68	15.339
Lurralde artekoak	6	4.223	0	0	6	4.223
Estatu-mailakoak	50	4.326	22	50.546	72	54.872

2025ean zehar 257 hitzarmen erregistratu ziren. Hala, 128.650 langileren lan-baldintzak berritu ziren. EAEren eremuan 185 hitzarmen erregistratu ziren, sektoreko 10 eta enpresako 175, eta guztira 73.778 langileri eman zieten estaldura. EAEn eragina duten estatu-mailako 72 hitzarmen erregistratu ziren (sektoreko 22 eta enpresako 50), eta 54.872 langileri eragin zieten.

4.5. taulan, 2025ean erregistratutako hitzarmen kolektiboen kopurua adierazten da, bai eta hitzarmen horien eraginpeko langile-kopurua ere.

4.6. TAULA**2025EAN EAE-N INDARRALDI ARRUNTEAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HORIEK ERAGINPEKO LANGILEAK (2025/12/31)**

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK
EAEn, guztira	661	97.430	122	318.145	783	415.575
EAEn erregistratuak	521	69.620	47	219.234	568	288.854
Araba	117	17.736	9	20.121	126	37.857
Bizkaia	228	28.641	15	106.344	243	134.985
Gipuzkoa	166	18.759	21	88.435	187	107.194
Lurralde artekoak	10	4.484	2	4.334	12	8.818
Estatu-mailakoak	140	27.810	75	98.911	215	126.721

2025. urtearen amaieran, 783 hitzarmen zeuden indarraldi arruntean, hau da, negoziatzaileek adostutako aplikazio-aldi arruntaren barruan, eta 415.575 langileri eragiten zieten (4.6 taula). 2024an, ekitaldiaren amaieran, 799 hitzarmen zeuden indarrean eta 436.652 langileri eragiten zieten.

4.7. TAULA**INDARRALDIA LUZATUTA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HORIEN ERAGINPEKO LANGILEAK
(2025/12/31)**

	ENPRESAKOAK		SEKTOREKOAK		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO LANGILEAK
EAEn, guztira	550	69.142	84	137.174	634	206.316
EAEn erregistratuak	454	54.501	43	90.923	497	145.424
Araba	62	6.171	12	16.042	74	22.213
Bizkaia	219	19.122	14	38.173	233	57.295
Gipuzkoa	147	16.944	10	12.230	157	29.174
Lurralde artekoak	26	12.264	7	24.478	33	36.742
Estatu-mailakoak	96	14.641	41	46.251	137	60.892

Indarraldia luzatuta duten eta aurreraeraginean dauden (eta, hortaz, berritzeko zain dauden) hitzarmenen kopurua adierazten da 4.7 taulan, bai eta hitzarmen horiek aplikatzen zaizkien langileen kopurua ere. 2025aren amaieran 206.316 langile zeuden egoera horretan; horietatik 145.424 langilek EAEn barruan negoziatu zituzten haien hitzarmenak, eta 60.892 langile, berriz, estatu-mailako negoziazioaren eraginpean zeuden.

Hitzarmena iraungita duten langileei dagokienez (%4,5), 2012ko lan-erreforma indarrean sartu zenetik izandako baxuena da hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe dituzten langileen ehunekoa. Izan ere, 2020an jaisten hasi zen kopurua, 2022an Arabako Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena sinatu zuten, 2023an Gipuzkoako Sukaldaritza arloko Enpresen Hitzarmena eta Bizkaiko Merkataritza Orokorreko Hitzarmena sinatu zituzten, 2024an Arabako Elikagaien Merkataritzako hitzarmena erregistratu zuten, eta 2025ean enpresa-hitzarmen berri batzuk sinatu dira.


Dena den, aurreko txostenetan jada aipatu denez, 29.398 langilek oraindik ere hitzarmena berreskuratu gabe jarraitzen dute, eta ez dute babesten dituen goragoko beste hitzarmenik. Kasu askotan, egoerak urte dezente daramatza aldatu gabe. Iraungitako hitzarmenen artean, honako hauek nabarmendu behar dira, duten garrantziagatik: Bizkaian, bulegoetako hitzarmena; Gipuzkoan, bulegoetako hitzarmena eta errepide bidezko garraioarena; eta, Araban, metalaren salerosketarena.

**BILAKAERA, EREMU FUNTZIONALAREN ARABERA:
ENPRESAKOAK/SEKTOREKOAK**

Langileen %74,4 sektoreko negoziazioaren mende daude haien lan-baldintzak zehazteko, eta gainerako %25,6ak, berriz, enpresa barruan negoziatzen ditu hitzarmenak

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago 2025aren amaieran langileen %74,4 (484.638 pertsona) negoziazio sektorialaren mende zeudela haien lan-baldintzak zehazteko, hitzarmenak iraungita zituzten langileak barne hartuta; gainerako %25,6ak (166.651 langile), berriz, enpresa-mailan negoziatzen zituzten hitzarmenak. Ehuneko horiek eta aurreko urteetakoak oso antzekoak dira.

4.7. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N, EREMU FUNTZIONALEAN ARABERA. ENPRESAKOAK ETA SEKTOREKOAK

Negoiazio kolektiboak eremu funtzionalen arabera (enpresakoak/sektorekoak) izan duen bilakaeraren azterketak erakusten duenez, 2025a amaitzean, enpresako hitzarmenek estalitako langileen %58,5ek eta sektoreko langileen %65,6k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak.

Enpresa-hitzarmenen kasuan, horrek esan nahi du 4,1 puntuko beherakada izan dela 2024ko itxierako egoerarekin alderatuta, hitzarmenak indarrean zituzten langileak %62,6 baitziren; eta 3,7 puntuko beherakada sektoreko hitzarmenen kasuan, %69,3 baitziren 2024aren amaieran.

Halaber, adierazi behar da oraindik ere sektoreko hitzarmenen eremukoak direla

hitzarmenak iraungita dituzten langile gehienak. Aldiz, enpresa-hitzarmenen eremu funtzionalaren barruan hitzarmenak iraungita dituzten pertsonen ehunekoa baxua da; izan ere, eremu horretan negoziazioa oso dinamikoa da, eta kasu gehienetan enpresa-hitzarmenak iraungita dituzten langileek estaldura ematen dieten sektoreko hitzarmenak dituzte (lurralde- edo estatuko-mailakoak).

Kopurua murriztu bada ere, sektore-eremukoak dira hitzarmena iraungita duten ia langile guztiak

Oro har, eta ondorio gisa, esan daiteke, eremu funtzionalen arabera, sektoreko hitzarmenek babesten dituztela langile gehienak; izan ere, 4 langiletik 3k (%73,2) sektoreko hitzarmenek babestuta dituzte hitzarmenak indarrean edo luzatuta (4.3. taula).

BILAKAERA, LURRALDE EREMUAREN ARABERA


Negoiazio kolektiboaren bilakaera aztertzeko orduan EAEn negoziatutako hitzarmenak eta gure Erkidegoan eragina duten estatu-mailako hitzarmenak alderatuz gero, ikus dezakegu 2012ko lan-erreforma indarrean sartu zenetik 2018ra arte estatu-mailako hitzarmenak gailentzen zitzaizkiela EAEn negoziatutakoe. Izan ere, berritu ez zelako hitzarmena galdu zuten soldatapeko langile asko estatu-mailako hitzarmen baten eraginpean geratu ziren.

Hala ere, egoera hori lehengoratzen hasi zen, 2019tik aurrera EAEko zenbait hitzarmen sektorial berreskuratu baitziren, aurrez iraungita zeudenak. 2024an, Gipuzkoako Metalaren Merkataritzaren eta Arabako Elikaduraren Merkataritzaren Hitzarmena sinatuta, gure negoziazio-esparru propioak berreskuratzeko prozesuak aurrera jarraitzen du.

2025ean, EAEn negoziatutako hitzarmenek (indarrean daudenak eta luzatutakoak) babestutako langileak ia 6.000 gehiago ziren aurreko urtekoak baino (434.278 ziren, guztira), eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenek eragindako enplegua 395 pertsonatan soilik hazi zen (ekitaldiaren amaieran 187.613 langile ziren).

4.8. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERAGINPEKO PERTSONEN BILAKAERA EAE-N (ABENDUAREN 31KO DATUAK)





2025ean aurrera jarraitu zuen negoziazio kolektiboko gure eremu propioen errekupeazioak (2019an hasi zen)

Eremu horiek 2025ean izan duten bilakaerari dagokionez, EAE-n negoziatutako hitzarmenek eta a EAE-n eragina duten estatu-mailako hitzarmenek ekitaldiaren hasieran eta amaieran zuten egoera ikus daiteke 4.9 grafikoan.

Berriz ere, negoziazio kolektiboak hazkunde handiagoa izan du estatu-mailan. Bertan, gainera, hitzarmenak berrituta zituzten pertsonen ehunekoa txikiagoa zen.

Bada, 2025ean zehar, Estatuko eremuaren eraginpeko langileen %29,8k berritu zituzten hitzarmenak; EAE-n negoziatutako hitzarmenen eraginpeko langileei dagokienez, ordea, %15,7k berritu zituzten akordioak.

Horren guztiaren ondorioz, ekitaldiaren amaieran Estatuan hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen kopurua (%67,2) handiagoa zen EAEkoa (%62,4) baino, nahiz eta 2025ean aldeak murriztu egin diren; izan ere, 2024an, urtearen amaieran EAE-n negoziatutako hitzarmenak indarrean zituzten pertsonen ehunekoa %64,9koa zen, eta EAE-n eragina zuten estatu-mailakoena, berriz, %74,4koa.

4.9. GRAFIKOA**2025/01/01EAN ETA 2025/12/31N HITZARMENAK INDARREAN, LUZATUTA EDO IRAUNGITA DITUZTEN LANGILEAK, EREMUAREN ARABERA**

Jarraian, lurralde eremu bakoitzeko negoziazio kolektiboaren egoera laburtzen da¹⁷. Kapitulu honen amaierako eranskinean sektoreko hitzarmenen zerrenda bat topa daiteke, baita 2025eko abenduaren 31n zuten egoera ere.

Araba

Arabaren, ekitaldiaren amaieran, langileen %59,4k indarrean zuten hitzarmen kolektiboa, eta urtearen hasieran ehunekoa %46,7koa zen.

Lurralde-eremu honetan, sektoreko 5 hitzarmen erregistratu dira, eta, guztira, 5.012 langileri ematen diete estaldura; horien artean, Eraikuntzarena nabarmendu behar da, 3.000 langile baino gehiagorekin. Eta 34 enpresa-hitzarmen ere erregistratu dira Araban, 3.000 langile baino gehixeagori eragiten dietenak.

Bizkaia

Bizkaiari dagokionez, urtearen amaieran langileen %65,9k eguneratuta zituzten hitzarmenak. Lurralde-eremu horretan 69 enpresa-hitzarmen erregistratu zituzten, 9.144 langileri eragiten dietenak, eta sektoreko 3 hitzarmen, 37.000 langile baino gehiago babesten dituztenak. Honakoak nabarmentzen dira, langileen bolumen handia dutelako: Ostalaritzakoa eta Eraikuntzakoa.

Aurreko aldietan bezala, urtea amaitzean iraungita zeuden sektoreko hitzarmenen artean, daukan garrantziagatik, Bulego eta Despatxuena aipatzen jarraitu behar dugu.

Gipuzkoa

Bestalde, Gipuzkoako lurralde historikoak 2025. urtea hasi zuen hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehuneko handienarekin (%62,1), eta urtearen amaieran %72,1 ziren hitzarmena indarrean zutenak (aztertutako lurraldeetako ehunekorik altuena). 2025ean zehar 66 enpresa-hitzarmen erregistratu ziren, 6.336 langileri baino gehiagori estaldura eman zietenak, eta sektoreko 2 hitzarmen (Ostatuena eta Eraikuntzakoa), 9.000 langile baino gehixeago babestu zituztenak.

Lurralde honetan iraungitako hitzarmenei dagokionez, nabarmentzekoa da berriz ere Bulego eta Despatxuen Hitzarmena, langile askori eragiten baitie.

EAEko lurralde arteko eremua

Lurralde arteko negoziazioari dagokionez, urtearen hasieran inoizko altuena zen hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa, %10,4koa hain zuzen, eta ekitaldia aztertutako esparruen ehuneko txikienarekin amaitu da (%19,4).

Eremu honetan, 6 enpresa-hitzarmen erregistratu ziren, 4.223 langileri baino gehiagori estaldura eman zietenak, eta ez zen sektoreko hitzarmenik erregistratu.

Luzapen-egoeran dauden sektoreko hitzarmenen artean, EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen eta Ikastolen Hitzarmen Kolektiboak dira

¹⁷ Lurralde historiko bakoitzeko (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eraginpeko biztanle-kopurua kalkulatzeko, lurralde horietako bakoitzean erregistratutako hitzarmenen eraginpeko langileak bakarrik hartu ditugu kontuan. Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan lan egiten duten eta lurralde arteko hitzarmen batek edo estatu-mailako hitzarmen batek eragiten dieten langileak bi eremu horietako batean sartu ditugu.

azpimarratzekoak, guztira 18.000 langile baino gehiago hartzen baitituzte euren baitan. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da lurralde-eremu honetan ez dagoela inor bere hitzarmena iraungita daukanik.

EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak

EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez, ekitaldiaren amaieran %67,3ra iritsi zen beren hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa.

2025ean zehar sektoreko 22 hitzarmen eta 50 enpresa-hitzarmen sinatu zituzten. Horiek 50.546 eta 4.326 langileri eragin zieten, hurrenez hurren.

Eremu honetan erregistratutako hitzarmenen artean, Industria Kimikoarena, "Consultorías y Estudios de Mercado" delakoa eta "Recuperación y Reciclado de Residuos y Materias Primas Secundarias" delakoa azpimarratu behar dira.

4.10 GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2025EAN EAE-N, LURRALDE EREMUAREN ARABERA



- Hitzarmenak iraungita dituzten eta babesten dituen goragoko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak 2025ean luzatuta eta berritzeko zain dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa

4.1.5. NEGOZIAZIOAREN EMAITZAK 2025EAN

NEGOIAZIO PROZESUEN IRAUPENA

Txosten honen aurrez egin izan dugun moduan, negoziazio-mahaia eratzen den egunaren eta erregistratutako hitzarmen kolektiboa sinatzen den egunaren arteko tarte hartu dugu negoziazio-prozesuaren iraupentzat.

Atal honetan ematen diren prozesuen batez besteko iraupena ez da batez besteko haztatua¹⁸; batezbesteko aritmetiko sinple bat da (Σ hitzarmen-egun/hitzarmen-kopuru bakoitzeko), hau da, hori kalkulatzeko ez da kontuan hartzen hitzarmen bakoitzeko pertsona-kopurua, eta berdin haztatzen dira hitzarmen guztiak, akordio horietako bakoitzak babesten dituen langileen kopurua edozein dela ere.

Irizpide horietan oinarrituta, EAEn negoziatutako hitzarmenetan eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan prozesu horiek izan iraupenari buruzko informazioa eskaintzen dugu.

4.8. TAULA

EAE-N INDARREAN DAUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN* NEGOIAZIO PROZESUEN IRAUPENA 2025EAN (BATEZ BESTEKO EGUN KOPURUA)

	2025EAN INDARREAN, GUZTIRA
Guztira	364
Sektorekoak	548
Enpresakoak	330

*EAEn eragina duten estatu-mailakoak barne. Abenduaren 31ko datuak.

EAEn 2025ean indarrean zeuden hitzarmenen negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena 364 egunekoa izan zen, eta alde nabarmena dago sektorekoen (548 egun) eta enpresakoen (330 egun) artean.

EAEn negoziatutako hitzarmenena 353 egunekoa izan zen. Bestalde, indarrean dauden eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenen batez besteko iraupena handiagoa izan zen, eta 391 egunera iritsi zen.

Hala ere, negoziazio-prozesu luzeenak EAEn negoziatutako sektore-hitzarmenetan gertatzen dira, eta horien batez besteko iraupena, 2025ean, bi urtetik gorakoa da (778 egun). Gure Erkidegoan eragina duten sektoreko estatu-hitzarmenen kasuan, iraupena txikiagoa izan zen, 403 egunekoa.

4.9. TAULA

EAE-N NEGOIATU DIREN HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOIAZIO-PROZESUEN IRAUPENA 2025EAN (BATEZ BESTEKO EGUN KOPURUA)

	URTE HONETAN ERREGISTRATUAK		URTE HONETAN INDARREAN	
	2024	2025	2024	2025
Guztira	352	355	330	353
Sektorekoak	453	670	648	778
Enpresakoak	339	337	294	315

Abenduaren 31ko datuak.

¹⁸ Soldata-igoeren eta lanaldiaren kasuan bai, batez besteko haztatua da.

2025ean erregistratutako eta EAEn negoziatutako hitzarmenek, 355 eguneko iraupena izan zuten batez beste, eta Estatuan erregistratutakoek, berriz, 392 egunekoa.


EAEn negoziatutako hitzarmen sektorialen negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena 2025ean handitu egin zen, eta 778 egunekoa izan zen

Adierazi behar da EAEko sektorekako negoziazio-prozesuen iraupenak handia izaten jarraitzen duela (4.11. grafikoa), eta 2025ean gora egin duela aurreko urtearekin alderatuta; 2010aren aurreko urteetako 300 egun inguruko batez bestekotik oso urrun daude oraindik.

EAEn negoziatutako sektoreko hitzarmenen negoziazio-prozesuen iraupena enpresa-hitzarmenak negoziatzeko erabilitako denbora baino askoz luzeagoa da oraindik ere (778 egun vs. 315 egun)

4.11. GRAFIKOA

EAE-N SINATUTA ETA INDARREAN DAUDEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOTIAZIO-PROZESUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA URTE BAKOITZEAN



4.10. TAULA**ESTATUAN NEGOZIATU DIREN ETA EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOZIAZIO PROZESUEN IRAUPENA (BATEZ BESTEKO EGUN KOPURUA)**

	URTE HONETAN ERREGISTRATUAK		URTE HONETAN INDARREAN	
	2024	2025	2024	2025
Guztira	342	392	376	391
Sektorekoak	406	375	423	403
Enpresakoak	296	400	349	384

Abenduaren 31ko datuak.

Azkenik, adierazi behar da, indarrean dauden estatu-mailako hitzarmen sektorialetan sektoreko akordioak negoziatzeko erabilitako denboraren iraupena gure Erkidegoan negoziatutako hitzarmen sektorialetan erabilitakoa baino askoz ere laburragoa bada ere, enpresa-hitzarmenen kasuan kontrako egoera ikusten dugula, akordio horiek EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan negoziatzeko erabilitako denbora handiagoa baita.

HITZARMENEN DENBORA EREMUA***Soldatapeko langile ia guztiek (%96,6) hiru urterako edo gehiagorako hitzarmenak negoziatzen dituzte***

Indarrean dauden hitzarmen gehienak hainbat urtetarako negoziatzen dira oraindik ere, eta hitzarmen-mota horien eraginpeko langileen ehunekoa igo egin da aurreko urtearekin alderatuta.

Bada, 2025ean, hitzarmena indarrean zuten langileen %0,8 babesten zuten urtebeteko indarraldia zuten hitzarmenek; urtebete eta bi urte bitarteko indarraldia zuten hitzarmenek, langileen %2,6; eta hiru urte edo gehiagoko indarraldia zuten hitzarmenek, langileen %96,6.

2024an, ehuneko horiek %3,6, %3,3 eta %93,1ekoak ziren, hurrenez hurren.

Beraz, 2025ean, hitzarmenen %96,7k eta langileen %99,2k urtebetetik gorako indarraldiarekin negoziatu zituzten beren hitzarmenak.

Izan ere, 4.10. eta 4.11. tauletan ikus daitekeenez, lurralde- eta funtzio-eremu (enpresa/sektorea) guztietan gailentzen dira urte anitzetarako hitzarmen kolektiboak.

Eta, 4.12 grafikoan ikus daitekeenez, duela hogeita bost urte baino gehiagotik hona nagusi da hiru urterako edo gehiagorako sinatutako hitzarmenen kopurua. 2011 eta 2014 urteen artean, hiru urte edo gehiagorako hitzarmenen pisuak pixka bat behera egin zuen, eta bi urteko eta urtebeteko indarraldia zuten hitzarmenak ugartu egin ziren. 2015etik aurrera, berriz ere handitu zen hiru urte edo gehiagorako hitzarmenen pisua, eta serie historikoaren maximoa eskuratu zuten 2025ean.

4.11. TAULA**2025EAN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUA, LURRALDE EREMUAREN ARABERA***

	URTEBETE		URTE BAT ETA BI ARTEAN		HIRU URTE EDO GEHIAGO	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKOAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKOAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKOAK
EAE, guztira	%3,3	%0,8	%8,4	%2,6	%88,3	%96,6
EAEn erregistratuak	%2,8	%0,3	%7,6	%2,2	%89,6	%97,5
Araba	%4,0	%0,7	%4,0	%1,8	%92,1	%97,5
Bizkaia	%2,9	%0,3	%10,7	%1,9	%86,4	%97,7
Gipuzkoa	%2,1	%0,1	%5,9	%0,7	%92,0	%99,2
Lurralde artekoak	%0,0	%0,0	%8,3	%25,3	%91,7	%74,7
Estatu-mailakoak	%4,7	%1,8	%10,7	%3,7	%84,7	%94,5

(*) 2025/12/31ra arte. Lurralde-eremu bakoitzaren guztizkoaren gaineko ehunekoak.

4.12. TAULA**2025EAN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUA, FUNTZIO EREMUAREN ARABERA***

	URTEBETE		URTE BAT ETA BI ARTEAN		HIRU URTE EDO GEHIAGO	
	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKOAK (%)	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKOAK (%)	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKOAK (%)
Guztira	%3,3	%0,8	%8,4	%2,6	%88,3	%96,6
Sektorekoak	%3,3	%0,7	%5,7	%1,3	%91,0	%98,0
Enpresakoak	%3,3	%1,0	%8,9	%7,0	%87,7	%92,0

(*) 2025/12/31ra arte. Funtzio-eremu bakoitzaren guztizkoaren gaineko ehunekoak.


Bestalde, Gipuzkoan indarraldi mugagabeko hiru sektoreko hitzarmen kolektibo daude: Paperaren Fabrikaziokoa, Eraikuntzakoa eta Arte Grafikoetakoa. Hitzarmen horietan, zenbait alderdi, hala nola soldata-igoera eta lanaldia, urtero negoziatzen dira, baina ez dira aldatzen beste alderdi batzuk, hala nola lanbide-sailkapena, zirog-erregimena, etab.

Beraz, hitzarmen horiei dagokienez, eta txosten honen ondorioetarako, hitzarmenaren indarraldia gai nagusietarako (soldata-igoera eta lanaldia) adostutako aldiaren arabera hartu da kontuan.

4.12. GRAFIKOA

EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUAREN BILAKAERA

(URTE BAKOITZEAN INDARREAN DAUDEN HITZARMEN GUZTIEN GAINeko %)



2026aren hasieran, langileen %56,3k beren hitzarmenak luzatuta eta berritzeko zain edo iraungita zeuzkaten

Azken urteetan hitzarmenak hainbat urtetarako negoziatzen direnez, ekitaldi bakoitzaren hasieran urte horretako negoziazio kolektiboaren zati bat eginda egoten da dagoeneko.

Hala, 2026ko urtarrilaren 1ean, luzatuta eta berritzeko zain edo iraungita zeuden 916 hitzarmen. Horiek langileen %56,3ri eragiten diete (380.374 pertsona).

2025aren hasieran, langileen %56k zituzten hitzarmenak luzatuta edo iraungita; eta, 2024aren hasieran, %63,1k.

2026an jada indarrean dauden hitzarmenak (hainbat urtetarako indarraldia) 480 dira eta 295.454 langileri eragiten diete. 2025aren hasieran 526 hitzarmen zeuden indarrean, 283.903 langileri eragiten zietenak.

EAEn garatzen den negoziazioari dagokionez, 2026. urtearen hasieran 193.029 langilek zuten haien hitzarmena luzatuta edo iraungita (lurralde-eremu horretako langileen %40,4k). Aldiz, estatu-mailako hitzarmenen eraginpeko langileen %51,7k zeukaten hitzarmena berritzeko zain edo iraungita (102.425 langile).

Funtzio-eremuen arabera, 2026aren hasieran sektoreko negoziazioan sektoreko hitzarmenen eraginpeko langileen % 45ek zeuzkaten hitzarmenak eguneratuta, eta enpresaren esparruan, berriz, eraginpeko langileen %39,8k hitzarmenak jada negoziatuta zeuzkaten 2026aren hasieran.


SOLDATA IGOERAK

2025ean %3,32koa izan zen EAEn adostutako batez besteko soldata-igoera, eta %3,53koa Estatu osoan¹⁹

EAEn 2025ean indarrean dauden hitzarmenetan (EAEn eragina duten estatu-mailakoak barne) adostutako batez besteko soldata-igoera %3,32koa izan zen, Estatuko hitzarmen kolektiboetan adostutako batez besteko soldata-igoera (% 3,53koa) baino 0,21 puntu txikiagoa²⁰.

4.13 GRAFIKOA

INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK. EAE/ESTATUA²⁰



Iturria: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

Gure Erkidegoan eragina duten hitzarmenen batez besteko igoera %3,32koa izan zen, eta aurreko urtean bezala, Gipuzkoako lurralde historikoan negoziatutako hitzarmenena da hazkunderik handiena, 2025erako batez besteko igoera %3,68koa izan baitzen; ondoren, EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak daude, %3,57ko igoerarekin; aldiz, hazkunde txikienak lurralde arteko eremuan negoziatutakoetan (%2,01) eta Araban (%2,53) daude.

Orokorrean, gure Erkidegoan negoziatutako hitzarmenetako batez besteko igoera %3,32koa izan zen.

Funtzio-eremuen arabera, adierazi behar da soldata-igoerak zertxobait handiagoak izan zirela sektoreko hitzarmenetan (%3,37) enpresakoetan baino (%3,16), 4.14. grafikoan ikus daitekeen bezala.

¹⁹ Estatu osorako hitzartutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak 2026ko urtarrilaren 31n emandako informazioaren arabera.

LHKk erabilitako kalkulu-metodoa ez dator bat Ministerioak erabilitakoarekin.


4.13. TAULA
2024RAKO ETA 2025ERAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK*



	SOLDATA IGOERA (aurreko urtearekiko %)	
	2024	2025
EAE, guztira	3,35	3,32
EAEn negoziatutakoak	3,51	3,21
Araba	3,45	2,53
Bizkaia	3,21	3,09
Gipuzkoa	4,01	3,68
Lurralde artekoak	2,31	2,01
Estatu-mailakoak**	2,98	3,57

* Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.
**EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako soldata-igoerak.

Soldata-igoeren bilakaera baloratzeko, 4.16. grafikoan EAEko azken urteetan abenduan izandako urte arteko inflazioa adierazten da, baita gure Erkidegoko KPIaren urteko batez besteko igoera ere. 2025ean, hitzarmenetan adostutako batez besteko hazkundea (%3,32koa) zertxobait handiagoa izan zen EAEko 2025eko abenduko urte arteko inflazioa (%2,9koa) baino, eta handiagoa, halaber, urte osoan erregistratutako batez besteko inflazioa baino (%3,0koa EAEn).

4.14. GRAFIKOA
EAE-N INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK.
ENPRESAKOAK/SEKTOREKOAK



4.15. GRAFIKOA**EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA****4.16. GRAFIKOA****EAE. KPI-AREN URTE ARTEKO IGOERAK ABENDUAN ETA KPI-AREN BATEZ BESTEKO IGOERA URTE BAKOITZEAN**

2025ean, hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera (%3,32) handiagoa zen EAEko abenduako urte arteko inflazioa baino (%2,9).

2025ean erregistratutako hitzarmenen batez besteko soldata-igoerari dagokionez, %3,40koa izan zen; sektoreko hitzarmenen kasuan %3,53koa; eta enpresa-hitzarmenen kasuan, %2,92koa.

4.14. TAULA

2025EAN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOERAK*

	SOLDATA IGOERA 2025
EAE, guztira	%3,40
EAEn negoziatutakoak	%3,11
Araba	%3,16
Bizkaia	%3,01
Gipuzkoa	%3,87
Lurralde artekoak	%1,33
Estatu-mailakoak	%3,80

*2025eko abenduaren 31 arte erregistratutako hitzarmenak.

4.15. TAULA

EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA (*)

	NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO SOLDATA IGOERAK		
	Erreferentziako urtea baino lehenago erregistratutako hitzarmenetan	Erreferentziako urtean erregistratutako hitzarmenetan	Indarrean dauden hitzarmen guztietan
2010	2,36	1,80	2,12
2011	3,50	2,70	3,16
2012	2,67	1,24	2,18
2013	1,33	0,76	0,93
2014	0,73	0,47	0,65
2015	0,58	0,68	0,62
2016	0,98	1,05	1,01
2017	1,32	1,68	1,48
2018	1,45	2,15	1,86
2019	1,88	2,25	2,00
2020	1,76	2,25	2,00
2021	1,29	2,25	2,00
2022	4,08	4,08	4,08
2023	3,64	4,66	4,22
2024	3,27	3,61	3,35
2025	3,28	3,40	3,32

(*) Urte bakoitzeko abenduaren 31 arte erregistratutako hitzarmenak.

2025ean erregistratutako hitzarmenetan 2025erako aurreikusitako batez besteko igoera (%3,40) handiagoa da aurreko urteetan erregistratutako hitzarmenetan urte bererako aurreikusitakoa (%3,28) baino

Era berean, nabarmentzekoa da 2025ean bertan erregistratutako hitzarmenetako batez besteko soldata-igoera (%3,40) aurretik erregistratutakoena baino handiagoa izan zela, izan ere, 2025erako %3,28ko igoera aurreikusten zuten.

Azkenik, adierazi behar da duela urte batzuetatik hona gero eta gehiago direla enpresa-helburuak betetzeak baldintzatutako berrikuspen-klausulak, eta horiek zein ondorio dituzten ezin dugu zehatz jakin; eta, bestalde, geri eta gutxiago dira KPIaren bilakaerari soilik erreferentzia egiten dioten soldata-bermearen klausula konbentzionalak.

LANALDIA

2025erako itundutako batez besteko lanaldia 1.700 ordukoa izan zen EAEn aplikatzekoak diren eta indarrean dauden hitzarmenetan, eta 1.750 ordukoa Estatuko hitzarmenetan

4.16. TAULA

2025EAN INDARREAN ZEUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO LANALDIAREN IRAUPENA (URTEKO ORDU KOPURUA) EAE-N ETA ESTATUAN

	2025	
	EAE	ESTATUA (*)
Guztira	1.700	1.750
Sektorekoak	1.709	1.752
Enpresakoak	1.673	1.721

(*) Ministerioak 2025eko urtarilaren 1ean emandako informazioa.
Iturriak: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

2025ean indarrean zeuden eta baldintzak eguneratuta zituzten hitzarmenetan EAErako adostutako batez besteko lanaldia 1.700 ordukoa izan zen, eta Estatutako hitzartutako batez besteko lanaldia, berriz, 1.750 ordukoa izan zen.

Sektoreko hitzarmenetan, 2025ean EAErako adostutako besteko lanaldia 1.709 ordukoa izan da, eta enpresa-hitzarmenetan adostutakoa, aldiz, 1.673 ordukoa (4.16. taula). Estatuan, 2025ean adostutako batez besteko lanaldia 1.752 da sektoreko hitzarmenetan, eta 1.721 ordukoa enpresako hitzarmenetan.

EAEn aplikatzekoak diren hitzarmenei dagokienez (4.17. taula), aurreko urteetan bezala, alde handiak daude parean jarritz gero, batetik, EAEn negoziatutako hitzarmenetan adostutako batez besteko lanaldia (1.693 ordu) eta Estatuan erregistratu eta EAEn eragina dutenetan adostutakoa (1.718 ordu).

4.17. TAULA
EAE. INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN 2025EAN ADOSTUTAKO
LANALDIAREN IRAUPENA (URTEKO ORDU KOPURUA)

	2025	
	EAEen negoziatutakoak	Estatu-mailakoak, EAEen eragina dutenak
Guztira	1.693	1.718
Sektorekoak	1.702	1.724
Enpresakoak	1.663	1.699

Iturria: LHK.

EAEen indarrean zeuden eta bertan negoziatu ziren hitzarmenen artean, 2025ean murriztu egin zen, aurreko urtearekin konparatuta, bai lanaldia murriztu zuten langileen kopurua, bai murrizketaren zenbatekoa

EAEen negoziatu ziren eta 2025ean indarrean zeuden hitzarmen guztien artetik, %18,8tan lanaldiaren murrizketa aurreikusten zen aurreko urtearekiko (4.18. taula), eta hitzarmenak indarrean zituzten langileen %18,5i eragin zien horrek.

Aurreko urtearekin alderatuta, handitu egin zen lanaldia murriztutako hitzarmenen kopurua; ez, ordea, eraginpeko langileena. Eta txikiagoa izan zen, halaber, murrizketaren zenbatekoa.

4.18. TAULA
LANALDIA MURRIZTUTA DUTEN INDARREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN EHUNEKOA, AURREKO
URTEAREKIKO, ETA ERAGINDAKO LANGILEENA, GUZTIZKOAREKIKO*

	2023		2024		2025	
	Hitzarmenen %	Eraginpeko langileen %	Hitzarmenen %	Eraginpeko langileen %	Hitzarmenen %	Eraginpeko langileen %
EAEen negoziatutako hitzarmenak	%9,5	%12,6	%15,9	%33,9	%18,8	%18,5

Langileen ehunekoa indarreko hitzarmenak dituzten pertsonen guztizkoaren gainean kalkulatzen da.

2025ean, lanaldi-murrizketaren zenbatekoa 62 minutukoa izan zen (1,04 ordu), eta 2024an, berriz, ordu eta 10 minutukoa (1,17 ordu).

4.19. TAULA
HITZARTUTAKO LANALDI MURRIZKETA. URTEKO ORDU KOPURUA

	2023KO LANALDIA, 2022KOAREKIKO	2024KO LANALDIA, 2023KOAREKIKO	2025EKO LANALDIA, 2024KOAREKIKO
EAEen negoziatutako hitzarmenak	0,65	1,17	1,04

4.1.6. 2025EAN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATU ETA SINATU ZITUZTEN ERAKUNDEAK

Erakunde sindikalak

CCOOk eta UGTk jarraitzen dute hitzarmen gehien sinatzen dituzten sindikatuak izaten, negoziazio-mahaietan duten presentzia kontuan hartuta

Jarraian, erakunde sindikalek negoziazio-mahaietan eta EAEn negoziatutako hitzarmenen (2025ean indarraldi arruntean zeudenak) sinaduran duten presentziari buruzko informazioa agertzen da.


Hortaz, atal honetako analisitik kanpo utzi ditugu EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak, eta EAEn negoziatutako enpresa- eta sektore-akordioak bakarrik hartu dira kontuan.

Hirugarren atalean aztertutako datuen arabera, gure Erkidegoan erregistratu diren eta 2025erako indarrean dauden hitzarmenak (luzapen-egoeran daudenak eta iraungitakoak kontuan hartu gabe) 568 dira, eta 288.854 langileri eragiten diete. Horietatik 47 sektoreko akordioak ziren, 219.234 lanpostu eraginpean hartuta, eta gainerakoak, enpresa-hitzarmenak.

Bada, 4.17 (hitzarmen-kopurua) eta 4.18 (langile-kopurua) grafikoetan, ordezkaritza handiena zuten lau sindikatuak 2025ean indarrean zeuden hitzarmenetan izan zuten presentzia eta sinadurak alderatzen dira.

4.17. GRAFIKOA


INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN* ORDEZKARITZA HANDIENA DUTEN SINDIKATUEK IZAN ZUTEN PRESENTZIA ETA SINADURAK (HITZARMEN KOPURUA)



*EAEn negoziatutako hitzarmenak, 2025ean indarraldi arruntean zeudenak.

4.18. GRAFIKOA

INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN* ORDEZKARITZA HANDIENA DUTEN SINDIKATUEK IZAN ZUTEN PRESENTZIA ETA SINADURAK (ERAGINPEKO LANGILEAK)



*EAEn negoziatutako hitzarmenak, 2025ean indarraldi arruntan zeudenak.

ELA

ELA 431 hitzarmenen negoziazio-mahaietan egon zen, 2025ean indarrean zeuden hitzarmen guztien %75,9 dena; eta hitzarmenon eraginpean zeuden EAEn negoziatutako hitzarmenak indarrean zituzten langileen %97,1.

Gure Erkidegoan erregistratutako 47 hitzarmen sektorialetako 46ren negoziazio-mahaietan eta 385 enpresa-hitzarmenen negoziazioan parte hartu zuen.

Sinadurari dagokionez, 359 akordio sinatu zituen, indarrean dauden hitzarmen guztien %63,2 (2024an %64,3 ziren), eta horien eraginpean zeuden indarreko hitzarmenak zituzten langileen %58,4 (2024an %49,1 ziren).

Sinatutako sektoreko hitzarmenei dagokionez, 46 hitzarmenetan egon zen negoziazio-mahaian, eta 22tan parte hartu zuen sinaduran. Sinatutako akordiook EAEn negoziatutako sektoreko hitzarmenak indarrean zituzten langileen %57 babesten dituzte.

Sinatutako enpresa-hitzarmenei dagokionez, ELAk 337 enpresa-hitzarmen sinatu zituen, indarreko enpresa-hitzarmen guztien %64,7. Horien eraginpean daude EAEn negoziatutako enpresa-hitzarmenak indarrean zituzten langile guztien %63,1.

LAB

LABek 248 akordioen negoziazioan parte hartu zuen, 2025ean indarrean zeuden hitzarmen guztien %43,6 dena; eta hitzarmenon eraginpean zeuden EAEn negoziatutako hitzarmenak indarrean zituzten langileen %90,5.

Gure Erkidegoan erregistratutako 47 hitzarmen sektorialetako 45en negoziazio-mahaietan eta 203 enpresa-hitzarmenetan parte hartu zuen.

Guztira, 203 akordio sinatu zituen, indarrean dauden hitzarmen guztien %35,7 (2024an %34,7 ziren), eta horien eraginpean zeuden indarreko hitzarmenak

zituzten langileen %48,2 (2024an %54,4 ziren).

Sinatutako sektoreko hitzarmenei dagokienez, 45 hitzarmenetan egon zen negoziazio-mahaian, eta 24tan parte hartu zuen sinaduran. Sinatutako akordio hauen eraginpean daude EAEn negoziatutako sektoreko hitzarmenak indarrean zituzten langileen %49,1.

Sinatutako enpresa-hitzarmenei dagokienez, LABek 179 enpresa-hitzarmen sinatu zituen, indarreko enpresa-hitzarmen guztien %34,4. Horien eraginpean daude EAEn negoziatutako enpresa-hitzarmenak indarrean zituzten langile guztien %45,3.

Euskadiko CCOO

CCOO 194 hitzarmenen negoziazio-mahaietan egon zen, 2025ean indarrean zeuden hitzarmen guztien %34,2 dena; eta hitzarmenon eraginpean zeuden EAEn negoziatutako hitzarmenak indarrean zituzten langileen %88,1.

Gure Erkidegoan erregistratutako 47 hitzarmen sektorialetako 43ren negoziazio-mahaietan eta 151 enpresa-hitzarmenetan parte hartu zuen.

2025ean 178 hitzarmen sinatu zituen (gutzizkoaren %31,3), hitzarmenak indarrean zituzten soldatapekoen %71,7ri eragin zietenak; 2024an, aldiz, orduan indarrean zeuden akordioen %29,1 sinatu zituen, langileen %68,3ri eman zietenak estaldura.

Sinatutako sektoreko hitzarmenei dagokienez, 43 hitzarmenetan egon zen negoziazio-mahaian, eta 39tan parte hartu zuen sinaduran. Sinatutako akordiook EAEn negoziatutako sektoreko hitzarmenak indarrean zituzten langileen %80,7 langile babesten dituzte.

Sinatutako enpresa-hitzarmenei dagokienez, CCOOk 139 enpresa-hitzarmen sinatu zituen, indarreko enpresa-hitzarmen guztien %26,7. Horien eraginpean daude EAEn negoziatutako enpresa-hitzarmenak indarrean zituzten langile guztien %43,4.

UGT-Euskadi

UGTk 162 akordioaren negoziazioan parte hartu zuen, 2025ean indarrean zeuden hitzarmen guztien %28,5 dena; eta hitzarmenon eraginpean zeuden EAEn negoziatutako hitzarmenak indarrean zituzten langileen %84,2.

Gure Erkidegoan erregistratutako 47 hitzarmen sektorialetako 40ren negoziazio-mahaietan eta 122 enpresa-hitzarmenetan parte hartu zuen.

Sinatutako hitzarmenei dagokienez, 144 akordio sinatu zituen, indarrean dauden hitzarmen guztien %25,4 (2024an %25,3 ziren), eta horien eraginpean zeuden indarreko hitzarmenak zituzten langileen %74,2 (2024an %77,7 ziren).

Sinatutako sektoreko hitzarmenei dagokienez, 40 hitzarmenetan egon zen negoziazio-mahaian, eta 30etan parte hartu zuen sinaduran. Sinatutako akordiook EAEn negoziatutako sektoreko hitzarmenak indarrean zituzten langileen %85 babesten dituzte.

Sinatutako enpresa-hitzarmenei dagokienez, UGTk 114 enpresa-hitzarmen sinatu zituen, indarreko enpresa-hitzarmen guztien %21,9. Horien eraginpean daude EAEn negoziatutako mota horretako hitzarmenak indarrean zituzten langile guztien %40,1.

Datu horiek guztiak eskuan, honako hau ondoriozta daiteke:

-ELA da enpresa-hitzaumen gehien sinatzen dituen sindikatua, indarrean dauden enpresa-hitzaumen guztien %64,7 sinatu baitzituen, eta sektoreko hitzaumen gutxien sinatu dituen sindikatua da (indarrean dauden sektoreko hitzaumen guztien %46,8 sinatu zuen).

-Euskadiko CCOO da, alde handiz, sektoreko hitzaumen gehien sinatu zituen sindikatua: indarrean zeuden hitzaumenen %83 sinatu zituen.

-UGT sindikatuak sinatu ditu enpresa-hitzaumen gutxien. Izan ere, 2025ean indarrean zeuden enpresa-hitzaumenen %21,9ren sinaduran soilik egon zen.

-Negoiazio-mahaian duten presentzia aintzat hartuta hitzaumen gehien sinatzen dituzten sindikatuak aztertzen baldin baditugu, ikusiko dugu CCOOk mahaian presentzia izan zuen hitzaumenen %91,7 sinatu zituela, UGT-Euskadik %88,8, ELAk %83,3 eta LABek %81,8 (4.17. Grafikoa).

-Kalkulu hori bera egiten badugu EAEn negoziatutako sektoreko hitzaumenak soilik kontuan hartuta, egiaztatzen dugu Euskadiko CCOOk mahaian egon zen hitzaumenen %90,6 sinatu zuela (negoiazio-mahaian egon zen 43 akordiotatik 39), UGT-Euskadik %75 (40tik 30), LABek %53,3 (45etik 25) eta ELAk %47,8 (46tik 22).

4.20. TAULA

ORDEZKARI SINDIKALEN PARTAIDETZA 2025EAN EAE-N ERREGISTRATUTAKO INDARREKO HITZARMENEN SINADURAN*

	ELA	LAB	CCOO	UGT	USO	ESK	Beste batzuk	S. gabeak **
Guztira								
Hitzaumen-kopurua	359	203	178	144	19	31	38	41
Indarreko hitzaumen guztien gaineko %	%63,2	%35,7	31,3%	%25,4	%3,3	%5,5	%6,7	%7,2
Eraginpeko langileak	168.820	139.086	207.061	214.132	3.737	9.028	17.947	7.469
Indarreko hitzaumen guztien gaineko %	%58,4	%48,2	%71,7	%74,2	%2,5	%3,2	%5,0	%2,6
Sektorea								
Hitzaumen-kopurua	22	24	39	31	0	1	2	0
Indarreko hitzaumen guztien gaineko %	%46,8	%51,1	%83,0	%66,0	%0,0	%2,1	%4,3	%0,0
Eraginpeko langileak	124.923	109.636	176.871	186.248	0	3.156	78	0
Indarreko hitzaumen guztien gaineko %	%57,0	%49,1	%80,7	%85,0	%0,0	%1,4	%0,0	%0,0
Enpresa								
Hitzaumen-kopurua	337	179	139	114	19	30	36	41
Indarreko hitzaumen guztien gaineko %	%64,7	%34,4	%26,7	%21,9	%3,6	%5,8	%6,9	%7,9
Eraginpeko langileak	43.897	31.524	30.190	27.884	3.737	5.872	17.869	7.469
Indarreko hitzaumen guztien gaineko %	%63,1	%45,3	%43,4	%40,1	%5,4	%8,4	%25,7	%10,7

(*) 2025/12/31 arte.

(**) Sindikatu gabeak.

ENPRESA-ERAKUNDEAK

Confebaskeko erakundeek (CEBEK, ADEGI eta SEA) sinatutako hitzarmenak EAEn 2025ean indarrean zeuden sektoreko hitzarmenen %53,2 dira, eta eremu horretako langileen %65,3ri eragiten diete

2025ean indarrean zeuden eta EAEn erregistratu zituzten sektore-hitzarmen kolektiboetatik eskuratutako informaziotik, eta enpresa-erakunde sinatzaileei lotuta (4.21. taulan agertzen da lurralde-eremuaren arabera banakatuta), ondorio hauek atera daitezke.

-Lehenik eta behin, 2025ean indarrean zeuden 47 sektore-hitzarmenen artetik, 5 elkarrekin sinatu zituzten Confebask osatzen duten erakundeetako batek (SEA, ADEGI edo CEBEK) eta beste enpresa-erakundeetako ordezkariak.

-Araban, lurralde horretan indarrean zeuden 9 sektore-hitzarmenetatik 6 sinatu zituen SEA erakundeak, eta aipatutako eremuko langileen %92,4 zeuden horien eraginpean. Beste enpresa-erakunde batzuek beste 3 sektore-hitzarmen sinatu zituzten Araban, eta horiek 1.521 langileri eman zieten estaldura (eraginpeko langileen %7,6ri).

-Bizkaiari dagokionez, 2025ean lurralde horretan indarrean zeuden 15 sektore-hitzarmenetatik 8ren sinaduran parte hartu zuen CEBEKek, eta horien eraginpean zeuden eremu horretako langileen %58,8. Beste erakunde batzuek sektoreko beste 8 hitzarmen sinatu zituzten (horietako bat CEBEKekin batera), eta eremu horretako hitzarmenen eraginpeko langileen %34,8ren lan-harremanak erregulatu zituzten.

4.21. TAULA

2025EAN EAE-N ERREGISTRATUTAKO INDARREKO SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN ENPRESA-ERAKUNDE SINATZAILEAK

	CONFEBASK (*)		BESTE ERAKUNDE BATZUK	
	Eraginpeko langileak	Hitzarmenak	Eraginpeko langileak	Hitzarmenak
EAE, guztira	25	143.196	27	86.178
Araba	6	18.600	3	1.521
Bizkaia	8	62.541	8	36.970
Gipuzkoa	10	59.485	15	45.923
Lurralde artekoak	1	2.570	1	1.764

(*) Lurralde-mailako hiru erakunde-kidez osatuta: ADEGI (Gipuzkoa), CEBEK (Bizkaia) eta SEA (Araba).

-Gipuzkoan, indarreko 21 sektore-hitzarmenetatik 10 sinatu zituen ADEGI erakundeak. Horiek sektoreko hitzarmenen eraginpeko langileen %67,3ri eragiten diete. Beste erakunde batzuek 15 sektore-hitzarmen sinatu zituzten (horietako 4 ADEGIekin batera), eta eraginpeko langileen %51,9ren lan-baldintzak arautu zituzten.

-Lurralde arteko eremuan, sektoreko 2 hitzarmen sinatu ziren, eta bakarrean parte hartu zuen CONFEBASKek: 2.570 langile daude azken horren eraginpean (lurralde-eremu honetako langileen %59,3).

-2024an EAEn indarrean zeuden sektore-hitzarmenen %53,2 sinatu zituzten Confebasken baitako erakundeek (CEBEK, ADEGI eta SEA), eta horien eraginpean daude eremu horretako langileen %65,3. Bestalde, 47 sektore-hitzarmenetatik 27 sinatu zituzten beste enpresa-erakunde batzuek, eta hitzarmen horien eraginpeko langileen %39,3ri eragiten zieten. Horien artean, ostalaritza-sektoreko eta garraio-sektoreko patronalak nabarmentzen dira, duten garrantziagatik.

4.19. GRAFIKOA

ENPRESA-ERAKUNDEEN PARTAIDETZA 2025EAN ERREGISTRATUTAKO INDARREKO SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN SINADURAN



4.1.7. HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK²⁰ EAE-N

2025ean zehar, 5 inaplikazio gordailutu ziren EAEn²¹, 2024an baino bat gutxiago, eta eraginpeko 65 langile izan ziren guztira, aurreko urtean baino hamaika gehiago, orduan 54 langileri eragin zieten inaplikazioak aurkeztu baitziren.

Berriro aipatu behar da oso txikia dela oraindik ere gordailututako inaplikazioen eta eraginpeko langileen kopurua, kontuan hartuta 2025aren amaieran hitzarmenak indarrean (indarraldi betean eta aurreraeraginean) zituzten langileak ia 622.000 zirela.

Inaplikazio guztietan lortu zen alderdien arteko akordioa; hiru kasutan kontsulta-epean, eta bi kasutan batzorde paritarioan.

Aurkeztu diren inaplikazioen kopuruak (5 guztira 2025ean) zein EAEko kaltetuenak (65 langile) oso txikia izaten jarraitzen du, kontuan hartzen badugu zenbat langilek dituzten hitzarmenak indarrean

Sektorearen arabera, zerbitzuen sektoreko enpresek 2 inaplikazio aurkeztu zituzten, eta horiek 18 langileri eragin zieten; industria-sektoreko enpresek 2 inaplikazio aurkeztu zituzten, 40 langileri eragin zietenak; eta eraikuntza-sektoreak inaplikazio bakar bat aurkeztu zuen, 7 langileri eragin ziena. EAEko lehen sektoreko enpresek ez zuten inaplikazio bakar bat ere aurkeztu.

Halaber, 2025ean ere ez zioten inaplikazio-eskaerarik aurkeztu ORPRICCEri, Estatutuaren araberrako Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoari.

Soldataren zenbatekoa da oraindik ere inaplikazioen arrazoi nagusia

Inaplikazioen arrazoiei dagokienez, eskusiboki soldataren zenbatekoarekin lotuta egon ziren 5 inaplikaziotik 3. Gainerako bi inaplikazioetako batean ordainketa-sistema eta soldata-zenbatekoa izan ziren arrazoiak, eta bestean, berriz, borondatezko hobekuntzak.


Aurkeztutako inaplikazio guztiak Gipuzkoako Lan Agintaritzan aurkeztu zituzten; ez zen inaplikaziorik aurkeztu gainerako lurraldeetan.

²⁰ 2012ko lan-erreformak aukera ematen die enpresei aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lan-baldintza jakin batzuk enpresan ez aplikatzeko, arrazoi ekonomikoak, arrazoi teknikoak, antolaketako arrazoiak edo ekoizpenarekin lotutako arrazoiak daudenean, eta enpresaren eta langileen ordezkarien arteko adostasuna badago. Adostasun batera heldu hezean, hitzarmenaren batzordearen esku utz liteke desakordioa. Batzorde horrek esku hartzen ez badu edo akordio batera heltzen ez badira, alderdiek Precora jo beharko dute. Precok akordio eza konpontzen ez badu, alderdietako edozeinek ORPRICCEren esku utz dezake konponbidea; haren egoitza LHKn dago.

²¹ Informazioa REGCONena da, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren Hitzarmen Kolektiboan, Lan Akordio Kolektiboan eta Berdintasun Planen Erregistroarena.

4.20. GRAFIKOA

EAE. INAPLIKAZIOEN ERAGINPEKO LANGILEAK



4.1.8. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA SEKTORE PUBLIKOAN

Sektore publikoan lan egiten duten langileen soldata %2,5 igo zen 2025ean, batez beste

Abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretuak, sektore publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituenak, honako hau ezartzen du 1. artikuluan (hitzez hitz gaztelaniaz):

“1. En el año 2025, las retribuciones del personal al servicio del sector público podrán experimentar un incremento global máximo del 2,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2024, incluido en estas últimas el incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento recogido en el artículo 6.2 del Real Decreto-ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social. Este incremento retributivo se considerará en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad de este y tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2025”.

Era berean, 2. artikuluan honako hau adierazten da:

“1. En el año 2026, las retribuciones del personal al servicio del sector público podrán experimentar un incremento global máximo del 1,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2025, incluido en estas últimas el incremento retributivo aprobado en este real decreto-ley. Este incremento retributivo se considerará en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad de este y tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2026.

2. Asimismo, con efectos de 1 de enero de 2026, se aplicará, en su caso, un incremento retributivo adicional y consolidable del 0,5 por ciento, respecto a las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2025, incluido en estas últimas el incremento retributivo aprobado en este real decreto-ley, si la variación del IPC en el año 2026 es igual o superior al 1,5 por ciento, que se abonará en el primer trimestre de 2027.

A estos efectos, una vez publicados por el Instituto Nacional de Estadística (INE) los datos del IPC del año 2026, se aprobará la aplicación de este incremento mediante Acuerdo del Consejo de Ministros, que se publicará en el BOE”.

Gure Erkidegoan, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren urtarrilaren 27ko 15/2026 Ebazpenaren bidez (2026ko otsailaren 2ko EHAA) argitaratu zen Gobernu Kontseiluaren Erabakia argitaratu zen. Erabaki horren bidez, %2,5eko ordainsari-igoera onartu zen 2025erako, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeuden urteko ordainsari osoekin alderatuta, norentzat eta Administrazio Orokorreko, erakunde autonomoetako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoetako langileentzat (lan-araubideari lotuta ez

daudenentzat), bai eta lehendakariarentzat, sailburuentzat, goi-kargudunentzat eta parekoentzat, eta baita behin-behineko langileentzat eta zuzendarientzat ere.

Tokiko administrazioaren kasuan, EUDELe eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuek tokiko administrazioako langileentzat 2008an sinatutako Lan Harremanetarako Esparru Akordio Orokorrak (Udalhitz) 2010eko abenduaren 31n galdu zuen indarraldia.

Hala ere, tokiko korporazioen eta haien mendeko erakundeen zerbitzura dauden langileei ere eragingo die sektore publikoaren zerbitzura dauden langile guztientzat ezarritako soldata-igoerak.

Bada, administrazio publikoetako langileen eta funtzionarioen urteko lanaldia 1.592 ordukoa izan zen 2025ean.

4.2. LANEKO GATAZKAK

4.2.1. LANEKO GREBAK EAE-N

Aurreko urtearekin alderatuta, 2025ean behera egin zuten greba-kopuruak, baina gora egin zuen eraginpeko langileen eta lan egin gabeko lanaldien kopuruak

2025ean zehar lan-arrazoiengatik 208 greba erregistratu ziren EAEn, eta 35.735 langilek parte hartu zuen horietan. Lan egin gabeko lanaldiak 163.857 izan ziren.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, grebak %20 murriztu ziren, baina gehiago izan ziren eraginpeko langileak (+%21,3) eta lan egin gabeko lanaldiak (+%57,4).

4.22. TAULA
LANEKO GREBAK (EAE)

	GREBAK	PARTAIDE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTAIDEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO
2012	278	21.600	130.930	78	471	48,5
2013	350	37.020	140.391	106	401	30,3
2014	236	17.126	56.648	73	240	26,5
2015	184	10.608	18.222	58	99	13,7
2016	164	13.735	58.157	84	355	33,9
2017	214	59.505	96.423	278	451	13,0
2018	264	48.696	110.838	184	420	18,2
2019	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3
2020	190	25.642	59.741	135	314	18,6
2021	248	14.848	140.775	60	568	75,8
2022	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7
2023	325	58.307	169.836	179	523	23,3
2024	260	29.451	104.083	113	400	28,3
2025	208	35.735	163.857	172	788	36,7


Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

Aipatu behar da 2025ean greba-deialdietan parte hartu zuten langile gehienek administrazioan lan egiten zutela. Zehazki, partaide guztien %75,7k sektore publikoan egiten zuen lan, eta sektore horretan lan egin gabeko lanaldiak guztizkoaren %74,7 izan ziren. Sektore-mailako gatazken artean, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoarena nabarmendu behar da, 2025ean 112.020 lanaldi galtzea eragin baitzituen.

Beraz, gatazkarik handienak sektore-eremuan gertatu ziren, izan ere, gatazka horiek lan egin gabeko lanaldi guztien %73,3 izan ziren.

4.21. GRAFIKOA

GREBETAN LAN EGIN GABEKO LANALDIAK, EREMUAREN ARABERA: PRIBATUA / PUBLIKOA (EAE, 2017-2025)




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

2025ean, greba-deialdietan parte hartu zuten pertsona guztien %75,7k sektore publikoan lan egiten zuten, eta sektore horretan lan egin gabeko lanaldiak guztien artean %74,7 izan ziren

4.22. GRAFIKOA

GREBETAN LAN EGIN GABEKO LANALDIAK, SEKTOREAREN ARABERA (EAE, 2017-2025)



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

4.23. TAULA**LANEKO GREBAK, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (EAE)**

		GREBAK	PARTAIDE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO
2021	Guztira	248	14.848	140.775	75,8
	Nekazaritza	0	0	0	--
	Industria	101	8.042	113.921	113,3
	Eraikuntza	13	544	2.946	43,3
	Zerbitzuak	134	6.262	23.908	30,5
2022	Guztira	342	106.998	384.459	28,7
	Nekazaritza	0	0	0	--
	Industria	95	82.013	306.608	29,9
	Eraikuntza	4	141	2.483	140,9
	Zerbitzuak	243	24.844	75.368	24,3
2023	Guztira	325	58.307	169.836	23,3
	Nekazaritza	1	12	10	6,7
	Industria	102	21.675	49.717	18,3
	Eraikuntza	9	10.100	31.428	24,9
	Zerbitzuak	213	26.520	88.681	26,8
2024	Guztira	260	29.451	104.083	28,3
	Nekazaritza	0	0	0	0
	Industria	77	5.839	27.292	37,4
	Eraikuntza	4	92	2.567	223,2
	Zerbitzuak	179	23.520	74.224	25,2
2025	Guztira	208	35.735	163.857	36,7
	Nekazaritza	0	0	0	0
	Industria	75	4.788	11.056	18,5
	Eraikuntza	4	44	615	111,8
	Zerbitzuak	129	30.903	152.186	39,4

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

Aurreko bi urteetan bezala, sektore-mailako gatazka gehienak zerbitzuen sektorean kontzentratu ziren. Zehazki, 2025ean hirugarren sektoreari lotuta egon ziren greben %62, partaideen %86,5 eta lan egin gabeko lanaldien %92,9. 2021ean eta 2022an, ordea, industriaren sektoreak bereganatu zituen lan egin gabeko lanaldi gehienak (lanaldi guztien %80,9 eta %79,8, hurrenez hurren). Eta 2022an eragin berezia izan zuen Bizkaiko industria siderometalurgikoaren gatazkak.

Azkenik, adierazi behar da negoziazio kolektiboko prozesuetatik eratorritako sektoreko greben deialdiak egoteak edo ez egoteak eragin handia duela, bai lan egin gabeko lanaldien kopuruan, bai horiek industrian edo zerbitzu-sektorean pilatzean. Hala, sektoreko gatazka horiek azal ditzakete egon diren urte arteko aldakuntzak.

4.24. TAULA**LANEKO GREBAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA**

		GREBAK	PARTAIDE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTAIDEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO	GREBA BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUNAK)
2017	EAE	214	59.505	96.423	278	451	13,0	8,1
	Araba	46	11.690	14.774	254	321	10,1	6,0
	Bizkaia	91	26.846	46.087	295	506	13,7	10,0
	Gipuzkoa	77	20.969	35.562	272	462	13,6	7,3
2018	EAE	264	48.696	110.838	184	420	18,2	10,6
	Araba	37	6.705	9.723	181	263	11,6	4,9
	Bizkaia	130	29.172	66.795	224	514	18,3	10,6
	Gipuzkoa	97	12.819	34.320	132	354	21,4	12,8
2019	EAE	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3	13,2
	Araba	52	3.469	9.922	67	191	22,9	5,7
	Bizkaia	119	72.579	345.686	610	2.905	38,1	9,7
	Gipuzkoa	137	3.812	36.222	28	264	76,0	19,0
2020	EAE	190	25.642	59.741	135	314	18,6	11,2
	Araba	41	6.090	9.079	149	221	11,9	4,4
	Bizkaia	58	12.348	30.167	213	520	19,5	15,4
	Gipuzkoa	91	7.204	20.495	79	225	22,8	11,5
2021	EAE	248	14.848	140.775	60	568	75,8	9,1
	Araba	32	2.578	96.718	81	3.022	300,1	14,5
	Bizkaia	153	10.409	39.087	68	255	30,0	9,8
	Gipuzkoa	63	1.861	4.970	30	79	21,4	4,7
2022	EAE	248	14.848	140.775	60	568	75,8	9,1
	Araba	32	2.578	96.718	81	3.022	300,1	14,5
	Bizkaia	153	10.409	39.087	68	255	30,0	9,8
	Gipuzkoa	63	1.861	4.970	30	79	21,4	4,7
2023	EAE	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7	14,7
	Araba	52	15.835	43.819	305	843	22,1	8,7
	Bizkaia	166	81.547	307.017	491	1.850	30,1	14,8
	Gipuzkoa	124	9.616	33.623	78	271	28,0	17,0
2024	EAE	260	29.451	104.083	113	400	28,3	10,0
	Araba	36	3.039	6.820	84	189	18,0	9,1
	Bizkaia	158	17.586	68.244	111	432	31,0	10,0
	Gipuzkoa	66	8.826	29.019	134	440	26,3	10,4
2025	EAE	208	35.735	163.857	172	788	36,7	10,3
	Araba	38	7.033	38.131	185	1.003	43,4	8,6
	Bizkaia	71	13.735	61.283	193	863	35,7	7,8
	Gipuzkoa	99	14.967	64.443	151	651	34,4	12,6

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

4.2.2. PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKAK

2025ean zehar, Lan Harremanen Kontseiluak PRECO akordioa (Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioa) kudeatzen jarraitu du, haren hiru lurralde-zerbitzuen bidez. 2000ko otsailaren 16an sinatu zuten akordioa (2000ko apirilaren 4ko EHAA, 66 ZK.) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duten konfederazio sindikal eta enpresarial guztiek.

Aurreko txostenetan bezala, lehenik eta behin, 2025ean zehar eskatutako prozeduren gaineko informazioa agertzen da. Gero, urte horretan bertan amaitutako prozedurei buruzko informazioa aurkeztuko dugu, eta horien kudeaketa eta emaitzak aztertuko ditugu.

2025ean %15,9 murriztu zen PRECOrri aurkeztutako eskaera-kopurua


2025ean 504 eskabide aurkeztu ziren PRECOr, hau da, aurreko urtean baino %15,9 gutxiago (2024an, 599 eskabide aurkeztu ziren). Lurraldeen arabera, gatazken kopuruak %3,12 egin zuen gora Gipuzkoan, baina %21 jaitsi zen Araban, eta %24,03 Bizkaian.

2011ko eta 2012ko lan-erreformen ondorengo urteetan, gatazka kolektiboen eskaerak nabarmen ugariatu ziren, eta 2013an goia jo zuten. Urte horretan, gatazka-kopurua 1.349ra arte igo zen; kasu askotan, enpresa askok euren langileei hitzarmen ugariaren aurreraeragina amaitu zela jakinarazteko egindako komunikazioen aurkako inpugnazio masiboaren ondorioz.

Harrezkero, egoera pixkanaka normaltasunera itzuli da, eta azken urteetan prozedurak 500etik gora izan dira.

4.23. GRAFIKOA

AURKEZTUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOKO ESKAERAK: 2007-2025



Iturria: LHK.


Aurkeztutako eskaera-kopuruak 2025ean behera egin badu ere, adierazi behar da 2012ko lan-erreformaren aurreko urteetako batez bestekoaren gainetik gaudela oraindik, 400 gatazka ingurukoa baitzen.

2025ean, gatazka kolektiboko eskaerek 854.335 langileri eragin zieten, eta 2024an, berriz, 151.532 langileri; %468,8ko igoera egon da, beraz. Igoera hori, hein handi batean, espediente bakar baten ondorioa izan zen: EAErako gutxieneko soldata baten gaineko lanbide arteko akordio bat sustatzeari buruzkoa, 665.000 langileri baino gehiagori eragin ziena.

Sektore ekonomikoei erreparatuta, adierazi behar da murriztu egin direla industrian aurkeztutako gatazkak (guztizkoaren %30 dira); eta, aldiz, hazi egin dira zerbitzuen sektorean aurkeztutakoak, izan ere, 2025ean aurkeztutako eskaera guztien %66,9 dira.

4.24. GRAFIKOA

PROZEDUREH BANAKETA (EHUNEKOTAN ADIERAZITA), SEKTORE EKONOMIKOEN ARABERA. 2007-2025



Iturria: LHK.

Hirugarren sektorean aurkeztutako gatazkak eskatutako prozedura guztien %66,9 izan ziren 2025ean

Aurreko txostenetan adierazi den bezala, 2006tik aurrera, industria-gatazkak pixkanaka jaisten hasi ziren, eta zerbitzu-sektorekoak, berriz, nabarmen ugartu ziren, neurri batean, gure produkzio-sarearen osaera aldatu zelako, non zerbitzuen sektorearen garrantzia gero eta handiagoa baitzen.

Gatazka-motak

Gatazka-motei dagokienez, erabat nagusi dira oraindik enpresaren erabaki edo praktiken ondoriozko gatazkak. Horietan, hainbat motatako enpresa-neurriak aurkaratzen dira, eta, beraz, enpresetako zuzendaritzaren antolamendu-ahalmenen erabilerari buruzko desadostasunak dira PRECOko gatazka-mota ohikoena.

4.25. TAULA**PRECORI AURKEZTUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOAK**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Gatazka-kopurua	Eraginpeko langileak	Gatazka-kopurua	Eraginpeko langileak	Gatazka-kopurua	Eraginpeko langileak	Gatazka-kopurua	Eraginpeko langileak
2007	84	27.033	182	45.349	87	9.225	353	81.607
2008	111	35.484	213	33.630	82	10.678	406	79.792
2009	71	64.749	202	67.675	88	8.889	361	141.313
2010	101	52.787	237	65.326	116	10.351	454	128.464
2011	126	35.605	302	59.386	102	14.641	530	109.632
2012	96	20.760	220	41.477	104	9.796	420	72.033
2013	203	95.109	739	214.253	407	144.457	1.349	453.819
2014	148	59.971	289	85.874	144	14.435	581	160.280
2015	94	34.688	326	138.650	153	13.307	573	186.645
2016	133	38.793	319	143.871	161	17.742	613	200.406
2017	103	36.694	245	45.786	146	51.883	494	134.363
2018	109	55.872	253	46.230	114	12.088	476	114.190
2019	131	40.620	232	62.160	101	15.208	464	117.988
2020	159	113.007	334	105.668	97	11.826	590	230.501
2021	146	44.197	288	178.511	142	36.901	576	259.609
2022	117	28.983	245	50.014	163	27.712	525	106.709
2023	181	55.929	311	70.835	153	16.060	645	142.824
2024	181	51.882	258	80.176	160	19.474	599	151.532
2025	143	72.554	196	759.626	165	22.155	504	854.335

Iturria: LHK.

Gatazka horiek prozedura guztien %50etik gora egon dira historikoki, eta 2025ean %61,5 izatera iritsi ziren (310 eskaera); hau da, ehunekotan, 2,1 puntu jaitsi ziren 2024an eskatutakoen aldean.


Arau eta itun edo hitzarmen kolektiboen interpretazioari edo aplikazioari buruzko gatazken ehunekoa aurreko urtekoaren berdina izan zen (%26). Horrelako gatazka gehienak hitzarmen kolektiboen eta enpresa-akordioen interpretazioari edo betetzeari buruzko desadostasunak izan dira (125), eta lege-arauen interpretazioari edo aplikazioari buruzko eskaerak oso gutxi izan dira (2).

2025ean gorakada txiki bat izan da PRECO prozedurara aurkeztutako negoziazio-gatazka kolektiboen kopuruan. Zehazki, gatazka-mota horri lotuta 51 eskaera aurkeztu ziren, hau da, eskaera guztien %10,1 (2024an %8,3 izan ziren).

Gainerako gatazkek honela banakatu ziren: 9 eskaera, enpresa bateko erakunde sindikal jakin bateko afiliazioaren ehunekoa egiaztatzeko, eta 3 eskaera, hitzarmen kolektiboetako batzorde paritarioetam izandako desadostasunengatik.

2025ean, gatazkak konpontzeko tasa, hau da, eskaera guztien arteko adostasun- eta laudo-tasa, zertxobait igo zen aurreko urtearen aldean, eta %22,3ra iritsi zen

4.25. GRAFIKOA PROZEDUREN EMAITZA OROKORRAK: 2015-2025



Prozeduren emaitza

2025ean, konpondutako gatazken tasa apur bat igo zen, 2024arekin alderatuta: %22,3an kokatu zen (116 prozedura); zehazki, ehunekotan, 1,7 puntu igo zen aurreko urtearen aldean.

Zifra hori lortzen da 2025ean lortutako adostasunak urte horretan amaitutako eskabide guztiekin alderatuta. Benetan izapidetutako eskabide guztiekin alderatuz gero (atzera egindakoak eta izapidetzeko ez onartzeagatik artxibatutakoak kenduta, bai eta kontrako aldea ez agertzeagatik aurrera egin ez zutenak ere), konpondutako gatazkak %24,7 lirateke, errealitatetik gertuago dagoen ehunekoa.

Eta nabarmentzekoa da, azkenik, prozedura gutxik egin dutela aurrera, hasierako fasean ebazteke, adiskidetze-, bitartekaritza- edo arbitraje-saioekin, aldeek aukeratutako kanpoko profesional batek esku hartuta. Zehazki, 2025ean, 18 espediente izan dira soilik: 8 adiskidetze, 9 bitartekaritza eta arbitraje 1. Ehunekotan adierazita, prozedura horiek 2025ean amaitutako guztien %3,5 izan ziren (2024an, %5,7 izan ziren).

4.3. ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

4.3.1. SARRERA. ARAU ESPARRUA

Enplegu-erregulazioko espedienteak prozedura administratiboak dira, eta hiru ondorio ezberdin izan ditzakete:

- Lan harremana behin betiko iraungitzea (iraungitze EEEdak)
- Lanaldia murriztea.
- Lan harremana aldi baterako etetea.

Ondorioa lanaldia murriztea edo lan harremana aldi baterako etetea denean, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak esaten zaie (ABEEE)

Enplegua erregulatzeko espedienteen kopuruaren eta horien eraginpeko langileen kopuruaren bilakaera oso lotuta dago ekonomiaren martxarekin, eta nabarmen egiten du gora krisi-garaietan.

Enplegu Erregulazioko Espedienteak: Enpresek edo langileen ordezkari legalek lan-agintaritza eskudunarena aurrean aurkeztutako prozedurak, lanaldia murrizteko, aldi baterako eteteko edo lan-harremana iraungitzeko, arrazoi ekonomikoen, teknologikoen edo ezinbesteko arrazoiaren ondorioz, edo kontratatzailearen izaera juridikoa iraungi delako.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

4.3.2. EAE-KO ADMINISTRAZIOAN AURKEZTUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

Atal honetan, EAEko lantokiak dituzten enpresek EAEko administrazioan aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedienteak bakarrik hartuko ditugu kontuan²². Halaber, ez ditugu analisi honetan aztertuko Lehiaketan Legearen (uztailaren 9ko 22/2003 Legea) 64. artikuluan erregulatutako lehiaketa-prozeduren esparruan merkataritza arloko epaitegietan izapidetutako espedienteak.

2025 urtean, enplegu-erregulazioko 377 espediente aurkeztu ziren, eta, azkenean, horietatik %79 baimendu edo jakinarazi zituzten (298 espediente). Izan ere, %19,4 (73 espediente) artxibatu egin ziren edo horietan atzera egin zen, eta 6 espediente (%1,6) ez zituen EAEko Administrazioak baimendu.

Eraginpeko langileei dagokienez, hasiera batean 2025ean enplegu-erregulazioko espediente bat aplikatzea eskatu zitzaizen 8.730 langileetatik %76,5 (6.679 langile) Enplegu Erregulazioko Espedienteren baten babespean egon zen, eta atzera egindako edo artxibatutako espedienteek 1.970 langilerengan izan zuten eragina (%22,6), eta 81 langileri eragiten zieten espedienteek (guztizkoaren %0,9) azkenean ez zitzaizen baimenik eman.

²² Espedienteak autonomia-erkidego batean baino gehiagotan kokatuta dauden lantokiei edo pertsoneri eragiten badie, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioako Enpleguaren Zuzendaritza Nagusiak jasoko du enplegu-erregulazioko prozeduraren berri. Dena den, enpresako langileen 100eko 85, gutxienez, autonomia-erkidego bateko lurralde eremuan kokatuta badaude eta eremu horretan espedientearen eraginpeko langileak badaude, erkidegoko lan-agintaritzan aurkeztu behar da prozedura.

EAEko Administrazioan aurkeztutako espediente guztien artetik, %19,4 artxibatu edo baztertu egin zituzten, eta %1,6 ez zituzten baimendu

4.26. TAULA ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N

		ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
			Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2023	EAEko administrazioak tramitatuak	371	9.731	1.039	7.704	988
	Baimenduak edo komunikatuak	276	7.404	525	6.051	828
	Atzera botatakoak eta/edo artxibatutakoak	89	2.287	512	1.615	160
	Baimendu gabeak	6	40	2	38	0
2024	EAEko administrazioak tramitatuak	328	10.700	571	9.020	1.109
	Baimenduak edo komunikatuak	258	9.508	489	8.092	927
	Atzera botatakoak eta/edo artxibatutakoak	64	1.131	82	867	182
	Baimendu gabeak	6	61	0	61	0
2025	EAEko administrazioak tramitatuak	377	8.730	1.315	6.093	1.322
	Baimenduak edo komunikatuak	298	6.679	1.030	4.451	1.198
	Atzera botatakoak eta/edo artxibatutakoak	73	1.970	269	1.635	66
	Baimendu gabeak	6	81	16	7	58

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

4.3.3. EAE-KO ADMINISTRAZIOK BAIMENDUTAKO EDO HARI KOMUNIKATUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

Aurrerantzean, EAEko Administrazioak baimendutako edo hari komunikatutako espedienteak bakarrik aztertuko ditugu, eta alde batera utziko ditugu artxibatutakoak edo baztertutakoak, baita baimendu gabeak ere.


Pandemiaren agerpenak eragindako krisi ekonomikoaren ondorioz, enpresa askok jo zuten uneren batean aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek ematen dituzten barne-malgutasuneko neurrietara. Hori dela eta, 2020an, enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko langileen kopuruak (espediente gehienak, ezinnbesteko arrazoiengatik) nabarmen gainditu zuen aurreko krisietan erregistratutakoa, eta 210.019 langile izatera iritsi zen; zifra 2009an zenbatutakoa (68.722 langile) baino hiru aldiz handiagoa zen, eta 2,4 aldiz handiagoa 1993an erregistratutakoa baino (86.166 langile).

Jarduera pixkanaka normalizatu izanak eta ezarritako murrizketen amaierak posible egin zuen enplegu-erregulazioko espedienteak nabarmen murriztea.

2025ean zehar, enplegu-erregulazioko 298 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 6.679 langileri eragin zieten. Zifra horiek adierazten dute espedienteen kopuruak %15,5eko urte arteko hazkundera izan duela, eta eraginpeko langileen kopuruak, aldiz, %29,7ko jaitsiera

4.26. GRAFIKOA

EAE-N BAIMENDUTAKO EDO KOMUNIKATUTAKO ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO LANGILE KOPURUAREN BILAKAERA. 1994-2025.



2025 urtean, enplegu-erregulazioko 298 espediente aurkeztu zituzten EAEn, 6.679 langileri eragin zietenak. Zifra horiek adierazten dute espedienteen kopuruak %15,5eko urte arteko hazkundera izan duela, eta eraginpeko langileen kopuruak, aldiz, %29,7ko jaitsiera.

4.27. TAULA

ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N, ARRAZOIAREN ARABERA. 2024 ETA 2025 URTEAK

2024 URTEA	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak (ETOP)	237	9.261	488	7.848	925
Ezinbesteko arrazoiak	21	247	1	244	2
Guztira	258	9.508	489	8.092	927
2025 URTEA	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak (ETOP)	262	6.123	1.015	3.936	1.172
Ezinbesteko arrazoiak	36	556	15	515	26
Guztira	298	6.679	1.030	4.451	1.198

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak (ETOP) direla eta aurkeztutako espedienteek 6.123 langileri eragin zieten, guztizkoaren %91,7ri, eta ezinbesteko espedienteen eraginpeko enpleguak gainerako %8,3a izan ziren (556 langile).

Aurreko urtearen aldean, ETOP espedienteek eragindakoen kopuruak %33,9 egin du behera, eta ezinbesteko espedienteek eragindakoen kopuruak, berriz, %125,1 egin du gora.

Ezinbesteko espedienteen eraginpeko langileak %125,1 gehitu ziren, eta eraginpeko enpleguak 2024an 247 izatetik 2025ean 556 izatera igaro ziren

Langile gehienak (%82,1 2025ean) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean egon ziren arren (erdaraz ERTE direlakoak), azkentze-prozeduren eraginpeko enpleguek gora egin zuten aurreko urtearen aldean, 2024an 927 pertsona izatetik 2025ean 1.198 izatera igaro baitziren: %29,2ko igoera.

Ondorio gisa, 2025ean Enplegu Erregulazioko Espedienteen eraginpean zeuden langileak %29,7 gutxitu ziren, baina enplegu-erregulazioko azkentze-espedienteen eraginpekoak %29,2 gehiago izan ziren, eta ezinbesteko enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpekoak, %125,1 gehiago.

Analisia, sektorearen arabera

Enplegu Erregulazioko Espedienteen eraginpeko langileek gora egin zuten industria-sektorean, eta 2023an guztizkoaren %74,3 izatetik 2024an %83,7 izatera igaro ziren

Enplegu Erregulazioko Espedienteen eragina jarduera-sektoreen arabera aztertzean, ikus daiteke berriz ere bigarren sektoreari dagozkiola espediente gehienak.

Espedienteen %49,7 industria-sektoreko enpresek aurkeztu zituzten; bigarren lekuan, hirugarren sektorea dago, espedienteen %45ekin; ondoren eraikuntza (%3) eta lehen sektorea (%2,3) daude. Eraginpeko langileei dagokienez, %81,8k industrian egiten zuten lan, %16,6k zerbitzuetan, %0,6k eraikuntzan eta %1ek lehen sektorean.

4.28. TAULA**ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA**

		ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
			Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2023	Guztira	276	7.404	525	6.051	828
	Lehen sektorea	24	64	0	64	0
	Industria	124	5.498	366	4.907	225
	Eraikuntza	10	273	1	205	67
	Zerbitzuak	118	1.569	158	875	536
2024	Guztira	258	9.508	489	8.092	927
	Lehen sektorea	10	135	11	112	12
	Industria	139	7.960	307	7.079	574
	Eraikuntza	10	178	11	73	94
	Zerbitzuak	99	1.235	160	828	247
2025	Guztira	298	6.679	1.030	4.451	1.198
	Lehen sektorea	7	63	4	43	16
	Industria	148	5.055	866	3.642	547
	Eraikuntza	9	90	0	26	64
	Zerbitzuak	134	1.471	160	740	571

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

Analisia, plantillaren tamainaren arabera

Aurreko urteetan bezala, izapidetutako espediente gehienek enpresa txikietakoak izaten jarraitu zuten; hala ere, eragindako langileen kopuru handiena enpresa handienetan dago.

Izan ere, 25 langile baino gutxiagoko enpresek espediente guztien %68,8 izapidetu zituzten, eta eraginpeko langileak Enplegu Erregulazioko Espedienteen eraginpeko guztien %26,4 izan ziren. Bestalde, 100 langiletik gora dituzten enpresek espediente guztien %6,7 izapidetu zituzten, eta eraginpeko langileak Enplegu Erregulazioko Espedienteen eraginpeko langile guztien %37,8 izan ziren.

4.29. TAULA**ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N, PLANTILLAREN TAMAINAREN ARABERA. 2025. URTEA**

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
25 langiletik beherako plantilla	205	1.763	231	881	651
25 eta 50 langile arteko plantilla	57	1.522	253	1.053	216
51 eta 100 langile arteko plantilla	16	870	235	610	25
101 eta 250 langile arteko plantilla	15	1.497	264	927	306
250 langiletik gorako plantilla	5	1.027	47	980	0
GUZTIRA	298	6.679	1.030	4.451	1.198

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

Analisia, lurralde historikoaren arabera

4.30. TAULA
ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK ARABAN

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraingitzea
2023	47	2.076	61	1.871	144
2024	39	2.693	52	2.549	92
2025	47	1.912	47	1.498	367

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

4.31. TAULA
ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK BIZKAIAN

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraingitzea
2023	132	3.252	155	2.641	456
2024	124	4.420	225	3.813	382
2025	128	2.395	303	1.627	465

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

4.32. TAULA
ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK GIPUZKOAN

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO LANGILEAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraingitzea
2023	97	2.076	309	1.539	228
2024	95	2.395	212	1.730	453
2025	123	2.372	680	1.326	366

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.

Bizkaia izan zen 2025ean espediente gehien komunikatu eta/edo baimendu ziren lurraldea, 128 espedienterekin (guztizkoaren %42,9). Gipuzkoa izan zen hurrengoa, 123 espedienterekin (%41,3), eta Araba da, 47 espedienterekin (%15,7), jakinarazitako eta/edo baimendutako espediente kopuru txikiena duen lurraldea.

2025ean Enplegu Erregulazioko Espedienteek eragindako langileei dagokienez, Bizkaiko lurralde historikoan kontzentratu zen espedienteok eragindako langile gehien (guztizkoaren %35,9); ondoren Gipuzkoa dator, 2.372 langilerekin (guztizkoaren %35,5); eta, azkenik, Araba, 1.912 langile eta enpleguaren %28,6.

4.4. LANEKO EZBEHAR TASA

4.4.1 LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N 2025EAN: ALDERDI NAGUSIAK

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 2025an baja eragin zuten laneko ezbeharren tasa osoa %6,1 jaitsi zen EAEn

Osalanek, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, emandako datuen arabera, 2025an, guztira 37.627 langilek izan zituzten laneko ezbeharrak EAEn (laneko bajaran dauden pertsonak, lanaldiko istripuen, "in itinere" istripuen eta gaixotasun profesionalen ondorioz).

Baja horien %84,3 lanaldiaren barruko istripuek eragin zituzten, %11,4 "in itinere" istripuek eta gainerako %4,3a gaixotasun profesionalek. Ehunekoen banaketa hori aurreko urteetakoaren antzekoa da.

4.33. TAULA

LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N (BAJA HARTU ZUTEN LANGILEAK)

	Baja eragin zuten istripuak, lanaldian								In itinere	Baja eragin zuten istripuak, lanaldian + In itinere		Gaixotasun profesionalak	Guztira
	Guztira	Larritasunaren arabera			Sektorearen arabera					Traumatikoak	Ez-traumatikoak		
		Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak					
2014	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	28.045	50	895	28.990
2015	26.641	26.460	153	28	659	9.094	2.555	14.333	3.580	30.161	60	999	31.220
2016	28.090	27.918	138	34	673	9.861	2.640	14.916	3.512	31.534	68	1.145	32.747
2017	29.629	29.443	161	25	664	10.281	2.898	15.786	3.935	33.500	64	1.445	35.009
2018	30.115	29.912	169	34	641	10.524	2.998	15.952	3.857	33.901	71	1.512	35.484
2019	33.007	32.819	162	26	679	11.794	3.766	16.768	4.099	37.044	62	1.520	38.626
2020	26.958	26.768	169	21	562	9.133	3.426	13.837	3.244	30.128	74	1.242	31.444
2021	31.232	31.017	184	31	578	9.867	3.749	17.038	3.619	34.780	71	1.347	36.198
2022	32.651	32.410	216	25	573	10.253	4.093	17.732	3.922	36.509	64	1.360	37.933
2023	32.099	31.925	148	26	497	10.523	4.076	17.003	4.029	36.057	71	1.520	37.648
2024	34.013	33.826	165	22	576	11.175	4.175	18.087	4.487	38.439	61	1.558	40.058
2025	31.712	31.532	156	24	486	10.582	3.914	16.730	4.299	35.940	71	1.616	37.627

Iturria: Osalan. Abenduko hileko txostenak (datu metatuak).

Aurreko urtearen aldean, baja eragin zuten ezbeharren tasa osoa (gaixotasun profesionalak barne) %6,1 jaitsi zen, batez ere lanaldian gertatutako ezbeharrek askoz gutxiago izan zirelako (%6,8ko jaitsiera, 2.301 istripu gutxiago). "In itinere" istripuak %4,2 jaitsi ziren (188 istripu gutxiago). Aldiz, gaixotasun profesionalak 58 gehiago izan ziren (+%3,7).

***Laneko istripua:** langile batek besterentzako lanean ari dela edo besterentzako lanaren ondorioz jasandako gorputzeko lesio oro, langileak lantokira bidean edo lantokitik bueltan jasandakoak barne.*

***Gaixotasun profesionala:** besteren kontura egindako lanaren ondorioz harrapatutako gaixotasuna.*

Iturria: Gizarte Segurantzako Lege Orokorra (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa)

Lan-istripu gehien zerbitzuetan gertatu ziren, 16.730 langilek izan baitzuten istripuren bat; izan ere, sektore horretako istripuak lanaldiko istripu guztien %53,2 izan ziren. Bigarren lekuan industria dago: istripuren bat izandako 10.582 langile (guztizkoaren %33,4).

4.34. TAULA
LAN-ISTRIPUAK (LANALDIAN ETA “IN INTINERE”) EAE-N, TRAUMATIKOAK ETA EZ TRAUMATIKOAK, LARRITASUNAREN ARABERA

	ISTRIPU TRAUMATIKOAK			
	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Beste batzuk
2021	34.564	197	19	34.780
2022	36.251	240	18	36.509
2023	35.882	158	17	36.057
2024	38.237	182	20	38.439
2025	35.758	162	20	35.940
	ISTRIPU EZ TRAUMATIKOAK			
	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Beste batzuk
2021	42	13	16	71
2022	40	12	12	64
2023	42	16	13	71
2024	35	19	7	61
2025	40	21	10	71
	GUZTIRA			
	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Beste batzuk
2021	34.606	210	35	34.851
2022	36.291	252	30	36.573
2023	35.924	174	30	36.128
2024	38.272	201	27	38.500
2025	35.798	183	30	36.011

Larritasunaren arabera, 2024arekin alderatuta, behera egin zuten lanaldian eta “in itinere” izandako lan-istripu larriek (-%9), baita arinek ere (-%6,5); aldiz, istripu hilgarriak 2024an 27 izatetik 2025ean 30 izatera pasa ziren (+%11,1).

2025ean 30 pertsona hil ziren EAEn laneko istripu baten ondorioz: 2024an baino hiru gehiago

Istripu traumatikoak: kanpoko agente batek eraginak dira eta, normalean, bat-bateko ekintza bortitz baten ondoriozkoak izaten dira (kolpeak, erredurak, zauriak, hausturak...).

Istripu ez-traumatikoak: gaixotasun profesional gisa sailkatzen ez diren patologia endogenoak, hala nola bihotzekoak edo garuneko isuriak, non lan-baldintzek eragina izan dezaketen.

4.4.2 LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: ANALISIA SEKTOREAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

Baja eragin zuten lanaldiko istripuek behera egin zuten sektore guztietan, eta behera egin zuen halaber mila pertsona landuneko istripu-ratioak 2024arekin alderatuta.

Eta, aurreko urtearekin alderatuta, baja eragin zuten istripuen kopurua %15,6 jaitsi zen lehen sektorean, %7,5 zerbitzuetan, %6,3 eraikuntzan eta %5,3 industrian.

2025ean, baja eragin zuten lanaldiko istripuek behera egin zuten sektore guztietan

Aurreko urteetan bezala, hirugarren sektorean kontzentratu ziren lanaldian baja eragin zuten istripuen erdia baino gehiago (guztizkoaren %52,8); ondoren datoz industria-sektorekoak (%33,4), eraikuntzakoak (%12,3) eta, azkenik, lehen sektorekoak (%1,5).

Lanaldian baja eragin zuten istripuen ratioari dagokionez ((Istripuak/Landunak) X 1.000), sektoreka, 2025ean 65,9an kokatu zen eraikuntzan, 52,5ean industrian, 51,7an lehen sektorean eta 22,8an zerbitzuetan.

Lurraldeka, 2025ean, EAEan baja eragin zuten lanaldiko istripuen erdiak Bizkaian gertatu ziren (guztizkoaren %50,7), %31,1 Gipuzkoan eta gainerako %18,2a Araban. Ehuneko horietan ez da aldaketa esanguratsurik izan aurreko ekitaldiekin alderatuta.

Araba da lanaldian baja eragin duten istripuen ratio handiena duen lurraldea

Aurreko urtearekin alderatuta, jaitsiera handian Araban geratu zen, lanaldiko istripuak %17,3 gutxiago izan baitziren); ondoren datoz Gipuzkoako lurralde historikoa (%4,4 gutxiago 2024arekiko), eta Bizkaia (%3,8 gutxiago 2024arekiko).

Lanaldian baja eragin zuten ezbeharren tasa handiena (1.000 pertsona landuneko) Araban izan zen (37,4); gero Bizkaian (31,2), eta, azkenik, Gipuzkoan (29,4).

4.35. TAULA

ENPLEGUA ETA EZBEHAR TASA EAE-N

		GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Lanaldiko istripuak, bajarekin						
2023	EAE	32.099	497	10.523	4.076	17.003
	Araba	4.763	63	1.707	431	2.562
	Bizkaia	17.137	286	4.925	2.487	9.439
	Gipuzkoa	10.199	148	3.891	1.158	5.002
2024	EAE	34.013	576	11.175	4.175	18.087
	Araba	6.987	133	2.594	668	3.592
	Bizkaia	16.703	295	4.813	2.343	9.252
	Gipuzkoa	10.323	148	3.768	1.164	5.243
2025	EAE	31.712	486	10.582	3.914	16.730
	Araba	5.781	108	2.151	563	2.959
	Bizkaia	16.065	231	4.803	2.296	8.735
	Gipuzkoa	9.866	147	3.628	1.055	5.036
Langile okupatuak (milaka) (1)*						
2023	EAE	973,5	8,4	195,2	56,2	713,6
	Araba	147,2	1,5	37,0	8,1	100,6
	Bizkaia	501,8	4,0	79,4	32,1	386,3
	Gipuzkoa	324,5	2,9	78,8	16,1	226,8
2024	EAE	992,7	9,2	199,4	55,8	728,3
	Araba	150,8	1,9	40,2	6,3	102,3
	Bizkaia	507,4	3,8	82,7	30,7	390,1
	Gipuzkoa	334,5	3,5	76,5	18,7	235,9
2025**	EAE	1.005,2	9,4	201,7	59,4	734,7
	Araba	154,4	2,5	42,7	7,9	101,3
	Bizkaia	514,8	3,1	84,0	31,7	395,9
	Gipuzkoa	336,0	3,8	75,0	19,9	237,4
(Istripuak/Landunak) x 1.000						
2023	EAE	33,0	59,2	53,9	72,5	23,8
	Araba	32,4	42,0	46,1	53,2	25,5
	Bizkaia	34,2	71,5	62,0	77,5	24,4
	Gipuzkoa	31,4	51,0	49,4	71,9	22,1
2024	EAE	34,3	62,6	56,0	74,8	24,8
	Araba	46,3	70,0	64,5	106,0	35,1
	Bizkaia	32,9	77,6	58,2	76,3	23,7
	Gipuzkoa	30,9	42,3	49,3	62,2	22,2
2025**	EAE	31,5	51,7	52,5	65,9	22,8
	Araba	37,4	43,2	50,4	71,3	29,2
	Bizkaia	31,2	74,5	57,2	72,4	22,1
	Gipuzkoa	29,4	38,7	48,4	53,0	21,2

(1) BJA (Eustat).

* 2026ko urtarrilean argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: Geuk egina, Osalanen eta Eustaten datuetan oinarrituta..

4.36. TAULA**LANEKO EZBEHAR TASA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (BAJA HARTU ZUTEN LANGILEAK)**

		Baja eragin zuten istripuak, lanaldian								In itinere	Gaixotasun profesionalak	Guztira
		Guztira	Larritasunaren arabera			Sektorearen arabera						
